ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-03-05
ASTELEHENA
356. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

JOSETXO ARANTZABAL

"Guk oso ondo pasatzen dugu, eta barrea eragiteak bete egiten gaitu"

Cristina Medina | Aktorea | 29

Helburua lortu du Ford Mugarrik: igoera fasea jokatuko du | 24

Bergarako Senegaleko lagunen elkartea sortu da | 2

Jai polita izan zen Oñatin, dominikar dantzez eta produktuez betea | 13

Urkulun, 120 zuhaitz

Zuhaitzak landatu zituzten Urkulun: 100 ametz eta 20 gorosti. Oñatin ere landaketa egin zuten ume eta gurasoek batera | 13

Neskatila taldetxo horrek gogoz egin zuen lan bere zuhaixka Urkulun landatzeko. | JOSETXO ARANTZABAL

Sandra Carrasco: "Ez dugu ezer abertzalearen damuan sinisten"

Isaias Carrascoren hilketaren 4. urteurrenean, omenaldia egin zioten atzo Arrasaten | 4

Lore eskaintza. | JOSETXO ARANTZABAL

Debagoieneko zaleak: "Realak ez zuen galtzea merezi izan" | 22

Mondrak gura izan, baina ezin: 0-1 galdu zuen etxean | 23

Herrirako partaideak. | JOSETXO ARANTZABAL

Presoak etxeratzeko sortu da Herrira ekimena | 4

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

GOZATU, MEREZI DUZU !

Esko Sport

► Zoaz 21. orrialdera *Goiena klubeko txartela, beti aldean*

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TEKNOLOGIA BERRIAK 36 | TELEBISTA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | ESKELAK 39

'Ndank ndank' da Bergarako Senegaleko Lagunen Elkartea

- Senalgar eta bertako lagunez osatutako elkartea sortu berri dute
- Kulturartekotasuna eta lankidetza proiektuak bultzatzea bilatzen du
- Maiatzaren 4an egingo dute aurkezpen ekitaldia, Bergaran

Elkarteko zuzendaritzako kideak: ezkerretik,

MIRIAN BITERI | BERGARA

Helburu bikoitzarekin sortu berri dute Bergaran Ndank Ndank elkartea: alde batetik, senegaldar eta euskaldunon artean kulturartekotasuna sustatzea nahi du; eta beste aldetik, Senegalen hezkuntza eta osasunarekin lotuta dauden lankidetza proiektuak aurrera eroatea.

Joan den irailean hasi ziren egitasmo horrekin. Gaur egun Bergaran bizi diren hainbat senelgaldarrek elkartea osatzea aztertu zuten, eta ideia hainbat bergararrei komentatu zuten. Herrian zabaltzen joan zen, eta dagoeneko elkarteen erregistroan izena emanda dute. Izen esanguratsua jarri izan diote horri: hain justu ere, Ndank Ndank. Pausoz pauso edo poliki poliki esan nahi du Senegaleko wolof hizkuntzan. Azaldu dute senegaldarrek askotan erabiltzen dituzten hitzak direla horiek, eta elkartean dagoeneko barneratuta dutela; gehienek, eguneroko bizitzan erabiltzeko ohitura dutela diote.

Zuzendaritza batzordea ere gertu dute. Honakook osatzen dute taldea: Mamadou Sarr presidentea, Elisabete Dominguez presidente ordea, Mireia Gallastegi idazkaria, Ainhoa Dominguez diruzaina, eta Migel Angel Arregi eta Souleymane Sarr batzordekideak.

Berbaldia

Herrira begira ere lan egiten hasi dira. Elkartearen aurkezpen ofiziala maiatzaren 4an egingo dutela iragarri dute. Ekitalditxo batekin batera, Senegaleko errealitateari buruzko berbaldia egingo dute. Horretarako Jaurlaritzako Biltzen zerbitzuko (Integraziorako eta kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua) teknikaria ekarriko dute; senegaldarra da bera eta herriari buruzko datuak ematearekin batera, han batzen direnen artean irten daitezkeen zalantzak argitzen saiatuko da.

Zuzendaritza batzordekoek jakinarazi digute aurkezpena egiten dutenerako gertu izango dituztela urtean zehar herri mailan egingo dituzten ekintzak; horretan dabiltza orain buru-belarri. Ezer zehatzik aurreratzerik ez badute ere, herri mailan kultura, gastronomia eta kirol ekintzak antolatzeko asmoa dutela jakinarazi digute. Horien berri emango dute maiatzaren 4ko ekitaldian.

Presidentea Senegalen

Horretaz gainera, ordurako Senegaleko Fatick eskualdean dagoen Dionewar herrian martxan jarri nahi dituzten garapenerako lankidetza proiektua ere zehaztuta izango dute, eta horren gaineko azalpenak emango dituzte egun berean. Horren harira, zuzendaritzakoek azaldu digute elkartearen presidente Mamadou Sarr Senegalen dagoela orain, hango Gobernuz Kanpoko Erakunde ezberdinekin kontaktatzen eta elkarlanean esandako proiektua aurrera ateratzeko. Otsaila hasieran joan zen Senegalera, eta maiatza aldean du handik itzultzeko asmoa. Migel Angel Arregik azaldu digu Mamadou Sar "bertatik bertara" dabilela egon daitezkeen beharrak ezagutzen. Horren harira, Elisatebe Dominguezek honakoa gaineratu du: "Garrantzitsua iruditzen zitzaigun guk Euskal Herritik egitea baino, Senegaletik bertatik esatea zeintzuk diren behar inportanteenak. Beraiek dira zer behar duten ondoen jakiten dutenak".

Souleymane Sarrek proiektu horiek hezkuntza eta osasunarekin lotuta egongo direla azaldu digu, eta Dionewarreko errealitatearen berri eman digu. Hezkuntzari dagokionez, eskolan sartzeko arazoak dituzten neska-mutikoei laguntzea bilatzen da bereziki.

Bi bider huts eginda kalera

Horren harira, honakoa adierazi digu: "Eskoletan gela gehiago behar dituzte. Sei urte bitarteko geletan, normalean, 60 eta 70 neska-mutiko inguru batzen dira; kopuru hori larregikoa da. Gero, Bigarren Hezkuntza egin ahal izateko azterketa bat gainditu beharko dute, eta gela horietan 50 lagunetik gora daude. Guztiak ezin dira pasa, onenak aukeratzen dituzte. Batxilergoa egitea nahi dutenek beste azterketa bat pasa beharko dute. Oso gogorra da, onena izatera behartuta daude -eta. Bi bider huts egiten badute, kalera doaz eta ikasteari utzi behar diote".

Osasun arloan ere txarto daudela nabarmendu du. Hainbat zonaldetan mediku bakoitzak 50.000 herritar dituela salatu du. Horren harira, esan du Dionewarren ere egoera kaskarra dela. Sarren esanetan, zonalde horretan 40.000 eta 45.000 artean dago kopuru hori.

Udalak begi onez

Guzti hori aurrera eroan ahal izateko, laguntza behar dutela gogorarazi dute Ndank Ndank taldekoek. Dagoeneko Bergarako Udalarekin jarri dira harremanetan; proiektua begi onez hartu badute ere, baliabide aldetik mugatuta daudela jakinarazi diete; dena dela, ahal den neurrian laguntzeko asmoa dutela jakinarazi diete. Horrekin batera, gogorarazi diete irailean zabaltzen dela horren gaineko laguntzak eskatzeko deialdia.

20 euroko urteko kuota

Administrazioen aldetik laguntza heltzen den bitartean, herritarren laguntzarekin dute aurrera egiteko asmoa. Guztien izenean, honakoa esan digu elkarteko idazkari Mireia Gallastegi bergararrak: "herritarren laguntza gabe zaila izango da ekintzak aurrera eramatea". Bergararrei eta oro har, debagoiendarrei zabaldu diete gonbite hori; eta laguntza hori jaso ahal izateko hainbat bide jarri dituzte herritarren eskuetan: alde batetik, elkarteko bazkide egin daitezkeela azaldu du urtero 20 euroko kuota ordainduta; bestetik, antolatzen diren ekintzetan boluntario moduan parte hartu dezakete; eta bestetik, laguntzak ere egin daitezke Caja Ruraleko 3008 0169 52 2459228025 zenbakian.

Horren gaineko informazioa edo laguntzea nahi dutenek hainbat bide dituzte Ndank Ndank

SENEGAL

DIONEWAR
Debagoienean bizi diren senegaldar gehienak Dionewar irlakoak dira; hegoaldean dago hori, Saloum errekaren deltan, Fatick eskualdean.

SENEGAL, DATUTAN

- **Kokapena:** Mendebaldean, ozeano Atlantikoarekin egiten du muga Senegalek; iparraldean, Mauritaniarekin; ekialdean, Malirekin; eta hegoaldean, Ginea eta Ginea-Bissaurekin.
- **Biztanleria:** 13 milioi inguru (2009).
- **Estatu mota:** Errepublika.
- **Hiriburua:** Dakar
- **Bizi-itxaropena:** 56 urte.
- **Seme-alaba kopurua:** 5,1 ume.
- **Hezkuntza:** %40,2 alfabetatuta daude.
- **Erlijio nagusienak:** Musulmanak (%96).
- **Etniak:** Wolof (%43,3), peul (%33,8), sererer (%14,7), malinke (%3), soninke (%1,1).
- **Hizkuntza nagusienak:** Frantsesa da hizkuntza ofiziala; baina wolofen ere asko egiten da berba, biztanleriaren %43,3 etnia horretarakoa da-eta.
- **Klima:** Sahelianoa. Kostaldean 16º eta 30º gradu artean ibiltzen dira; barnealdean eta ekitaldean, 40 gradutik gora izaten dituzte.

Mireia Gallastegi, Ainhoa Dominguez, Souleymane Sarr, Elisabete Dominguez eta Migel Angel Arregi . | MIRIAN BITERI

Osintxun bizi den Lamine *Char*en semea Senegalen | NDANK NDANK ELKARTEA

Umeak Dionewar herriko eskolan. | NDANK NDANK ELKARTEA

Bizikidetza ona da; irudian, Mamadouren iloba Elhadji bergararrekin. | NDANK NDANK

elkartearekin harremanetan jartzeko: egubakoitz arratsaldeetan herriko kultura etxean izango dira; informazioa emateareki batera, elkarteko bazkide egin ahal izateko esku orriak ere izango dituzte han eta baita herriko beste hainbat tokitan ere, hala nola, tabernetan, dendetan eta baita kiroldegian ere. Sare sozialak ere erabiltzen dituzte, eta Facebooken kontu bat zabaldu dute: *Ndank Ndank Elkartea*. Eta azkenik *ndank.ndank.elkartea@gmail.com* helbide elektronikoa eta 677 705 356 telefono zenbakia ere interesa dutenen eskura jarri dute.

ESANAK

"Garrantzitsua da Senegaletik bertatik esatea zeintzuk diren beharrak"

ELISABETE DOMINGUEZ
PRESIDENTE ORDEA

"Herritarren laguntza gabe zaila izango da ekintzak aurrera eramatea

MIREIA GALLASTEGI
IDAZKARIA

DATUAK

70
HAUR

Senegalen, sei urte bitarteko 60 eta 70 ume artean izaten dituzte gela bakoitzean.

50.000
HERRITAR

Hainbat zonaldetan mediku bakoitzak artatzeko dituen gaixoak.

SOULEYMANE SARR | SENEGALDARRA

"Hizkuntzak elkartrukatzea oso aberasgarria da: nik hemengoa ezagutuko dut, eta debagoiendarrek senegaldarrena"

Souleymane Sarr urteak daramatza Euskal Herrian. Senegaleko hegoaldeko kostaldean dagoen Dionewar herrian jaio zen orain dela 36 urte, eta azken urteak gurean eman ditu. Lehenengo lau urteak Bizkaian eman zituen, eta gaur egun, berriz, Aretxabaletan bizi da. Debagoienean bizi den komunitate senegaldarraz egin digu berba datozen lerroetan.

Zenbat senegaldar daude Debagoienean?

Gutxi gorabehera 30 lagun inguru gaude; batzuk etorri berriak dira baina beste batzuek dagoeneko bost urte daramatzate bailaran; gehienak, dena dela, Bizkaitik pasa dira aurretik, Markina aldetik bereziki. Debagoienean oso pozik gaude; egia esan, hasieratik oso ondo hartu gaituzte. Gure artean batzuetan tabernetan edo baten etxean geratzen gara, eta horrelako hitzordu batetik sortu zen elkartea sortzeko ideia, guztiok zonalde berekoak gara; aurretik, dena dela, asko egin dugu berba eta sakon aztertu dugu horrelako zerbait sortzeko aukera.

Jakinekoa da harreman ona daukazuela; esaterako, Mamadou oso ezaguna da Bergaran

Bai, hala da. Bizpahiru urte daramatza Bergaran eta herri guztiak ezagutzen du. Bergarar batekin bizi da gainera; Migel Angel Arregi da hain justu bere pisu kidea. Gainera, euskara ere ikasi du eta ederto moldatzen da hizkuntza horretan.

Mamadou Sarrek dagoneneko ikasi du. Zuk ere euskara ikasteko asmoa duzu?

Souleymane Sarr Aretxabaletan bizi da. | MIRIAN BITERI

Gustatuko litzaidake, baina oraingoz nahikoa daukat lanarekin eta baita gaztelaniarekin ere. Baina hizkuntzak elkartrukatzea oso aberasgarria dela iruditzen zait. Modu horretan, nik hemengoa ezagutuko dut, eta debagoiendarrek senegaldarrena. Elkartean, esaterako, wolof hizkuntzan hainbat hitz ikasi dituzte dagoeneko.

Senegalen hainbat proiektu jarri nahi dituzue martxan, ezta?

Hala da, hezkuntzarekin eta osasunarekin lotuta daudenak. Dena dela, oraindik zehazteke daukagu guztia. Elkarteko presidentea Senegalen dago orain, gure eskualdeak dituen beharrak gertutik jarraitzen. Bera joango da bidaltzen horren gaineko informazioa.

Sandra Carrasco hizketan; atzean Isaias Carrascoren senitartekoak eta PSE-EEko ordezkariak. | JOSETXO ARANTZABAL

Carrascori omenaldia, laugarren urteurrenean

Urtero bezala, Navas de Tolosa kalean elkartu ziren haren senitarteko, lagun eta alderdikideak

MIREN ARREGI | ARRASATE

Etzi, martxoak 7, beteko dira lau urte ETAk Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi sozialista ohia hil zuenetik; atzo omenaldia egin zioten haren senitarteko, lagun eta alderdikideek hil zuten toki berean.

Besteak beste Navas de Tolosa kalean izan ziren Barne Sailburu Rodolfo Ares, Garraio eta Azpiegituretako sailburu Iñaki Arriola, Jose Antonio Pastor eta Paco Gartzia legebiltzarkideak, PSE-EEko Gipuzkoako Exekutibako presidente Manuel Huertas, Espainiako kongresuko diputatu Odon Elortza eta ibarreko eta Arrasateko PSE-EEko zinegotziak. Arrasateko Udaleko Bilduko zinegotzi Juan Antonio Barriocanal (EA) ere izan zen bertan. Urtero bezala, lore-eskaintza egin zioten lehenengo Carrascori eta ondoren Iñaki Arriola sailburuak hartu zuen hitza. Carrascoren irudia ekarri zuen gogora Arriolak. Pertsona arrunta zela esan zuen; Arrasaten behar-beharrezkoa zen unean alderdi sozialistaren eta bereziki herritarren alde lan egin zuena. Ezker abertzaleari zuzendu zitzaion ondoren, esanaz: "Ezker abertzalearen zintzotasunean sinistuko badugu, gauza bakoitzari bere izenez deitzen hasi beharko dira eta hilketa bati hilketa deitu, ez ETAren ekintzaren ondorio mingarri". Eta gaineratu zuen: "ETAren ekintza armatuez atsekabetu eta hilketen aurrean izan duten jarrerak biktimen umilazioa suposatu izanaz damu dira orain; gaur hori diotenek duela lau urte ez zuten Isaias Carrascoren hilketa kondenatu".

Familiak ez du damua sinisten

Sandra Carrascok, Isaias Carrascoren alabak adierazi zuen "familiak ez" duela "sinesten ezker abertzalearen damuan". Gaineratu zuen ETAk ez dituela oraindik armak entregatu eta ez dutela damurik erakutsi eta hori ezinbestekoa dela sinesgarritasun osorako. Izan ere, haren ustez, "kontraesana da indarkeriaren amaiera iragarri eta oraindik ETAko kideak armekin eta lehergailuekin" egotea. ETAk ekintza armatua behin betiko utzi izanaz esan zuen kontrako sentimenduak dituela eta bizitzea tokatu izan zaionagatik, amorruz, inpotentziaz eta jasandako sufrimendu guztiagatik tristura handia sentitu zuela. Gainera, aro berrian, haren ustez, "elkarbizitza baketsua biktimen onarpenarekin lor daiteke eta ez haiek ahaztuz".

Urte hauetan bere familiak eta ETAk hildako beste pertsonen familiek jasandako "mina" ere ekarri zuen gogora eta esan zuen, Isaias Carrascok berak ematen diela indarra egunero-egunero aurrera egiteko.

Arrasateko zinegotzi Aritz Arrietak gogoratu du horrelako omenaldiak "beharrezkoak" direla "Isaias Carrascoren memoria eta beste biktima guztien memoria gizartean presente izatea ezinbestekoa" delako. Gaineratu du, aurrez egin bezala, Arrasaten Isaias Carrascoren izena eramango duen plaka bat ipintzeko eskaera egingo dutela Udalean.

Azkenik, Pello Urizarrek aurreratu bezala, EAko ordezkaritza ere izan zen omenaldian; Arrasateko Udaleko Bilduko zinegotzi Juan Antonio Barriocanal (EA).

ESANAK

"Hilketari hilketa deitzen hasi beharko dute lehenik"

IÑAKI ARRIOLA | SAILBURUA

ESANAK

"Familiak ez du sinisten ezker abertzalearen damuan"

SANDRA CARRASCO | ALABA

Koalizioa lortzen saiatuko da Aralar

L.K. | ARRASATE

Datozen EAEko Legebiltzarreko hauteskundeetarako Batasunarekin, Abertzaleen Batasunarekin, Alternatibarekin eta EArekin koalizioa egiteko negoziazioak hastea onartu zuen Aralarren Hegoaldeko batzarrak. Gehiengo zabalarekin onartu zen hori: emandako botoen %93,8 horren aldekoak izan ziren. %3,1k aurka bozkatu zuten, eta %3,1 abstenitu egin ziren, Aralarren koordinatzaile nagusi Patxi Zabaletak emandako datuen arabera. Horrenbestez, Amaiurren antzeko koalizioa lortzea da orain helburua.

Batzarra zapatuan izan zen, Gasteizen, eta 170 kide joan ziren. Ordezkari nabarmen asko ez ziren joan, hala nola Oxel Erostarbe, Mikel Basabe, Aintzane Ezenarro edo Jon Abril. Koalizioa egitearen aurkako sektorekoak dira.

Akordio nazionala, xede

Bi ebazpen onartu zituen batzarrak. Lehenengoan, Aralarren Hegoaldeko Zuzendaritzari baimena ematen diote alderdikideek V. Biltzarreko Ponentzian jasotako "ebazpenen xedea gauzatzeko, urratsak ematen jarraitzeko, orain arte egindako bidetik". Ebazpen hori %95,2 aldeko botoekin onartu zen.

Bigarren ebazpenak honela dio: "Hegoaldeko Batzarrak baimentzen du Hegoaldeko Zuzendaritza, Akordio nazional estrategikoa xede izanik, Abertzaleen Batasuna, Batasuna, EA eta Alternatibarekin elkarrizketa eta negoziazioak garatzeko eta, bere baitan, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetara begira balizko koalizioak ere elkarrizketak bideratzeko".

"Aulki hutsak betetzeko" indarrak batu eta lan egingo du Herrira ekimenak

Zapatuan eman zitzaien herritarrei ekimenaren izaeraren eta helburuen berri Arrasaten

M.A. | ARRASATE

"Hiltzeko jaiotako ekimena da", zioen Herrirako kide Manu Ugartemendiak zapatuan Arrasateko plazan: "Helburua euskal preso eta iheslariak etxeratzea da. Hasteko, baina, gaixorik dauden presoak etxeratzea, preso guztiak euskal herriratzea eta Parot doktrina indargabetzea eskatuko dugu". Euskal Herriko beste hainbat herritan egingo den bezala, urtarrilaren 7an euskal presoen alde Bilbon egin zen *Kolosala izango da* manifestazioaren "ondorio bezala ulertu genezake Herrira". Euskal preso eta iheslarien aldeko aldarriarekin 110.000 lagunek egin zuten bat Bilbon eta "indar metaketa hura herrietan antolatu eta artikulatzeko beharretik" sortu da Herrira. "Nazio mailako izaera du ekimenak, plurala izan gura du, parte-hartzailea eta ideologietatik kanpo egongo da", gaineratu zuen Ugartemendiak. Hala, presoen eskubideak aldarrikatu gura dituen edozein ideologiako herritarren ekarpenak jaso gura dituzte.

Herriko plazan elkartu ziren herritarrak argazkia egiteko. | JOSETXO ARANTZABAL

Parte-hartzea eta ekarpenak

Bide horretan ekarpenak egin gura zituzten 50 bat lagun elkartu ziren Kulturaten eta hainbat kezka, galdera eta asmoren gainean hausnartu zuten. Ondoren, herriko plazan aurkeztu zuten ekimena. Manu Ugartemendia kideak ekimenaren nondik norakoak azaldu zituen eta, nola ez, ez zen falta izan txorizo, sagardo, dantza, txalaparta eta trikitirik.

Aurrerantzean Arrasaten egingo dituzte erresonantzia magnetikoak

- Unitate mugikorra jarri dute ospitalean Zumarragakoarekin batera
- Urtean 2.300 erresonantzia egingo direla aurreikusi dute arduradunek

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Erresonantzia Magnetikoaren unitate mugikorra jarri dute Debagoieneko ospitale kanpoan, eta egubakoitzetik han egin daitezke erresonantziak. Zerbitzua txandakatu egingo dute Arrasateko eta Zumarragako ospitalean; astebete egongo da ospitale bakoitzean. Horren berri eman zuten egubakoitzean prentsaurrekoan: Martin Agirre Debagoieneko ESIko erradiodiagnostiko zerbitzuaren arduraduna eta Jesus Mongelos Debagoieneko ESIren zuzendari nagusia izan ziren prentsaurrekoan.

Orain arte Debagoieneko herritarrek hiriburuetara jo behar izaten zuten erresonantziak egitera; Arrasatetik Gasteizera, adibidez. Hala, ESI-ko arduradunek adierazi dute zerbitzu hau gure bailaran eskaintzea abantaila handia dela gaixoentzat. Batetik, ez duelako desplazamendurik eskatzen, eta, bestetik, itxaron zerrendak laburragoak izango direlako. Asko jota 15 egun itxaron beharko dira erresonantziak egiteko.

Unitate mugikorrean egongo diren profesionalak. | IRATI GOITIA

Erresonantzien emaitzak

Martin Aperribai medikuak esan zuen erresonantziak eskanerrak baino emaitza hobeak ematen dituela: hainbat patologietan, adibidez, nerbio-sisteman, bizkarrezurrean... Horren harira, gaineratu zuen gero eta gehiago erabiltzen dela bularreko tumoreetan edo ginekologikoetan. "Hau osagarri bat gehiago da, osagarri oso ona. Badaude hainbat patologia zeinetara gu ezin garen heldu eta erresonantziak aukera hori ematen digu. Baina garrantzitsuena da jendeak ez duela desplazatu beharrik izango, hemen bertan egin dezakeela" adierazi zuen Aperribaik.

Gaixotasun edo egoera patologikoak diagnostikatzerako orduan erabiltzen diren beste teknika batzuekin alderatuta, abantaila nagusia da ez duela X izpirik erabiltzen. Erresonantzia Magnetikoa, potentzia handiko iman bat eta erradiofrekuentzia uhinak erabiliz lortutako irudien bitartez, gaixotasun edo egoera patologikoak diagnostikatzeko teknika da.

ESANAK

"Garrantzitsuena da jendeak ez duela beste ospitale batzuetara desplazatu beharko"

MARTIN APERRIBAI | MEDIKUA

Urtean 2.300 erresonantzia

Debagoieneko ESIak etengabeko hobekuntza egiten du erabiltzaileen arreta eta segurtasunean aurreratzeko. Erresonantzia Magnetikoa ezartzea horren islara da. Ospitale berriarekin, bestalde, erradiodiagnostikorako ekipamendu berri eta modernoagoak jarriko dituzte, besteak beste, azken belaunaldiko TAC bat.

Urtean 2.300 bat erresonantzia egitea aurreikusten dute. Hori dela eta, beste erietxe batzuetara joango diren gaixoen kopurua ia hutsekoa izango dela ere aurreikusi dute.

EUDELek Udal kudeaketaren gaineko saioak eskainiko ditu

A.E. | ARRASATE

Hainbat ekimen eta tresnaren bitartez, EUDELek hamar urte baino gehiago daramatza euskal udaletako kudeaketa politikoaren arduradunen prestakuntzaren alde lanean. Jarduera ildo horretan, arduradun politikoen prestakuntzarako ikastaro programa bat jarri du abian, udal kudeaketan orientatzeko helburuarekin. Programaren bitartez, kudeaketa politiko eraginkorragoa eta, ondorioz, herritarren premiak aseko dituena aurrera eramateko tresna egokiak eskaini nahi zaizkie parte-hartzaileei. Horretarako, ondoko gaiak landuko dituzte: langile politika krisi garaian, udal gobernantza eta herritarren parte-hartzea, e-Gobernua eta e-Administrazioa, etxebizitza eta hirigintzako politikak eta berdintasun politiken sustapena.

2012ko martxotik maiatzera bitartean izango dira alkate zinegotzi eta oposizioari zuzendutako ikastaroak. 2, 4 edo 10 orduko saioak izango dira.

Al Jazeerako kazetariak Mondragoneko egoitza nagusian. | ARTEMAN

Al Jazeerako kazetariak Mondragon ezagutzen egon dira egunotan

Munduko kooperatiben inguruko erreportajea egiten dabiltza eta horren harira izan dira gurean

A.E. | ARRASATE

Al Jazeera English kateko hiru kazetari Mondragon Korporazioaren inguruko erreportajea egiten ibili dira azken egunotan. Joan zen astelehenean, esaterako, Korporazioaren egoitza nagusian izan ziren, baita Fagor Arrasate eta Mondragon Unibertsitatean ere.

Kooperatiben Nazioarteko Urtearen harira asko izan dira Mondragon Korporazioa bisitatu duten medioak. Orain dela bi aste, adibidez, Malagako produkzio-etxe bateko kideak izan ziren bisitan, CECOP-ek (The European Confederation of Workers' Cooperatives, Social Cooperatives and Social and Participative Enterprises) zuzentzen duen dokumental baterako elkarrizketak eta grabaketak egiteko. Azken astean, ostera, Al Jazeera English telebista kazetariak izan dira Mondragoneko bizipenak bertatik bertara jaso gura izan dutenak.

Munduko kooperatibak

Al Jazeera English munduko kooperatiben inguruko hainbat erreportaje ematen dabil azkenaldian; hala, erreportaje sorta horien barruan arituko dira Mondragoni buruz.

Mondragoneko egoitza nagusian egoteaz gain, joan zen astelehen goizean Fagor Arrasaten izan ziren kazetariak. Lantegia bisitatu zuten eta Fagor Arrasateko bazkide eta presidente den Aritz Otxandianori elkarrizketa egin zioten. Arratsalde partean, ostera, Mondragon Unibertsitatera joan ziren eta han ikasle bat elkarrizketatu zuten.

Arrasaten grabatu duten Mondragoni buruzko erreportajea martxoaren 8an eskainiko du Al Jazeera English kateak.

Kooperatiben urtea

Nazio Batuen batzar orokorrak erabaki zuen 2012a kooperatiben nazioarteko urtea izendatzea. Kooperatibek gizarte eta ekonomia garapenean izan duten garrantzia nabarmendu dute. Hain zuzen, gai hauen inguruan egindako lana nabarmendu dute: pobrezia gutxitzean, lanpostuak sortzean eta integratze sozialean

ELAk alternatiba aldarrikatzeko beharra eskatu zuen Oñatin egindako asanbladan

T. MADINA/A. EZKIBEL | OÑATI

Debagoieneko eta Debabarreneko sektore ezberdinetako ELAko 150 bat ordezkari sindikal Oñatin elkartu ziren egubakoitzean. Martxoaren 29rako deitutako greba orokorraren inguruan hausnarketa eta planifikazioa egitea izan zen batzarraren helburua, eta horren harira hainbat gai landu zituzten. Gainera, gogor kritikatu zuten lan erreforma berria.

Salatu zuten langabezian eta egoera okerrenean daudenek pertsekuzioa jasaten duten bitartean iruzur fiskala egiten dutenek administrazioaren aldetik omenaldiak jasotzen dituztela; gainera, banketxeei ematen zaizkien laguntzak ere kritikatu zituzten. Horren guztiaren aurrean, ELAk eredu alternatiboa planteatu zuen.

Alternatiba aldarrikatzea

Joseba Villarrealek, ELAko batzorde eragileko kidea, historikotzat jo zuen joan zen zapatuan langileen eskubideen alde Bilbon egindako manifestazioa. Martxoaren 29rako lehen urratsa izan zela dio; orain, denen aldetik alternatiba aldarrikatzeko beharra dagoela azpimarratu zuen.

ELAko ordezkariak Oñatin elkartu ziren egubakoitzean. | TXOMIN MADINA

Eskoriatzan ez beste herri guztietan erregistratu da langabe gehiago

▸ Otsaila 3.346 langaberekin bukatu zen, urtarrilean baino 59 gehiago

▸ Langabezia tasa bi dezima handitu da Debagoienean: %10,80koa da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hilabete txarra izan da berriz ere otsaila: langabeziak txarrera egin du, eta Debagoienean ia bi dezima handitu da. Hala, urtarrila %10,61eko langabezia tasarekin bukatu zen, eta otsaila, %10,80koarekin. Bailaran, 3.346 langabe zeuden erregistratuta hil bukaeran Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoan, urtarrilean baino 59 gehiago.

Herri guztietan erregistratu da urtarrilean baino langabe gehiago, salbuespen batekin: Eskoriatza. Han, 239 langabe izatetik 233 langabe izatera pasatu dira.

Gipuzkoan, %1,79 handitu

Otsailean Euskadin 3.463 pertsona gehiago daude langabezian; beraz, langabeziak %2,22 egin du gora aurreko hilabetearekin alderatuta, eta, guztira, 159.667 dira enplegu-eskatzaileak. Enplegu Sailak gaur emandako datuak dira.

Hego Euskal Herrian eta Espainian, 112.269 pertsona gehiago daude langabezian, eta guztira 4.712.098 pertsona dira (%2,44).

Lurraldeen arabera, Araban 612 pertsona gehiago daude langabezian (%2,53), Gipuzkoan, ordea, 787 pertsona gehiago (%1,79) eta Bizkaian, 2.064 (%2,35).

Bestalde, urtarriletik otsailera, 1.951 gizon geratu dira lanik gabe (%2,58), eta 1.512 emakume (%1,88).

Adin-tarteei dagokienez, 25 urtetik beherako 726 enplegu -eskatzaile gehiago daude lanik gabe. 45 urtetik gorakoen tartean ere 646 pertsona gehiago daude lanik gabe, eta 25 eta 45 urte bitartekoen kasuan, 2.091.

Sektoreen araberako langabezia %5,17 handitu da lehendik enplegurik ez zuten pertsonen artean. Industria-sektorean, langabezia %1,58 handitu zen; zerbitzuenean, % 1,95; eraikuntzan, %2,16 ; eta lehen sektorean, %2,58.

Krisiaren testuinguruan

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburu Gemma Zabaletak datu horiek aztertu zituen egubakoitzean, eta "krisialdi ekonomikoaren iraupena" dela medio, "testuinguruan jarri" behar direla esan zuen. Hala, Enplegu Sailak gogorarazten duenez, 2008ko otsailaren eta 2009ko otsailaren artean krisialdiren unerik larriena izan zen, lehen baino 32.334 langabe gehiago erregistratu zen-eta. 2009 eta 2010 bitarteko aldi berean gutxiago handitu zen: 21.490 langabe gehiago. 2010eko otsailaren eta 2011ko otsailaren artean, ekonomia zerbait suspertu zenez, erregistratutako langabezia are gutxiago handitu zen Euskadin, 8.313 langabe gehiagorekin. "Azken urtean, krisi ekonomikoa areagotu denez eta nazioarte mailan politika murriztaileak gauzatu direnez, 13.874 pertsona gehiago daude langabezian", baloratu zuen Gemma Zabaletak.

Eusko Jaurlaritzak, Confebaskek, UGTk eta CCOOk aurkeztu berri duten Langabeziaren Aurkako Plana gogora ekarri zuen Zabaletak, enplegua sustatzeko aurtengo "neurri jakin batzuk" dituela esanez, eta gogora ekarriz 321 milioi euroko diru-dotazioa duela.

HERRIRIK HERRI

HERRIA	LANGABEAK	TASA
Antzuola	98	%10,77
Aretxabaleta	314	%9,73
Arrasate	1.372	%11,86
Bergara	812	%11,32
Elgeta	49	%9,96
Eskoriatza	233	%11,21
Leintz Gatzaga	11	%8,27
Oñati	457	%8,46
GUZTIRA	**3.346**	**%10,80**

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

Euskadiko Kutxak, zerga osteko 19,4 milioi irabazi

L.K. | ARRASATE

Euskadiko Kutxak zerga eta geroko 19,4 milioi euroko irabaziak izan zituen iaz, 2010ean baino %62 gutxiago. Kreditu entitateak bere probisioak 222 milioi euroraino handitzea erabaki du, bere negozio errepikariaren errentagarritasuna ona izan delako. Probisioak edo zuzkidurak areagotu ditu finantza-sistemaren erreforma egin berriaren eskakizunak "ahalik eta arinen betetzea" erabaki duelako. 454 milioi euroko soberakina izan du kapital nagusian; hau da, % 50,4ko superabita gutxieneko eskakizunen gainetik.

Erakundeak 65 milioi inbertitu zituen 2011ko ekitaldian eta, horri esker, Seguros Lagun Aro SA eta Seguros Lagun Aro Vida SA konpainien kapital osoa eskuratu du.

Bezeroei emandako kreditua 15.158 milioi eurokoa izan da, eta %5,6 egin du behera. "Hein batean, bezero partikularren kontsumo- eta hipoteka-finantzazioren eskaria murriztu izanak eragin du beherakada hori", esan du Euskadiko Kutxak.

Txus Alzaga | Soraluce kooperatibako presidentea

"Bere arloko liderra izaten jarraitzea da Soraluceren helburua"

Soraluce kooperatibak 50 urte ospatzen ditu fresatzaile arloko munduko lider gisa. Apirilaren 27an, 52 fundatzaileak omenduko dituzte

Txus Alzaga, Otaloran. | TXOMIN MADINA

L.K. | BERGARA

Osintxun dagoen Soraluce kooperatibak 50 urte ditu aurten. Txus Alzagaren hitzetan, kooperatibaren lan guztia lidergoari eustera bideratu behar dute.

Zelan ospatuko dituzue Soraluceren 50 urteak?

Sorrera-akta apirilaren 27koa da, eta egun horretan egingo dugu ospakizun handiena. Aste horretan, Innovation Day egingo dugu eta bezeroak, hornitzaileak, ordezkaritzetako kideak... gure instalazioetara gonbidatuko ditugu. Hilaren 27an, fundatzaileak omenduko ditugu: euren izena daroan plaka bat erakutsiko dugu, instalazioak bisitatuko ditugu eta, gero, hitzaldiak izango dira. Bergarako eta Soraluzeko alkateak ere egongo dira. Gure lehiaketako eskultura irabazlea zabalduko dugu gero. Bukatzeko, Soraluzeko kiroldegian bazkalduko dugu. Biharamunean, familiendako ate irekiak egingo ditugu, eta domekan, meza.

Soraluceko 52 fundatzaile haiek zeintzuk eta zelakoak ziren?

Plazentziarrak ziren, 18 eta 22 urte artekoak, eta langileak. Diktadura garaia zen eta lantokietan duintasun falta zegoen. Eurek lan duinerako inguru bat topatu eta, era berean, herria aberastu nahi zuten, lana eman herriari.

Baina lantegia Osintxun dago.

Soraluzen ez zegoen tokirik. Arizmendiarrietak esan zuen mugek ez zutela balio, irten zitezela Soraluzetik. Orduan, Osintxun sortu zuten. Eta, gero fundatzaile batek esaten zuen moduan, nola handitu den ikusita, erabaki ona izan zen.

Inglaterrara eta guzti joan ziren, ezta? Zertara joan ziren?

Errementistak ziren, tornulari gisa lan egiten zuten, edo zulagailuekin. Argi zeukaten makina -erremintan lan egingo zutela, eta zulagailuak egitea erabaki zuten. Orduan, Bilboko Abando etxearekin kontaktatu zuten, haiek Ingalaterrako Asquith lantegiarekin zuten harremana, eta hara joan ziren Jose Luis Eguren, lehenengo presidente gerentea, Ormaetxea eta Abandoko pertsona bat. Zulagailu radialak sal zitzaketela ikusi, eta lehenengo pabilioia egin zutenean, haiek ekoizten hasi ziren, lehenengo Asquith lizentziarekin, eta gero Soraluce lizentzia sortu zuten.

"Krisi garaia izan arren, iaz 30 lagun kontratatu zituen Soralucek"

Zenbat langile eta bazkide zarete?

Krisi garaian zaila da lanpostuei eustea, baina iaz 30 lagun kontratatu genituen, eta orain 217 langile eta 184 bazkide gara.

Nazioartean zelan dabil Soraluce?

Esportatu egiten dugu ekoizpenaren %90 inguru. Iaz ospatu genuen Alemaniako ordezkaritzaren 20. urteurrena, eta Italiakoaren 10.a. Frantzian ordezkaritza txiki bat dugu. Gero, Danobat Group-en gaudenez, eurekin Errumanian plataforma bat dugu, eta 1993tik Txinan ordezkaritza du Danobat Group-ek. Orain 2-3 urte Danobat Group India sortu zen, eta iaz, Danobat Group Errusia. AEBetan, Mexikon, Brasil eta Argentinan eta Turkian banatzaileak ditugu. Orain, Ekialde Ertainera eta Ipar Afrikara zabaldu nahi dugu gure burua.

"Ekialde Ertainera eta Ipar Afrikara zabaldu nahi dugu gure burua"

Nolakoa dator etorkizuna Soralucerendako?

Gure etorkizuna gure erantzukizuna da. Lehenengo, jakin behar dugu kooperatibarekin ze erantzukizun dugun, eta sentiarazi behar dugu arduradunak, nagusiak eta jabeak garela. Hori lortzen badugu, etorkizun handia dugu: munduko liderrak gara fresatzaileak diseinatzen, egiten eta saltzen, eta hori da gure erronka: liderrak izan nahi dugu eta lan guztia horretara bideratu behar dugu.

Jaiver Zubizarreta, Debagoieneko ospitalean duen bulegoan. | ARANTZAZU EZKIBEL

Javier Zubizarreta | Barne medikuntzako zerbitzuburua

"Lanez gainezka egon arren, erantzun profesional bikaina eman dugu"

- Otsail amaieran izan du gripeak eragin handiena; ospitalean lanez gainezka daude
- Sukarra, ondoeza, eztula, faringeko mina eta muskuluetako mina izaten dira sintomak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Aurten gripea ohi baino beranduago etorri da. Otsailaren amaiera aldean nahiko gogor jo du gripeak gurean. Debagoieneko ospitalean momentu batzuetan gaixoendako ohe barik geratu dira eta gaixo batzuk etxean artatu behar izan dituzte. Javier Zubizarreta barne medikuntzako zerbitzuburuak azaldu digu egoera. Garai honetan ohikoa den egoera bizi dutela azaldu du eta orain, martxoan, egoerak nola jarraitzen duen ikusi beharko dutela dio.

Ospitalean lanez lepo zabiltzate egunotan. Zein da horrela ibiltzearen arrazoia?

Esan behar da ez dagoela arrazoi bakarra. Negu partean izaten dugun ohiko lanari gripearen ondorioak gehitu behar dizkiogu. Aurten gripea ohi baino aste batzuk beranduago iritsi da; orain arteko eragin handiena otsailean nabaritu dugu. Ikusiko dugu martxoan zehar nola jarraitzen duen.

Gripea, pneumonia, bronkitisa... zeintzuk dira gaixotasun ohikoak eta ze adinetan eragiten du?

Gaixotasun ohikoenak arnaske-ta infekzioak izaten dira, baita bakteria infekzioak ere; hau da, gripe eta pneumonia kasuak. Horiek edozein adinetan izan daitezke. Bronkitisa, ostera, pediatria adinetan izaten da gehiago.

Zuengana doazenek nolako sintomak izaten dituzte?

Ohikoak izaten diren pazienteen sintomak izaten dira: sukarra, ondoeza, faringeko mina, eztula eta muskuluetako eta artikuluetako mina. Horiek izaten dira ohikoenak gripe kasuetan. Horiez gain, pneumonia kasuetan, adibidez, saihets inguruko mina eta arnasa hartzeko zailtasunak ere izaten dituzte gurengana datozen pazienteek.

"Gorakada handienak urte hasieran eta amaieran dira"

"Nagusiak eta gaixo kronikoak dira pertsona ahulenak gripearen aurrean"

Ohikoa da garai honetan horrelako gorakada izatea?

Bai, neguan ohikoa da. Eragin handiena duten egunak aldakorrak izan daitezke, astebete gora edo behera. Baina ohikoa izaten da gorakada handienak urte amaieran eta urte hasierako asteetan izatea.

Datuei begira jarrita, beste urte batzuetan baino gaixo kopuru handiagoa edo txikiagoa dago aurten?

Gaixo kopurua aldatu egin daiteke urte batetik bestera, baina hori ez da garrantzitsuena. Garrantzitsuena gripearen birusak izan dezakeen gogortasuna da, arnas infekzioen larritasuna eta baita nori eragiten dion gripeak ere. Hau da, pertsona ahulei eragiten dien edo ez. Batez ere, pertsona ahulak izango lirateke nagusiak eta desoreka daitezkeen gaixotasun kronikoak dituztenak.

Lanez gainezka zaudete. Ospitaleratuta egon beharko luketeen gaixoendako ohe faltan ere egon zarete.

Bai, lanez gainezka gaude, baina erantzun profesionala bikaina izan da, eta, ondorioz, oheak ez izatearen zailtasunak arindu egin dira eta arazoa egunetik egunera konpondu dugu. Horren harira, esan behar da ohe gabezia eta ospitaleratzeko atzerapenak dituztenak ospitale handiak direla.

Horrelako egoerarik bizi izan duzue aurretik?

Unean-unean izaten ditugu horrelako egoerak, batez ere gripearen eragina gorenean dagoenean; denondako eragozpenak sortzen dira, baina, azkenean, beti topatzen ditugu irtenbideak eta aurrera egiten dugu.

"Gripea duenak atseden hartu behar du eta hidratatu egin behar da"

"Garrantzitsuena gripearen birusak izan dezakeen gogortasuna da"

Horrelako kasuetan, nola artatzen dituzue etxean geratzen diren gaixoak?

Guk ez ditugu paziente horiek etxean artatzen. Zerbitzu hori lehenengo mailako arreta zerbitzuak ematen du, eta ospitalearen kasuan Etxeko Ospitalizazio Zerbitzuak egiten du gaixo horiekin lan. Horren harira, data hauetan indartu egin dute zerbitzu hori.

Zer gomendatuko zenieke herritarrei?

Beti egin izan ditugun gomendioak esango nituzke orain ere. Gripea duten gaixoek atseden hartu behar dute, ondo hidratatu behar dute, likido asko hartuta, eta sukarraren eta min muskularraren aurkako antitermikoak hartu behar dituzte. Gaixotasun kronikak dituzten pazienteek, bestalde, lehenengo mailako arreta zerbitzuan lan egiten duten profesionalei horren berri eman behar diete. Bestalde, sintoma larriak dituztenei gomendatuko nieke, adibidez, arnasa hartzeko zailtasunak dituztenei, larrialdietara joan daitezela.

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI
http://goiena.net/iritzia/

Erdaldunen inplikazioa

Duela egun batzuk ile-apaindegian lanean ari ziren ile-apaintzaileak eta bezeroak eguneko gorabeherei buruz hizketan geunden, beste andre bat sartu zenean. Etorri berriak gaztelaniaz hitz egin zuen ozen eta hitz-jario handiaz jarraitu zuen, ordura arteko euskarazko jarduna zeharo etenaz. Ile-apaintzaileak gaztelaniaz erantzun zion eta handik aurrera, batzuk isilik gelditu baziren ere, gaztelaniaz bakarrik hitz egin zen. Inork ez zuen euskaraz hitza hartu eta inork ez zion gaztelaniaz ari zelako berari ezer esan.

Euskaraz ez dakien erdaldun bat dagoenean erdaraz hitz egin behar dela irakatsi zaie euskaldunei. Gaztelania aurrerapena eta kulturako hizkuntza dela iradoki zaie euskaldunei eta erdaldunei, aldiz euskara atzeratua eta balio gutxikoa dela. Euskaraz hitz egitea zigortua izan da, gaztelaniaz egitea behartua.

"Euskaraz hitz egitea zigortua izan da, gaztelaniaz egitea behartua"

Egoera honetan normaltzat hartzen da euskaldunen menpekotasuna eta erdaldunen nagusikeria. Honek ikusezin bihurtzen du ezarritako sistemaren eta bakoitzaren duintasunaren arteko kontradikzioa, ez da kuestionatzen "normaltasun" hau.

Inolako konplexurik gabe hitz egin zuen andre hark, ez zen jabetu hura sartzean gainerakoen solasa moztu zuela. Bestalde, inork ez zion ezer esan, etorri bezain lasai joango zen, inori kalterik egin ez ziolakoan.

Erdaldun askok ez dutela inolako hizkuntza aurreiritzirik pentsatuko dute, eta egia izango da. Beste batzuek berdintasunean sinesten dutela pentsatuko dute, eta hala izango da. Beste askok, gehienek, euskaldunen kontra indarkeriarik ez darabiltela esango dute, eta arrazoi izango dute. Baina berdintasunean aurrerapenik ez badago eta euskaldunen kontra hizkuntza indarkeriak jarraitzen badu, erdaldunek iraunarazten dutelako da.

Gogoeta egitera gonbidatzen ditut erdaldunak, euskaldunei berdintasuna lortzeko borroka egitea dagokien bezala bai dagokie beraiei euskaldunekiko errespetuz jokatu eta modu aktiboan inplikatzea.

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.com

Torreauzoko bidegurutzea

Zenbat lagunek zeharkatzen dute Torreauzorako bidegurutzea errepidetik? Zenbat susto egon dira leku horretan? Nik askotan zeharkatu dut leku horretatik, baina, zorionez, susto barik. Bada, laster, bidegorria izango dugu Torreauzora joateko eta lasai asko ibiliko gara. Foru Aldundiak hasi ditu Kurtzekua eta Zubillaga lotuko dituen bidegorriko lanak. Ugartondo baserri aurrealdeko zelaian bide zabala egin dute. Hortik joango da bidea Madalena aldera. Kasablanka eta Ugartondoko arteko errepidearen behetik egokituko dute bidegorria. Horrek aukera emango digu Kurtzekuatik Madalenara lasai joateko: bizikletan, oinez, umeekin, korrika...

KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizu Euskal Herriko Itzulia kolokan egotea?

JABIER UMEREZ
OÑATI

"Dirua ez dago soberan eta itzulirako ere ez egotea ez zait arraroa iruditzen. Egingo den edo ez? Ikusi egin behar zer gertatzen den".

PATXI XABIER UGARTE
OÑATI

"Momentu hauetan arriskuan dago Euskal Herriko Itzulia, baina nik uste dut egingo dela. Dirua nonbaitetik aterako da eta egingo da".

LUIS UGARTE
OÑATI

"Ziur nago egingo dela. Administrazioak dirua jarri edo ez, nik uste dut jendeak-edo lagunduta egingo dela. Ez dut zalantzarik".

SANTOS FUENTE
OÑATI

"Nik ez dut ziklismoa jarraitzen eta, egia esan, ez dakit oso ondo nondik nora doazen kontuak. Hala ere, komentatuko dut ingurukoekin".

HANDIK ETA HEMENDIK

Zorrak

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Joan dira *Ai, ama!* show berriaren —hala etiketatua dute— lehen bi asteak. Martxan da jada hirugarrena; eta iruditzen zait badela garaia saioaren gaineko hitz pare bat esateko. [...]

Hasteko eta behin esan beharra dut Iban Garate gidari txukuna iruditzen zaidala, ondo eramaten dituela atal guztiak, saioaren erritmoa, elkarrizketatuaren hitza.

Esan beharra dut Itziar Atienza gustatzen zaidala, zuzen egiten duela egiten duen apurra.

Eta Pagadik barrea ateratzen didala.

Ondo daudela, oro har, guztiak beren lanean. [...]

Eta, orduan, zerk ekartzen dizu, ba, zalantza? Zerk ez zaitu betetzen?

Ez dakit ba, izango da kirolari eta etxeko gonbidatuen konbinazioa, tarteka txantxak gaztelaniatik egiteko joera, elkarrizketa bat gehiegizko osagarriekin jantzi nahi izatea —*Finlandia*-ko neurrietara iritsi gabe, ordea—. Eta, batez ere, izango da originalarekiko —tira, originala ere ez da izango; kopiaren kopia segur aski— zor handiegia hartzen diodala.

Ezin dut *Ai, ama!* ikusten ari naizela *El Hormiguero* burutik kendu, Pablo Motos eta konpainia —Trancas eta Barrancas barne—.

Eta horiek denak bai ez ditudala jasaten, gelocatil gramo bat sartuta ere. Gehiegitxo.

Eta, hala ere, ikusten dizkiot bertuteak *Ai, ama!*-ri. Hasierako monologoa —Buenafuenteren haien hain zordun hori ere— sendotu liteke, luzatu, findu.

Garatek traza du horrelakoak egoki egiteko.

Elkarrizketatuak ere aldizkatu daitezke, handik eta hemendik ekarri, maila polita eta jokoa eman dezaketenak baitaude hor zehar hamaika.

Eta, pentsatzen dut denborarekin gero eta gehiago gertatuko dela, balio propioetan sakondu daiteke, urrundu kopiaren kopiatik, funtzionatzen duten gauzak aintzat hartu eta indartu, identitate propioagoa osatzeraino —zeinen ponposo ematen duten kontzeptuok—.

Pazientzia behar da, baina, horretarako, eta espero dut katearen arduradunek hortik oraino izatea.

Marilyn

Joxe Aranzabal
http://goiena.net/blogak/faroa/marilyn

Atzo arratsaldean, etxera heldu eta Marilyn Monroe aurkitu nuen egongelan. Dokumental batean izan zen, Frantzian egina, La2 kanalak emanda. Irudi haiek ikusi eta trumilka etorri zitzaizkidan Marilyn lehendabizi ikusi nueneko flashak. Hamar urte inguru nituen, ohean nengoen gaisorik, biriketan zerbait nuela. Hilabete eta erdi egin nuen horrela, eta, astean behin amak *¡Hola!* aldizkaria ekartzen zuen etxera, beste komiki batzuekin batera: *Pumby, Hazañas bélicas, El Capitán Trueno,* etab.

Irentsi egiten nituen denak, *¡Hola!* barne. Eta han ikusi nuen lehen aldiz Marilyn Monroe. Hasieratik eman zidan atentzioa emakume hark: haren bular oparoak, haren irribarre herabetasunik bakoa eta begirada samurra. Urte batzuk geroago, eta bera hilda zegoela, berriro mirestu nuen *Con faldas y a lo loco* eta beste film batzuetan. Mende erdi luze joan da harrezkero, eta oraindik ere emakume liluragarria iruditzen zait, nahiz eta jakin bere bizitza pertsonala gurutzebide gogorra izan zela.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Leire Kortabarria
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GORBEIAREKIN

OPORRETAN

JOANGO ZARA

Sartu:
"centrocomercialgorbeia.com"
eta

RIVIERA MAYARA

bidaia bat irabaz ezazu

(aste bat bi pertsonarentzat,
guztia barne duen erregimenean*)

Nola parte hartu?

1. Promozioaren barruan gutxienez 10€-ko erosketa egin Gorbeia Merkataritza Guneko edozein establezimendutan.
2. Sartu *www.centrocomercialgorbeia.com*-en eta eman izena.

Webgune horretan inprimaki bat bete beharko duzu, zure datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea eta abar) eta erosketa-tiketari dagozkion datuen berri emanez, eta horrela apirilaren 2ko zozketan parte hartu ahal izango duzu.

IMAGEN21

GORBEIA
10 URTE AURREZTEN

(*) Baldintzak ikusteko sartu:
www.centrocomercialgorbeia.com

Martxoaren 2tik 31ra balio duen promozioa

Carrefour · DECATHLON · Norauto · BRICO DEPÔT · merkal calzados · YELMO CINES DIGITAL 3D · MUEBLES MAX DESCUENTO · CIMER el outlet del electro · SAMIRA · CÓCTEL haurrak · CORTEFIEL · Asian Center · Mr. Wok asian bistro

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Pello Oianguren | Independenteak taldeko zinegotzia Elgetan (1979-1983/1987-1991)

- Bi agintaldi egin zituen udalean Oiangurenek; Hirigintza Sailean ibili zen lanean
- Independenteak hautagai-zerrendako Patxi Basauri izan zen bietan ere alkatea
- Gaur egun erabat alboratuta ditu politika kontuak; Elkoro lantegian egiten du lan

"Lagun talde bat sartu ginen Udalean, herriarendako lan egiteko, ez politika egiteko"

IRATI GOITIA | ELGETA

Pello Oianguren, Elgetako udaletxearen aurrean. | IRATI GOITIA

Zinegotzi izan zen garaiak urrun ikusten dituela esan digu Pello Oiangurenek. Independenteak zerrendako hautagai izan zen eta bi agintalditan izan zen zinegotzi Elgetako Udalean.

Nola oroitzen dituzu garai haiek?

Nahiko nekezak izan ziren. Izan ere, diktadura hurbil zegoen oraindik eta guri egokitu zitzaigun demokraziarako pausoa ematea. Beraz, garai zailak bizi izan genituen. Ondo oroitzen dut, adibidez, Xabier Arantzeta (*Lepo*) hil zutenekoa. Guardia Zibilak Errenterian hil zuen Arantzera eta guk, udaletxeko ordezkari moduan, horrekiko ardura erakutsi genuen. Bilera orokorra egin, eta seme kutun izendatu genuen. Erabaki hori ez zen guztien gustukoa izan eta ondorioak ere sufritu behar izan genituen: deiak, mehatxuak... eta lehergailu bat jarri zuten udaletxean. Garai gatazkatsuak ziren eta zail egiten zen zenbait erabaki hartzea.

Zein izan zen garai haietan aurrera eramandako proiektu garrantzitsuena?

Arau subsidiarioak onartzea, zalantzarik gabe. Lan zaila izan zen. Jende askorekin jarri behar izan genuen harremanetan eta jende askok hartu zuen parte. Urte askotako zeregina izan zen eta gaur egun ikus daitezke horren emaitzak. Herri antolamenduaren planifikazioa egin genuen; etorkizunean nolako herria izan nahi genuen erabaki genuen.

Bestalde, zona industrialari eman genion indarra ere nabarmenduko nuke. Gure taldeak aurrera eramandako proiektua izan zen, beste alderdietakoek ez zuten-eta babestu. Orain ikusten da, baina, eginiko lanak eman dituela fruituak: lanpostuak. Guk garrantzi handia eman genion horri, eta pozgarria da lortutakoa ikustea.

Gelditu zitzaizuen proiekturen bat egin barik?

Beharbada, pilotalekuaren alboan jolastokia egin ez izana. Bazen proiektu bat lautada bat egiteko eta bertan jolastoki handi bat ateratzeko, baina hori ezin izan genuen aurrera eraman. Horretaz gain, Eibartik Elorriora joateko ingurabidea egiteko asmoa ere ez zen bete. Biak ala biak orain-dik ere egin gabe daude.

Lau urte egin ostean, atsedenaldi txiki bat hartu zenuen. Zergatik?

Nik uste nuen lau urteren ostean nire etapa Udalean bukatuta zegoela. Gainera, zinegotzi lana nekeza da, ordu asko sartu behar dira bilera eta batzordeetan. Saltsa askotan sartuta egoten naiz, eta erabaki nuen niretako denbora hartu nahi nuela.

Ordu asko sartzeaz gain, erraza izan zen politika egiten ikastea?

Guk politika egiten ez genuen ikasi, eta oraindik ere ez dakigu. Lagun talde batek, koadrila batek, eratu genuen hautagai zerrenda, ikusten genuelako herrian bazegoela hutsune bat: ez zegoen liderrik. Guk ez genuen nahi herrian zer egin behar zen kanpotik esatea; baizik eta hemen bertan pentsatzea zer egin. Herrirako zerbait egitea zen gure helburua: geuk organizatu, geuk pentsatu, geuk egin planak eta geuk eraman aurrera. Horretarako elkartu ginen lagun talde bat eta ikusi genuen bagenuela masa sozial bat atzean.

Nolatan itzuli zinen berriro Udalera lau urteren ostean?

"Demokraziarako pausoa ematea guri egokitu zitzaigun; nekeza izan zen"

"Egun, tristuraz ikusten dut politika, ika-mikatan oinarritzen da-eta"

Beti izaten dira zerrendak betetzeko arazoak, jendeak ez du horrelako ardurarik hartu nahi izaten. Eta, egia esan, Patxi Basauri bera etorri zitzaidalako eman nuen baiezkoa.

Garaiak oso ezberdinak izango ziren.

Bai, igartzen zen ordurako lan bat egina zegoela. Baina orduan beste arazo bat zegoen. Alderdi politikoek askatasun handiagoa zuten, eta, ondorioz, elkarren arteko eztabaidak ere areagotu egin ziren. Hori ez nuen gogoko.

Bigarren agintaldi hartan zein proiektu esanguratsu egin zenuten?

San Roke kalea egokitu genuen eta Artekale ere orduan egin zen. Bestalde, kirolgunea ere garai hartako proiektua da.

Bigarren agintaldiaren ostean erabat utzi zenuen politika?

Bai. Gainera, nik utzi ostean beste lau urte egin zuen Independenteak hautagaitzak. Gero, desegin egin zen. Guk ikusi genuen trantsizio ostean bazela lan bat egiteko beharra eta gero erabaki genuen iritsi zela gure amaiera, politikariei utzi genien bidea.

Egun, zela ikusten duzu politika?

Tristuraz; izan ere, ez dago elkartasunik. Egun, ika-mikatan oinarritzen da politika. Nik ez dut uste horrek horrela izan behar duenik. Politikak izan beharko luke: entzun, kolaboratu, elkarrekin lan egin...

Esan daiteke ez duzula egungo politikan sinesten?

Ez asko, egia esatearren, ez ditut sekula politika kontuak ulertu. Gu Udalean sartu ginen herriarendako lan egiteko, ez politika egiteko.

ALKATE JAUNA, HARIRA!

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | JESUS ELORTZAREKIN ELKARRIZKETA

MARTXOAK 6, 21:30 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

PARTE HARTU ETA EGIN GALDERAK ALKATEARI

SAIOAREN AURRETIK: posta: posta: *harira@goiena.com* | Goiena.net: albistearen barrenean, galdera edo iruzkina utzi.

ZUZENEAN: 943 25 05 03 | Twitter: traola #harira | Goiena.net: ikusi streaming bidez eta egin galderak eta iruzkinak.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

HERRIAK

Gaztetxearen etorkizunaz hausnartzeko batu dira herritarrak barikuan eta zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

"Ilusioz beteta eta auzolanaren filosofiarekin, aurrera jarraitzeko gogoz gaude"

ANTZUOLAKO GAZTE ASANBLADA

DATUA

107

MILA EURO

Aurrekontua 120.000 euro zen. baina 107.000 euro kostatu da; 64.000 euroko laguntza eman du Eusko Jaurlaritzako Gazteriak.

ANTZUOLA

Gaztetxe berriaren ateak herritarrendako zabalik

- Herritarrek auzolanean egingo dituzte geratzen diren lanak
- Hiru hilabetean egin dute obra: 2011ko azarotik 2012ko urtarrilera

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Herritarrek nolako gaztetxea gura duten hausnartzeko eta gaztetxe berriaren etorkizuna nolakoa izango den jakiteko topaketak egin berri dituzte. Oraindik lan handia dagoela egiteko azaldu digute Gazte Asanbladako kideek, baina ilusioa eta gogoa egon badagoela: "Obra ondorengo lehen pausoa hilaren 10ean eman genuen, lehenengo bilera informatiboa eginda. Bertan, herriko adin eta talde askotariko gazteak elkartu ginen, ilusioa eta indarra badaukagula adierazita eta hau aurrera eramateko egin diren esfortzu ekonomiko eta pertsonalei erantzuna emanda".

Gaztetxearen obra oinarrizkoena eginda dago. "Jasotako dirulaguntzarekin, helburua gaztetxearen oinarrizko obrak egitea izan da: elektrizitate, eraikin eta iturgintza lanak amaitzea. Azken finean, gaztetxeak probisionala izatetik iraunkorra izatera pasatu behar du. Gainera, egungo egoerarekin, kostua ere murriztu nahi izan dugu". "Gure helburua, hasiera batean, eraikina zegoenetan hartu eta hau pixkanaka eraikitzea zen arren, denbora gure aurka geneukan, eta horregatik hartu genuen oinarrizko obra hau herriko langileek burutzeko erabakia, betiere segurtasun arauak betez".

Eta orain, eraikinaren oinarriak eginda dauden honetan, egiteko falta dena auzolanean egingo dutela nabarmendu digute: "Esan dezakegu obraren lehen pausoak eman direla, eta gainerakoak –margotzea, altzariak berriztatzea... –auzolanean burutuko ditugu. Auzolanerako egutegia topaketan zehaztu dugu, eta lanak banatu ditugu".

Gaztetxearen etorkizunaren erantzule eta sortzaile nagusiak gazteak eurak direla azpimarratu gura izan digute: "Gure asmoa da orain falta den lana herritar guztien artean egitea, auzolanaren filosofian murgilduta".

Gaztetxe berria

Bi komun, barra, agertokia, sukaldea, ekintzetarako gelatxo bat eta egoteko toki zabala izango ditu gaztetxeak. "Hasieran nahiko estu eta txiki gelditu zela uste genuen arren, tamaina polita hartu du eta oso argitsua da; kanpoan egoteko tokia ere badu", azaldu digute. 80ko hamarkadan erakin bat egin zen pilotaleku ondoan anbulatorioa jartzeko. Baina Torresoroa eraikina egin zenean anbulatorioa hara eraman zen eta eraikin hori libre gelditu da. "Udalak barrukoa egokitzeko obrak egin ditu gaztetxe bihurtzeko. Aurretik zeuden komunak eta igogailua mantendu egin dira, baina beste guztia egokitu egin da eta larrialdietarako eskailerak jarri dira. Lehen zeuden horma guztiak bota eta dena berria egin da: zoruak, paretak, sabaiak, distribuzioak eta instalazioak", azaldu digu Valen Monuxek, Udaleko aparejadoreak. Guztira, 166 metro koadro ditu. "Oso lokal ederra gelditu da; abantaila da etxebizitzetatik urrun dagoela. Gazteak asko inplikatu dira; gauza praktikoak egitea izan dute helburu, luxurik gabe. Parte-hartze handiagoa nahi zuten obran, baina oso konplikatua da, segurtasun neurriak direla-eta. Horregatik, lan potoloenak Udalak kontratatutako enpresek egin dituzte", esan digu Monuxek.

Esperientziak elkartrukatuz

Egindako topaketetan, gaztetxearen gaineko hausnarketa eta falta diren lanen egutegia zehazteaz gain, beste herri eta belaunaldi batzuetan izan diren gaztetxeetako funtzionamendua eta esperientzia ere jaso dituzte antzuolarrek. "Gaztetxearen orain arteko funtzionamendua nahiko ezegonkorra izan dela ikusita, beste esperientzia batzuetatik ikastea oso garrantzitsua zela ondorioztatu genuen. Hori dela eta, Urretxu-Zumarragako gaztetxekoak etorri dira euren esperientzien berri ematera; baita maristetako gaztetxearen hasieretan eta gerora jardun zuten herritarrak ere". "Kudeaketa iraunkorra finkatzeko eta aurrera begira eman beharreko pausoak zehazteko egin ditugu topaketak. Asmoa, batez ere, gestioan eta gaztetxearen etorkizunean oinarritzea da".

Auzolanerako egutegia zehaztuta, nahi duen orok ditu ateak zabalik: "Lanera etorri nahi duen edozeinendako egongo da gaztetxea zabalik, animuak emateko bakarrik bada ere. Parte-hartzeko interesa daukan edozein herritar gonbidatu nahi dugu, amesten dugun gaztetxea benetan sortu eta eraikitzeko egunak izango direlako", azaldu digute.

Oinarrizko obrak amaitu dituzte. | GAZTE ASANBLADA

Besteak beste, margotu egingo dute. | GAZTE ASANBLADA

Bi mutiko eta aita haritza landatzen, Oñatin. | J.A.

Urkulun ametza landatzen. | MIRARI ALTUBE

Herritar ugari izan ziren zuhaitz azokan eta askok aprobetxatu zuten aukera zuhaixkak eta loreak erosteko. | JOSETXO ARANTZABAL

ONATI ETA ARETXABALETA

Haritzak, ametzak eta gorostiak landatu zituzten Zuhaitz Egunean

Oñatiarrek 100 zuhaitz landatu zituzten Santa Lutzian; aretxabaletarrek 120 landatu zituzten Urkulun

AMAIA TXINTXURRETA | ARETXABALETA

Ingurumen astearen barruan, zuhaitz azoka egin zuten zapatuan Oñatiko herriko plazan eta mugimendu handia izan zen bertan. Domekan, berriz, Zuhaitz Eguna ospatu zuten Oñatin eta Aretxabaletan; etxeko txikienak nahiz gurasoak pozik ibili ziren zuhaitzak landatzen.

Zuhaitz azoka Oñatin

Eguraldi onak lagunduta, sekulako mugimendua izan zen herriko plazan. Guztira, aurreko urtean bezala, Euskal Herriko txoko desberdinetatik etorritako zortzi postu jarri zituzten plazan eta eskaintza zabala izan zen: fruta zuhaitzak, bestelako zuhaixkak edo lorategi batean jarri daitezkeenak, edo aromatikoak ere aurkitu ahal izan ziren azokan.

Goizean goiz hasi zen mugimendua eta eguerdi partean giro polita zegoen herriko plazan. Duela hamaika urte inguru hasi ziren zuhaitz azoka Oñatin egiten eta antolatzaileek aurtengo balorazio positiboa egin dute. "Jendemugimendu handia ibili da eta balorazio oso positiboa egiten dugu. Oso pozik gaude", esan zigun Natur Eskolako Jon Betanzosek.

GERARDO KORTABARRIA
OÑATI

"Zuhaitz azoka oso polita dago. Ez nekien egongo zenik eta sorpresa hartu dut. Arantzarik ez duten masustaren loreren bat hartzeko asmoa daukat".

IBAN ZABALZA
ZARAUTZ

"Zuhaitz azokan postua jarri dut eta Oñatikoa plaza ona izaten da. Era ekologikoan landutako basoko fruitu txikiak ekarri ditut gehienbat".

AMAIA ESPERASATE
ARETXABALETA

"Urkulun zuhaitzak landatzera etorri gara. Beste urte batzuetan ere etorri izan gara eta gero badaukagu ohitura nola handitu den ikustera etortzeko".

Zuhaitz Eguna

Domekan, berriz, Zuhaitz Eguna ospatu zuten. Oñatin, herriko plazan elkartu ziren 40 lagun inguru eta Santa Lutziara joan ziren haritzak landatzera. Guztira, 100 haritz inguru landatu zituzten bertaratutakoek eta gustura ibili ziren etxeko txikienak eta baita gurasoak ere. Horren ostean, hamaiketakoa egin zuten bertako elkartean eta salda beroa hartu zuten.

Aretxabaletakoek, ostera, Urkulun egin zuten hitzordua. Bertan ere familia askok hartu zuten parte, azken urteetan bezala. 120 zuhaitz landatu zituzten urtegi ondoan: 100 ametz eta 20 gorosti. Ondoren, Koroetako elizako aterpean egin zuten hamaiketakoa eta antolatzaileak oso gustura gelditu ziren Zuhaitz Egunak izandako harrerarekin eta gaztetxoak hain pozik ikusita.

Txikienek kontatu ziguten urtean zehar eurek landatutako zuhaitza nola handitzen den ikustera joango direla eta ureztatu ere egingo dutela.

ONATI

Erantzun ona izan zuten Arrikrutzeko bisitek

Iñaki Zubeldiak (argazkian) gidatutako Arrikrutzeko kobetako bisitek erantzun ona izan zuten zapatuan. Guztira, 100 lagunetik gora izan ziren kobetan eta hiru taldetan banatu behar izan zituzten bertaratutakoak. Umeek eta helduek gustura entzun zituzten Zubeldiaren azalpenak eta koban iluntasunetan egoteko aukera ere izan zuten, bertan galduta egotea zer den irudikatzeko.

JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA

J.A.

Giro paregabea Osintxun

Santu Martirixen eguna dela eta, Osintxun bertso afaria egin zuten zapatuan. Bertan izan ziren herritarrek gustura afaldu zuten eta bertsoak giro paregabean entzun zituzten.

ONATI

Dominikar Errepublikako jakiak eta kultura, gertutik

Elkar ezagutuz, integrazioa bultzatzea helburu duen ekitaldia egin zuten ibarreko latindarre

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI

Kultura arteko aniztasuna bultzatu eta integrazioa helburu izanda antolatu zuen Sierra Madre Latindarren Oñatiko elkarteak Dominikar Errepublika oinarri hartutako jaia zapatu goizean, errepublika aldarrikatu zen 168. urteurrenaren aitzakian.

Debagoienean bizi diren dominkarrez gainera, Donostiatik eta Bilbotik ere etorri ziren; horien artean, Juan Alvarez, Errepublika Dominikarreko Euskadiko kontsula.

Aratusteak eta dantzak

Zer jaten duten eta, besteak beste, erabiltzen dituzten kosmetika produktuak erakusteko eta saltzeko postua jarri zuten goizean herriko plazako txoko baten. Han ikusi genituen kafea, gozokiak, edariak eta beste hainbat. Oñatiarren artean, interesa piztu zuten, eta asko izan ziren horiek erosi eta, bide batez, galderak egitera hurbildu zirenak.

Saltoki inguruan, jai giroan, askok euren herrialdeko garagardo botila eskuetan, zebiltzaten dominikarrak. La Vega herriko aratusteetan jazten dituzten maskarak eskuetan hartuta, herriko plazan kalejira egin zuten gero. Segidan, plazaren erdian dominikar dantza bat egin zuen Oñatin bizi den aita-alabak osatutako bikoteak, inguruan zuten lagunek egindako kantu eta txaloen artean. Etxean dantza asko egiten dutela-eta, ondo entseatuta zuten arren, urduri zeudela aitortu zuten. Dantza amaitutakoan jaso zuten besarkadek merezi zuten, bada, esfortzua!

Eguna borobiltzeko, azoka plazan prestatuta zuten bazkarira joan ziren gero, han ere jaiarekin jarraituz.

Oñatin bizi diren aita-alabak, domikar jantziekin, euren dantzak erakutsi zituzten. | AITZIBER ARANBURUZABALA

La Vega herriko aratusteetako maskarak erakutsi zituzten . | A.A.

JUAN ALVAREZ
KONTSULA

"Elkar ulertzeko, ezinbestekoa da elkar ezagutzea"

"Herrien arteko gertutasuna bultzatzea helburua duten ekitaldi guztiak onuragarriak dira. Elkar ulertzeko eta elkarrekin bizitzeko, ezinbestekoa da batak bestea ezagutzea. Gonbidapena jasota, gustura etorri naiz, hemengo koloniarekin egon nahi izan dut-eta nik ere.

Gaur, adibidez, gure jakiak dastatzeko aukeraz gain, gure aratusteak erakutsi ditugu. La Vega herrian janzten dituzten maskarak dira, pertsonaia mitologikoetan oinarritutakoak".

Plazan jarritako postuan, jakiak eta kosmetika produktuak. | A.A

MARISA REYES
OÑATIN BIZI DEN DOMINIKARRA

"Euskadin bizi diren latindarren integrazioa da gehien interesatzen zaiguna eta horregatik ezinbestekotzat dugu, besteak beste, guk euskara ikastea. Gaur da gure eguna eta zuekin batera elkarrekin ospatu gura izan dugu".

INES GOMEZ
OÑATIARRA

"Ez dut sekula horrelako jakirik probatu; kafea erosi dut gaur. Oso txukuna dute postua, gustatu zait. Oso ondo iruditzen zait horrelakoak antolatzea, zenbat eta gehiago, hobeto! Herriari bizitasuna ematen diote, gainera".

ARETXABALETA

Kepa Urraren eta gainontzeko presoen eskubideak aldarrikatu zituzten zapatuan

Hiru baietz lelopean manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena. | JOSETXO ARANTZABAL

MIREN ARREGI | ARETXABALETA

Aretxabaletako preso Kepa Urrak hogei urte bete zituen espetxean urtarrilaren 29an. Hala, Urraren eta herriko gainontzeko presoen eskubideen alde, *Hiru baietz* ekimenaren baitan, hainbat ekintza burutu dituzte; esaterako, joan den astean torturaren gaineko hitzaldia egin zuten eta sakabanaketaren eta bizi arteko zigorraren gainean ere jardun zuten beste mahai-inguru baten. Zapatuan eman zioten bukaera egitasmoari; hainbat ekintza burutu zituzten, besteak beste, bolo txapelketa eta manifestazioa.

Boloak, manifestazioa...

Arratsaldeko bostetan elkartu ziren boloetan jokatzeko. "*Hiru baietz* esamoldeak hiru txirloak botatzeari egiten dio erreferentzia. Urrak, espetxeratu aurretik, boloetan jokatzen zuen sarri eta, modu honetan, keinu bat egin gura izan diogu", adierazi zuten antolatzaileek.

Bolo txapelketaren ostean manifestazioa egin zuten, eta aretxabaletarrak bakarrik ez, bailarako beste herrietako jendea ere egon zen bertan. Kale-ageraldia Iturrigorri pilotalekuan amaitu zen ekitaldi batekin. Ekitaldian, "1992an espetxeratu zutenetik Kepa Urrak pairatu dituen eskubide urraketak" salatu zituzten; euskal presoek "urte hauetan guztietan egindako borroka goraipatu" zuten, eta herritar guztiak animatu zituzten herrietan presoen alde egiten diren egitasmoetan parte hartzera. Aurreskua ere dantzatu zieten herriko hiru presoen senitartekoei. Nola ez, mokadutxorik ere ez zen falta izan.

Gimnasioaren erabiltzaile bat oinez ibiltzeko makinan kirola egiten. | U.M.

AUKEA, gimnasioa eta Uarkaperen balioa hobetu guran

Uarkapeko taberna beheko solairura eramateko aukera aztertzen dabiltza, haren erabilera indartzeko

UBANE MADERA | ARRASATE

Musakolako kiroldegian gimnasio zerbitzu hobea eskaini gura du AUKEAk. "Espazio handiagoa, hobea eta atseginagoa eman gura diogu, bista hobeagoekin (kanpoko igerilekuetara) eta makina gehiagorekin". Hori da euren helburua eta asmoa. "Dena den, gero obrak hastean ikusi egin behar zela gauza daitekeen, askotan paretak botatzen hastean ezustekoak ateratzen dira-eta", gaineratu gura izan dute AUKEAko ordezkariek.

DATUA

2

MILIOI

AUKEAk ia bi milioi euroko aurrekontua du: 1.200.000 euro pasa Udalekoa eta gainerakoa erabiltzaileena.

Edozelan ere, data badute buruan: uda ostean zabaldu gura dute gimnasio berritua, hilabete inguruan obrak egiten ibili ostean. "Aurreikuspena da obrek ez eragitea eragozpenik gimnasio zerbitzuan, akaso pare bate egunean -edo itxi egin beharko genuke makinen lekualdaketa egiteko, baina ez dugu uste gehiago eragingo duenik", kontatu dute.

Gune lehorra indartu

Gimnasioa berritu egin gura du AUKEAk, orokorrean kiroldegiko alde lehorra indartu egin gura dutelako: "Kiroldegirako bonu lehorra aukeratzen duten erabiltzaile arruntek gimnasio on bat gura dute, orain dagoena baino askoz hobea; izan ere, oraingoa, besteak beste, oso txikia da Arrasaterako".

Uarkapeko taberna

Bestalde, AUKEAk ezarritako lehentasunen artean, "Uarkape frontoiak duen balorea" indartu egin gura du: "Arratsalde guztietan okupatuta dago, gimnasia erritmiko eta pilota taldekoen eskutik. Asteburuan ere sarri egoten da okupatuta, herri ekimen asko egiten da-eta bertan, (Aratusteetako herri bazkaria...); baina badago koska txiki bat jatetxe-tabernarekin... Eskuartean badugu ideia oso indartsua: taberna-jatetxea beheko solairura pasatzea. Baina egokitzeko obrak handiak egin behar dira, eta zaila izango da. Asmo hori ez da aurten gauzatuko. Baina aurten erabakiko dugu zer egin", adierazi du Arrasate Irratian Joserra Askasibarrek, AUKEAko zinegotzi arduradunak. Hark gaineratutakoaren arabera "kirol aldetik ere beste bultzada bat" eman gura diote Uarkaperi, esaterako, "goizean erabilera txikia" duen frontoia da.

Bestelako lehentasunak

Eta bestelako lehentasunen artean, berriz, orokorrean AUKEAren "kirol politika finkatu" egin gura dute. Eta hori lortzeko dagoeneko hasita daude herriko kirol taldeekin elkarlanean, batzarrak eginez. "Laster bukatuta izango dugu; eurekin beste batzar bat egingo dugu azaltzeko aurten eta epe labur-ertainean euren beharrei zela aurre egin ahal zaien. Jakina, oztopo handiena dirua da, baina eurekin hitzarmenak bideratuko ditugu", azaldu du Joserra Askasibarrek.

Obrei dagokienez, berriz, besteak beste, Iturripeko habe batzuk konpondu edo indartzeko asmoa erakutsi du Askasibarrek.

AUKEAren datu batzuk

AUKEA da Arrasateko Udaleko Kirol Zerbitzua; 80ko hamarkadan jarri zen martxan (1988an). Modu autonomoan egiten da zerbitzu horren kudeaketa eta herriko kirol elkarteak ere baira parte. Euren iritzia ematen dute eta boto eskubidea ere badute. 20 bat langile ditu.

AUKEAren parte dira, Musakolako kiroldegia, "Gipuzkoan egin zen lehenengoetarikoa", Mojategiko instalazioak, "inbidia emateko modukoak", Uarkape Udal Pilotalekua, Iturripe eta Atxabalpeko futbol zelaiak.

Kiroldegirako bonu motak

- Urteko lau bonu mota eskura daitezke AUKEAn:
- Gune lehorra: gimnasioak gehi pistak (125,70 euro da helduendako tarifa).
- Gune hezea: igerilekua eta sauna (125,70 euro).
- Plusa: gune lehorra eta hezea batera erabiltzea uzten duena: (188,50 euro).
- Bonu mankomunatuak: Arrasate, Bergara, Eskoriatza edo Oñatiko instalazioak erabiltzeko aukera ematen dutenak. Bi txartel mota daude:
- Plusa: kiroldegi guztietako gune lehorra gehi ur-eremua erabiltzen uzten du (202,70 euro).
- Premiuna: Plusaren zerbitzuak gehi Bergarako bainuetxea erabiltzen uzten du.

Elikaduraren eta minbiziaren arteko lotura aztertuko dute

Osasunari eta elikadurari buruzko jardunaldien amaierako hitzaldia eguaztenean egingo du Dorleta Martinez medikuak. Elikaduraren eta minbiziaren arteko lotura aztertuko du mediku arrasatearrak, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian. Sarrera doan da. Besteak beste, produktu ekologikoen kontsumoaren alde egiten du, pestizida bakoak direlako. Hain zuzen ere, medikuak dio lotura dagoela pestiziden eta buruko, prostatako, testikuluko, koloneko eta, besteak beste, titietako kantzerren, leuzemien, linfomen eta umeen kantzerren artean.

Plaza mugatuak 'Bularretik mintzora' lantegian

0-6 urte bitarteko seme-alaben gurasoei zuzenduta, Pello Añorgak *Bularretik mintzora* izeneko lantegia egingo du Arrasaten. Hiru egunean (martxoak 15, 21 eta 22), aztertuko dute umeekin nola sortu espazioak elkar entzuteko eta nola aukeratu eta kontatu liburuak.

Lantegia euskaraz egingo dute, eta doakoa da. Baina parte-hartze kopurua 20 lagunera mugatuta dago; beraz, interesa dutenek ahalik eta lasterren eman behar dute izena. Kulturaten ipini dituzte bete beharreko izen-emate orriak.

TXALOAK ETA TXISTUAK

Bidezidorra garbi eta txukun Udalara bidean

Irakurle bat pozik etorri da Maitena kalearen amaierako bidezidorraren egoera dela-eta (Udalara bidean). "Mojetara doan mendi-bide hori narrez beteta egon da luzaroan, eta, hala segitzen zuela ikusita, sarri pentsatu izan dugu: 'Ba guk joan beharko dugu garbitzera'. Baina aurrekoan bertatik pasatu ginen eta ikusi genuen garbi-garbi eta txukun zegoela". Eskerrak eman gura dizkiote lan hori egin duenari.



UBANE MADERA

Jendea erdiguneko bi tabernaren kanpoaldean. | ARGAZKIAK: JOKIN BEREZIARTUA/JOSETXO ARANTZABAL

Udal baimena beharrezkoa da jarlekua edo terraza ipintzeko

- Udaberria badatorrela ikusita, Udalak gutuna bidali die herriko ostalariei
- Bi irizpide: kokapena eta bide publikotik okupatzen diren metro koadroak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Establezimendu kanpoan "mahai-aulki, jarleku eta kupelak jartzeko" aldez aurretik baimena eskuratzea zein fidantza ordaintzea beharrezkoa da, Udalak jakinarazi duenez. Udaberri-uda sasoia badatorrela ikusita, Udalak gutuna bidali die herriko ostalari guztiei araua gogorarazteko. Bi irizpide hartzen dira kontuan establezimendu atarian jarritako altzariak bide publikoa okupatzen duenerako tasak aplikatzeko: metro koadroak eta tabernaren kokapena. Hala, erdigunean dauden tabernek 19,12 euro ordaindu behar dute metroko koadroko. Erdialdetik kanpo, baina, erdigunearen altuera berean daudenek –San Andres eta Musakola, esaterako– 14,34 euro ordaindu behar dute eta erdigunea baino altuago daudenek, 9,56 euro –Erguin auzoa, adibidez–. Azkenik, periferiako auzoetan 4,78 euro balio du metro koadroak –Udala eta Bedoña kasu–. Hala ere, azken horietan gehienek ez dutenez bide publikoa okupatzen, ez zaie ezer kobratzen.

Tabernariak haserre

Mahai bakoitzak lau metro koadro hartzen dituela kalkulatzen du Udalak: "Terraza dutenek mahai kopuruaren arabera eskatzen dute baimena. Hamar mahai, 40 metro koadro, eta 40 bider 19 euro", azaldu dute. Mahairik ez duen Basati tabernako Bittor Arriaran ez dago konforme tasa ordaintzearekin: "Aulkiak beti egon dira hor eta halako tasa bat aplikatzea lotsagarria iruditzen zait. Egoera dagoen moduan egonda lagundu egin beharko lukete, eta ez trabak jarri". Atarian altzaria baimen barik jarri edo tasa ordaintzen ez bada, zigortu egingo da. Baimen hori BAZen eskatu behar da, eta urtero berritu behar da. Fidantza jartzen da terrazako ordutegia eta garbitasun baldintzak errespetatzeko: "Baldintzak betetzen ez badira, abisua emango da. Kasurik egiten ez bada, fidantzaren zati bat kenduko da, eta horrela, hurrenez hurren", azaldu du Udalak.

ESANAK

"Aulkiak beti egon dira; tasa aplikatzea lotsagarria da"

BITTOR ARRIARAN | BASATI TABERNA

TASAK GUNEKA

GUNEA	PREZIOA
Erdialdea	19,12 €/m²
San Andres*	14,34 €/m²
Erguin*	9,56 €/m²
Bedoña*	4,78 €/m²

*Oharra: Guneak adibideekin zehaztu dira; irizpideak, testuan

Iago Cascon eta Gorka Morras | Hip-hop festaren antolatzaileak

"Rap kantari gutxi egon arren, rapa entzuten duen jendea badago Arrasaten "

Hip-hoparen eta haren kulturaren topaleku izango da gaztetxea asteburuan; puntako artistak datoz

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hip-hopak hartuko du gaztetxea asteburuan. Ez da lehen jaialdia –2003, 2004 eta 2005ean egin ziren–, baina aurtengoaren egitarauak Euskal Herriko hip-hoparen izenik entzutetsuenak jasotzen ditu. Halaxe azaldu digute Iago Cascon (Arrasate, 1982) eta Gorka Morras (Arrasate, 1983) festaren antolakuntzako kideek.

Ez da lehen aldia hip-hop doinuek Arrasate hartuko dutena. Zer du berezia aurtengo jaialdiak?

Aurtengoa laugarren edizioa da, baina aurrekoak egin zirenean Euskal Herrian ez zegoen euskaraz abesten zuen rap talde askorik. Azken urteetan hip-hoparen kulturak loraldia izan duela uste dugu. Horrez gain, hip-hopari bultzada eman gura diogu. Horregatik eta hip-hopa gustatzen zaigulako antolatu dugu festa.

Bi eguneko egitarau zabala prestatu duzue.

Hala da. Egubakoitzean, irekiera kontzertu moduan, Goienetxe Anaiak talde nafarraren eta Barakaldoko Norte Apache taldearen kontzertuak izango ditugu. Biek euskaraz abesten dute.

Zapatuan, bestalde, 16:30ean hasita, Arrasate eta inguruko DJen emanaldia egongo da arratsalde osoan. Saio horiekin batera grafitiak, breakdance emanaldiak eta skate erakustaldiak egongo dira herriko sortzaileen eskutik. Gauean, festa borobiltzeko, hiru talde: Revolta Permanent, 121 Sound System eta Trifulca Posse. Lehenak Barakaldoko 16 urteko gazte batzuk dira; oso indartsu datoz eta euskaraz abesten dute. Bigarrenak, berriz, 121 Crew taldeko kideak dira, baina guztiek etortzerik ez dutenez, Sound System formatuan datoz. Hau da, ez da euren ohiko kontzertu bat izango. Hirugarren taldeak itxiko du gaua: Donostialdeko hiru DJ dira; tartean, Selektah Kolektiboa, Fermin Muguruza eta Esne Beltza taldeekin aritu den DZ izeneko DJa.

Cascon eta Morras, gaztetxeko agertoki ondoan, kartela eskuan. | JOKIN BEREZIARTUA

Euskal Herriko hip-hoparen izen handiak dira, beraz.

Artista esanguratsuak direnik ezin ukatu. Gainera, ia guztiak buru-belarri dabiltza sorkuntza lanetan, eta euskaraz abesten dute. Izan ere, euskarazko taldeak ekartzea zen helburua eta uste dugu lortu egin dugula.

Nolako harrera espero duzue?

Espero dugu jendeak erantzutea. Egia da Arrasaten rap kantari gutxi dagoela, baina rapa entzuten duen jendea badago. Azkenaldian, ERE –Euskal Rock Erradikala– mugimenduaren gainean entzun dugu berbetan; ikusi beharko da noraino heltzen den. Gaztetxera etortzera animatzen zaituztegu, giro ederra egongo da-eta.

Bi eguneko jaialdia, kamiseta eta guzti

Egubakoitzean irekiera kontzertuak eta zapatuan hip-hoparen inguruko hainbat emanaldi, arratsaldean hasita: bertako DJak, grafitilariak, breakdance eta skate erakustaldiak... Gaztetxea, hip-hoparen topaleku. Eta jaialdi berezia dela iragartzeko, kamisetak salgai daude hamar eurotan jaialdiaren babesle lanak egin dituzten Iluntz tabernan eta Nothing Without arropa-dendan.

Gimnasia hipopresibo abdominala egiteko ikastaroa Musakolan

Aukeak gimnasia hipopresibo abdominala egiteko ikastaroa antolatu du Musakolako kiroldegian. Gaur bertan hasiko dute ikastaroa, eta izena emateko 943 77 16 77 telefonora deitu behar da. Bi hilabete iraungo du, eta astelehen eta eguaztenetan izango da. Hiru ordutegi daude: 11:15ean, 17:30ean edo 20:30ean. Saio bakoitza ordubetekoa izango da. Bada, abonatuek 35,75 euro ordaindu behar dituzte hilero; eta abonatuak ez direnek, berriz, 45,75 euro.

'Soltarlo al aire' lana eguenean Kooltur Ostegunen eskutik

Kooltur Ostegunak ekimenak ekitaldi berezia antolatu du Martxoaren 8a dela-eta. Que Parche Teatro antzerki taldearen *Soltarlo al aire* antzezlana ekarri dute, Emakumeen Egunarekin lotura zuzena duen obra. Que Parche Teatro taldea argentinar batek eta bilbotar batek osatzen dute. Umore eta sentsibilitate handiarekin emakumearen botere hartzea antzeztuko dute, *clown* erara. Eguen honetan, gaztetxean, 22:00etan hasita. Sarrera bost euro da.

Herri barruan hutsik dauden lokaletan jarduera artistikoak egin nahi dituzte

Lokalen jabeekin harremanetan jarri da Udala; Bedelkarko kideekin batera lokalak apaintzea da helburua, herri barrua nolabait pizteko

EDU MENDIBIL | BERGARA

Herri barruan hutsik geratu diren lokal komertzialendako nolabaiteko irtenbidea aztertzen dabil Udala, eta lokal horiei erabilera artistikoa emateko aukera aztertzen dihardute Udaleko arduradunek eta Beart elkarteko ordezkariek. Udaleko iturrien arabera, herri barruko 40 lokal inguruk komertzio jarduerari utzi diote azken urteotan, eta horrek ematen duen irudia, zoritxarrez, ez da onena. Herri barruko eguneroko jarduera piztea eta erdiko kaleei bizitasuna ematea dira helburuak, eta, uda parteko turismo denboraldiari begira, herriko artistei lokal horietan *aktuatzeko* aukera eman nahi zaie.

Hainbat dendaren itxierarekin nahiko triste geratu dira erdiko kaleak, eta bizitasun apur bat eman nahi zaie. | JULIO CALLEJA

Lokalen jabeek harrera ona

Turismo eta Ondare batzordeko kide Justina Elexpuru zinegotziak adierazi digunez, hutsik dauden lokalen jabeek ondo hartu dute Udalaren proposamena. Dagoeneko 25 bat lokalen jabeengandik baiezkoa jaso dute.

Esandako moduan, herriko artistek (pintoreek, argazkizaleek eta bestelakoek) izango lukete lokalak apaintzeko aukera. Betiere, erakusleihoetara egokitutako lanak izango lirateke. Bedelkarko kideek pozik jaso dute erronka. Hori bai, erakusleiho bakoitzean, artistaren informazioaz gain, lokalaren ezaugarrien berri emango lukete errotulu baten.

Lehen aipatu bezala, udako turismo denboraldiari begira jarri nahi dute plangintza abian. Bearteko kideekin eta Bedelkarko ordezkariekin hartu-emanetan dabil Udala, eta egunotan zehaztuko dituzte kontu gehiago.

Komertzioaren beherakada

Bergarako Udala eta herriko merkatariak arduratuta daude krisiaren ondorioekin eta azkenaldian herriko komertzioak izan duen beherakadarekin. Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Bedelkar herriko dendarien elkartearekin batera merkataritza indartzeko neurriak aplikatu nahi dituzte. Ikertalde aholkularitza taldearekin elkarlanean ari dira Udala eta Bedelkar komertzioa suspertzeko asmoarekin.

HILARIO AZKARGORTA

Bergarako Errealzaleak sagardotegian

Bergarako Errealzaleak lagunartekoek plan borobila izan zuten aurreko domekan: Astigarragako Petritegi sagardotegian bazkaldu ondoren, Reala animatzera joan ziren Anoetara. Realak 1-0 irabazi zion Mallorcari. Bergaratik 50 lagun inguru joan ziren; sagardoarekin... eta txuri-urdinen garaipenarekin gozatu zuten.

OHARRAK

ERRAMU-ZAPATUKO TXOSNEN ESKAERAK

Erramu-zapatuan Seminarioko patioan jarriko den taloen txosnaren eta Munibe plazan jarriko denaren esplotazioa arautuko duten baldintzak onartu ditu Udalak. Interesa duten entitate edo elkarteek martxoaren 16ra arte aurkez ditzakete eskaerak. Eskaera orriak eta baldintzen plegua udaletxeko idazkaritzan eta *www.bergara.net* webgunean daude eskuragarri.

BIZIKLETA ASTEA: IKASTAROAK IRIZARREN

Bizikleta astearen barruan antolatutako ekitaldien artean, martxoaren 6an, 7an eta 8an *Bizikletaren oinarrizko konponketak* ikastaroa izango da Irizarren, 19:00etatik 21:00etara. Martxoaren 13tik 15era *GPSaren erabilera ordenagailuan* ikastaroa izango da, ordu eta toki berean. Argibideak eta izen-ematea: 660 80 67 03 telefonoan edota *basque_adventure@yahoo.com* helbide elektronikoan.

1978AN JAIOTAKOEN BAZKARIA

1978an jaiotakoek bazkaria egingo dute martxoaren 17an Tartufo jatetxean, 14:30ean. Izenematea (35 euro izango da menua) Euskadiko Kutxako kontu honetan egon daiteke, 15 euro aurreratuta: 3035 0020 52 0201111624. Izen-ematea martxoaren 14ra arte egin daiteke. Argibide gehiago nahi izanez gero honako telefonoetara dei dezakezue: 634465491 (Ana) edo 615790514 (Aintzane). Facebook-en ere duzue ospakizunaren berri, *78ko Kintadia* izeneko atalean.

HAURDUNENDAKO GIMNASIA ESKOLAK

Sane fisioterapia zentroaren eskutik haurdunendako gimnasia eskolak emango dituzte martxoaren 2tik aurrera, egubakoitzero, 12:00etatik 13:15era, Agorrosingo igerileku txikian. Erditze unera fisikoki primeran heltzea da ikastaroaren helburua eta helburu horrekin jardueraki uretan egingo dituzte. Izen-ematea eta argibideak Sane fisioterapia zentroan: 943 25 24 40.

NUTRIZIOA HAURTZAROAN IKASTAROA ETZITIK

Udalak 2-3 urteko haurren gurasoei zuzendutako nutrizio ikastaroa antolatu du. Eskolak eguaztenetan izango dira, martxoaren 7an hasita, 18:00tik 19:30era, gaztelekuan. Mireia Alberdi dietista-nutrizionista izango da irakaslea; elikadura osasuntsua, loditasuna, ohiturak finkatzearen garrantzia, janari azkarra eta abar landuko dituzte. Ikastaro teoriko-praktikoa izango da, sukaldea ere erabiliko dutelako. Argibideak 943 77 91 60 zenbakian.



Iñaki Martinez de Luna soziologo gasteiztarrak hizkuntzalaritzarekin zerikusia duten hainbat lan eman ditu argitara. | GOIENA

Iñaki Martinez de Luna soziologoak hitzaldia egingo du bihar kultura etxean

'Euskaraz bizi nahi dut' lelopean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak eta Jardun elkarteak aste honetarako

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bergarako Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak eta Jardun elkartearen eskutik, *Euskaraz bizi nahi dut* lelopean, hainbat ekitaldi izango dira asteon Bergaran.

Bihar, martitzena, *Izan, egin, eragin* EHEren dokumentala emango dute gaztetxean, 19:00etan, eta eguaztenerako Iñaki Martinez de Lunaren hitzaldia iragarrita dago. *Euskaraz bizi nahi dut baina...* izenburuko hitzaldia egingo du Martinez de Lunak kultura etxean, 19:30ean. Soziologian Doktorea da Martinez de Luna gasteiztarra, Soziolinguistika Klusterreko sortzaileetako bat eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Hainbat lan eman ditu argitara.

Bertso afaria Agorrosinen

Bestalde, antolatutako ekitaldiekin jarraituz, egubakoitzean, hilaren 9an, bertso afaria izango da Agorrosin kirolguneko tabernan. Jon Maia eta Agin Rezola bertsolariek alaituko dute giroa. Izen-ematea Agorrosingo tabernan bertan egin daiteke.

Zapatuan, berriz, haurrendako tailerrak izango dira Simon Arrietan, 16:30etik aurrera; ondoren, Euskaraz bizi nahi dut kalejira aterako da San Martin plazatik 19:00etan eta ekitaldiei amaiera emateko kontzertua izango da gaztetxean, 23:00etan.

Datorren martxoaren 17an *Euskaraz bizi* eguna ospatuko da Donostian eta Bergarako ekitaldiekin ordurako "motorrak berotzea" da antolatzaileen asmoa.

Udalaren adierazpena martxoaren 8ra begira

E.M. | BERGARA

Joan den asteleheneko osoko bilkuran alderdi guztiek aho batez onartu zuten martxoaren 8ra begira udal gobernuak aurkeztutako adierazpena. Gizon eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko lanean aritzeko konpromisoa berretsi zuten alderdiek: "Aldaketa garaia bizi dugu Euskal Herrian. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko garaia. Emakumeak aldaketa horren subjektuak izan daitezen politika feminista garatzea ezinbesteko konpromisoa da" dio testuak.

Politika feminista

Era berean, zera jasotzen da onartutako adierazpenean. "Emakumeok jasaten dugun zapalkuntza egiturazkoa da, Hau da, jendartearen egituraren emaitza da eta antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dago. Udaletan garatu nahi dugun politika feministak estrukturala den arazo bati erantzun nahi dionez, ezinbestean politika intregrala izaan behar du emakumeen bizitzaren arlo guztietan eragin behar duelako". Politika feministak emakumeen gidaritza eta parte hartzea bilatuko duela diote eta, azkenik, Udalak mugimendu feministak martxoaren 8aren inguruan antolatuko dituen ekimenetara joateko deia egin die herritarrei.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordainketa

Urtero legez, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2012. urteko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte izango da zabalik. Egun horretatik aurrera errekarguarekin eskatuko da.

Udaletik jakitera eman dutenez, helbideratutako errezibоak maiatzaren 31n kargatuko dira kontu korrontean.

Edozein argibidetarako udaletxera jo dezakete interesatuek astelehenetik egubakoitzera, goizez, 14:00ak arte, edo kontuhartzailetzako 943 77 91 64 telefono zenbakira deituta.

Eguazteneko odol ateratzean parte hartzeko deia egin dute

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak deituta, odol ateratzea egingo dute etzi, eguaztena, anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Jakingo duzuenez, odolaren beharra azpimarratu dute azken asteotan osasun arduradunek. Hori dela eta, Bergarako elkarteak dei berezia egiten die herriko emaileei eguaztenean anbulatoriora joateko. Urte berriarekin hainbat aldaketa egin dituzte elkarteko zuzendaritzan, eta honako hauek dituzue elkartearekin harremanetan jartzeko telefono berriak: Antonio Herzog: 669 10 89 77 edo 943 76 36 90. Eta Dulce Rodriguez idazkaria: 628 07 97 72 edo 943 76 22 36.

E.M.

Iñigo Ibartzabalendako saria

Bergarako Libre Plataformak joan den otsailarebn 25ean egindako zozketan 604 zenbakia izan da sarituta eta Iñigo Ibartzabalek jaso du saria: Edurne Erañaren margolan bat eraman du Ibartzabalek. Mikel Askasibar *Aska*-k kartzelan 21 urte darama gogoratzeko antolatutako zozketan jende askok hartu du parte. Goian, Artatsen ateratako argazkian, Iñigo Ibartzabal saria jasotzen Carlos Olabarriarengandik.

ARANZADI

Aranzadiko ikasleak, parlamentari gazteak

Arizmendiko bi taldek eta Bergarako Aranzadi Ikastolako talde batek Europako Gazte Parlamentuaren lehiaketan parte hartu berri dute. Arizmendiko talde batek hurrengo Estatu mailako lehiaketarako sailkatzea lortu zuten eta Bergarako ordezkariek ere lan txukuna egin zuten; pozik azaldu ziren izandako esperientziarekin. Nazioarteko gizarte eta politika gai potoloak eztabaidatu eta defendatu behar izan zituzten, ingelesez. 17 urteko ikasleei zuzendutako lehiaketa da Europako Gazte Parlamentuaren lehiaketa. Goiko argazkian, Aranzadiko *parlamentari* taldea, irakasleekin.

Sei batzar ireki atez atekoaren inguruko informazioa zabaltzeko

- Gaur egingo dute lehena, ETEO zaharreko eraikinean, 19:00etan
- Udal ordezkariak eta Oñati Zero Zabor taldeko kideak egongo dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Atez ateko bilketa zerbitzuaren gaineko informazioa zabaltzeko *Atez ate, auzoz auzo* kanpaina ipiniko du martxan Udalak gaur. Sei batzar ireki egingo dituzte hiri hondakinen gainean berba egiteko. Batzar horietan egongo dira udal ordezkariak eta Oñati Zero Zabor taldeko kideak. "Zero Zabor taldekoek hiri hondakinen problematikari buruz egingo dute berba, eta munduko herri ezberdinetan eman zaion irtenbidea eta emaitzak erakutsiko dituzte. Udal ordezkariok atez atekoaren aldeko hautua zergatik hartu dugun azalduko dugu", esan digu Ingurumen batzordeko zinegotzi Leire Egañak.

Batzar bat gaztelaniaz

Herritarrak auzoka banatuta sei batzar egingo dituzte. Guztiak egingo dituzte euskaraz, bat izan ezik: hilaren 15ekoa gaztelaniaz egingo dute, Santa Anan, 19:00etan.

Batzarren ondoren parte-hartze prozesuak abiarazi gura dituzte. "Herritarrekin eztabaida sortu gura dugu. Eurekin adostuko ditugu atez atekoaren kokagunea, egutegia eta ordutegiak", dio Egañak.

Bestalde, Udal Gobernuko kideak egubakoitzero egongo dira herritarren zalantzak argitzeko 15:00etatik aurrera. Ordua hartzeko: 943 78 04 11 telefonoan edo *partehartzea@oinati.net* helbidean.

HERRITARRENDAKO BATZAR IREKIAK

MARTXOAK 5
19:00 ETEO zaharrean. Olakua, Ugarkalde eta San Lorentzo.

MARTXOAK 13
19:00 Institutuan. Herrigunea, Otadui zuhaiztia, Bidebarrieta...

MARTXOAK 15
19:00 Santa Anan. Gaztelaniaz, herritar guztiendako.

MARTXOAK 20
19:00 Kultura etxean. Errekalde, Moiua, Euskadi etorbidea...

MARTXOAK 21
15:00 Kultura etxean. Merkatari eta ostalariendako.

MARTXOAK 23
19:00 Kultura etxean. Landa eremukoendako.

ESANAK

"Kokapena, egunak eta orduak adostuko ditugu herritarrekin"

LEIRE EGAÑA | ZINEGOTZIA

Atez atekoa Antzuolan. | GOIENA

Hainbat ekitaldi Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira

Berdintasun batzordeak ekitaldia eta elkarretaratzea egingo ditu Martxoaren 8an

M.B. | OÑATI

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da, eta horren harira hainbat ekitaldi antolatu ditu Berdintasun batzordeak.

Berdintasuna Herrijorran egitarauan emakumeendako bazkaria antolatu dute, besteak beste. Martxoaren 10ean egingo dute, Etxeberria jatetxean. Emakumeak mahaiaren bueltan jarri eta euren arteko esperientziak kontatzeko deialdia egin dute. Dagoeneko salgai daude bazkarirako txartelak. Interesatuek kultura etxean edo Boga tabernan eros ditzakete.

Aldarrikapenerako tartea ere egongo da: Martxoaren 8an ekitaldia eta elkarretaratzea egingo dituzte Herriko Plazan, 19:00etan.

Bertso saioa emakumeekin

Askotariko ekitaldiak antolatu arren, guztietan emakumea izango da protagonista. Adibidez, hilaren 10ean egingo duten *Gona gorriak* antzezlana. Theatrola Konpainiak emakumeen gaineko antzezlana eskainiko du 19:00etan Santa Ana antzokian. Bestalde, hilaren 23an, *Ez da kasualitatea* bertso saioa egingo dute: Ainhoa Agirreazaldegi, Onintza Enbeita, Alaia Martin eta Uxue Alberdi bertsotan eta Arantzazu Saiz pianoa jotzen. Egoitz Aizpuru izango da gai-jartzailea. Sarrerak bost eurotan eros daitezke.

Autodefentsa ikastaroa

Bestalde, sei orduko defentsa ikastaroa egingo dute, emakumeendako, hilaren 17an. Bada, izena kultura etxean edo *txantxiku.feministak@gmail.com* helbidean eman behar da.

Azkenik, hilaren 15ean zineklub emanaldia (*La fuente de las mujeres* pelikula) eta 21ean ipuin kontaketa egingo dituzte. Azken hori, 7-8 urtekoendako.

'Martxoaren 8ko adierazpena'

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna hurbil daukagun honetan, Oñatiko Udalak gizon eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko lanean aritzeko dugun konpromisoa berretsi nahi du. Aldaketa garaia bizi dugun Euskal Herrian. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko garaia. Emakumeak aldaketa horren subjektuak izan daitezen politika feminista garatzea ezinbesteko konpromisoa da.

OÑATIKO UDALAK BULTZATUKO DUEN POLITIKA FEMINISTAK HONAKO HAUEK KONTUAN IZANGO DITU:

Emakumeok jasaten dugun zapalkuntza egiturazkoa da. Hau da, jendartearen egituraren emaitza da eta antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dago. Egiturazkoa da patriarkatua erabat errotuta dagoelako gure jendartean eta antolaketa eredu hori sistema kapitalistaren ezinbesteko zutabea delako.

Udaletan garatu nahi dugun politika feministak estrukturala den arazo bati erantzun nahi dionez, ezinbestean politika integrala izan behar du emakumeen bizitzaren arlo guztietan eragin behar duelako.

Politika feministak emakumeon eskubidean oinarrituko da. Beste herri eredu baten eraikuntza dugu helburu. Hau da, gizon eta emakumeen arteko harreman eredu berri bat eraiki nahi dugu.

Politika feministak emakumeen gidaritza eta parte hartzea bilatuko du. Politika honen definizioa mugimendu feminista eta emakume taldeekin egin behar da. Horien parte-hartzeak politika feminista erreala definitzea ahalbideratuko du.

Espezifikoki landuz, baina zeharkakotasuna ahaztu gabe martxan jartzen ari garen proiektua oinarri feministetan egituratuko dugu eta gure herrian sortzen ditugun politika guztietan ikuspegi feminista kontuan izango dugu.

Bukatzeko, Oñatiko Udalak mugimendu feministak antolatuko dituen ekimen guztietara joateko deia luzatu nahi die herritar guztiei.

Asko dugu egiteko eta asko dugu ikasteko. Politika feminista gure herrian marrazten ari garen aldaketa politiko eta sozialaren izarra bihurtu behar dugu.

Oñatiko Udaleko Berdintasun batzordea

Atez atekoaren kontrako sinadurak batuko dituzte

M.B. | OÑATI

Oñatiko herritar talde bat atez atekoaren kontrako sinadurak biltzen hasi da, *Hondakin bilketa selektiboari bai. Atez ateko bilketari ez* lelopean. Azaldu dutenez, "politikatik at" dagoen ekimen bat da, eta "gaikako hondakinen bilketaren alde egon arren, atez atekoaren kontra" daudela gaineratzen dute.

Oraingoz, sinadurak biltzeko paperak, eskuz esku, lagun eta ezagunen artean banatu dituzte, baina denda eta leku publikoetan ipintzea ez dute baztertzen.

Euren helburua da atez atekoaren kontra dauden ahalik eta herritar gehienen sinadurak batzea, atez atekoaren gaia aztertzen den osoko bilkuran aurkezteko.

Otsaileko osokoan atzera bota zuen udalbatzak aurretik edukiontzi marroiaren alde hartutako erabakia.

Orain, atez atekoaren aldeko erabakia hartu beharko dute, baina ez dute zehaztu noiz. Martxoko osokoa eta greba egun berean dira, eta Udalak grebarekin bat egingo duela aurreratu du.

ESKORIATZA

Udal funtzionamenduan Bilduk duen jarrera salatu du oposizioak

EAJ, PSE-EE eta Ezker Anitza-IU taldeetako ordezkariek agerraldia egin zuten eguenean; eskubideak urratzea leporatu zieten Bildukoei

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Oposizioa (EAJ, PSE-EE eta Ezker Anitza-IU) ez dago gustura agintaldia hasi zenetik udal funtzionamenduari dagokionez Bilduk duen jarrerarekin. Udalaren funtzionamenduaren kalitate demokratikoan eragina duela eta udal ordezkarien eskubideak urratzearekin batera herritarrak informatuta edukitzeko zailtasunak dituztela salatu zuten eguenean kultura etxean egindako agerraldian.

PSE-EEko Jose Luis Canterok "legez" dagokien informazioa jasotzeko oztopoak dituztela salatu zuen. Adierazi zuen urtarrilaren 24an bere taldeak hainbat kontraturen gaineko dokumentazioa eskatu zuela eta ez duela erantzunik jaso. Horretaz gainera, arbuiatu zuen Eskoriatzako webgunean ez dutela tokirik: "Eskandaluzkoa da Udalaren webgunea Bilduren organo alderdikoi bilakatzea. Udal liberatuen soldaten gaineko polemikan, esaterako, herritarren Bilduren bertsioa topatuko da bakarrik horretan".

Aitor Urrutia jeltzaleak ere bat egin zuen informazio falta horrekin. Adierazi zuen azken bost urteotan Udalean ez dutela ezer jakin Abiadura Handiko Trenaren gainean, eta ez informaziorik ez dagoelako, batzordeetan

Ezkerretik eskuinera, Aitor Urrutia, Juan Luis Merino eta Jose Luis Cantero. | M.B.

hitz egin ez delako baizik. Gaineratu zuen prentsa bidez jakin dutela maiatzeko osoko bilkuran atez atekoari buruz egingo dutela berba.

Mozioen trataera

Osoko bilkuretan mozioek jasotzen duten trataera ere arbuiatu zuten hirurek. Bozkatzen dena bakarrik irakurri ahal dela salatu zuten, eta ez mozio osoa. Gainera, aktak laburtzen direla eta ordezkarien interbentzio guztiak ez direla jasotzen esan zuten. Horrez gain, Canterok alkatearen "jauntxokeria" salatu zuen, galderak eta eskaerak erantzuteari uko egiten diolako; eta baita hark duen "autoritate falta", azken osoko bilkuran egon zen isiltasun faltagatik.

Ezker Anitza-IU taldeko Juan Luis Merinok, berriz, udal liberatuen soldaten gaineko polemikaz egin zuen berba. Horren harira, Bilduk argitaratutako oharraren harira hainbat puntu argitu nahi izan zituen. Aipatu zuen Ezker Anitzak aurkeztutako mozioa "oso sinplea, argia eta zuzena" zela, eta asmoa zela Bilduk bere gain hartzea udal liberatuen soldataren igoera.

Merinoren esanetan, mozioa eztabaidatu beharrean, Ezker Anitza eta Merino bera deskalifikatu zituzten: "Beñat Herce alkateak aurreko Gobernu Taldeak egiten zuena egin zuen: mozioa aurkeztu zuen talde politikoa eta zinegotzia deskalifikatu, izena zikindu eta makurraraztea". Azaldu zuen mozioa aurkeztu zuela aurrekontuen botazioan abstenitu egin zelako, eta, hortaz, alegaziorik aurkezteko aukerarik ez zuelako.

"Bere zilborrera"

Merinok zalantzan jarri zuen Gobernu Taldeak oposizioan dauden hainbat talde politiko daudela ote dakienik, eta "bere zilborrera bakarrik" begiratzea leporatu zion.

Uztaileko osoko bilkuran Ezker Anitzak horren gaineko proposamenik ez zuela aurkeztu esan zuen, eta gainerako udal ordezkariek ere orduak sartzen dituztela debalde. Honako hausnarketa egin zuen: "Parte-hartzea bultzatu nahi dute, eta ez dira gai udal barruan gainerako alderdiekin harreman normalizatua izateko".

Urrutiak ere parte-hartzeaz berba egin zuen: "Parte-hartze horretan, sarritan, zinegotziak alde batera uzten gaituzte; parte-hartzearen monopolioa dagoela esango nuke".

Oposizioko kideek gogorarazi zuten hiru alderdien ordezkaritza batuta eskoriatzarren %40 inguru batzen dutela eta udal ordezkari guztiek herritarren interesak defendatzen dituztela. Horren harira, Urrutiak oposizioan dauden taldeen legitimitatea aldarrikatu zuen.

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Euskaltegikoak sagardotegian

Urtero bezala, aurten ere Leintz Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleek sagardotegirako irteera zain zuten. Joan den egubakoitzean, otsailaren 24an, egin zuten. Astigarragako sagardotegi batean afaldu zuten eta primeran pasatu zutela jakinarazi digute. Datorren urtekoan pentsatzen hasita daude.

GOIENA

ARETXABALETA

Martxoaren 8aren harira askotariko ekintzak

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Eguenean izango den Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira askotariko ekintzak antolatu ditu Aretxabaletako Udalak datozen egunotan. Eguenean, hilak 8, Las Torpedolevel-Ireki teatroak eskainia *Ya te digo* antzezlana ikusteko aukera izango da Arkupeko Zaraia aretoan. Emanaldia 19:00etan hasiko da, eta horretarako sarrerak bi eurotan salduko dira.

Zapatuan, hilak 10, ostera, umeendako *Panpinak Aitorrentzat* izeneko ikuskizuna izango da udal liburutegian. Goizean izango da hori, 11:30ean; eta sarrera librea.

Zine kluba

Horretaz gainera, martxoko zine kluba emakumeari eskainitako dago. Martxoaren 15ean, *La fuente de las mujeres* filma ikusteko aukera egongo da; hilaren 22an, *Albert Nobbs*; eta martxoaren 29an, *¿Y ahora a donde vamos?*. Ohikoa den moduan, eguenetan izango da zine kluba, 19:30ean, Arkupen. Bestalde, gogoraraztekoa da martxoa amaitu bitartean argazki erakusketa egongo dela ikusgai Arkupen bertan.

ESKORIATZA

OHARRAK

OTARREAREN ZOZKETA

Aurtengo Aratusteetan Eskoriatzako Luis Ezeizako Koldotxo guraso elkarteak zozketatutako Txanogorritxuren otarrearen jabea agertu ez denez, ostera ere zozketatu dute. Zenbaki berria hau da: 5.400. Irabazleak *gurasoak@luisezeiza.net* helbide elektronikora idatzi beharko du, esandako otarrea jasotzeko. Guraso Elkartetik jakinarazi dute eguenera arte, hilak 8, egongo dela eurekin harremanetan jartzeko aukera.

Mendebaleko Saharako zenbait herritar Aramaioko udaletxeko atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

"Asko eskertzen dugu Aramaiok gure herriarekin erakutsi duen elkartasuna"

Azken osoko bilkuran Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbidea eskatzeko onartutako mozioa dela-eta pozik agertu dira hango zenbait lagun

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Otsailaren 27a Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapen eguna da. Hori horrela, joan den eguazteneko osoko bilkuran Aramaioko udalbatzak elkartasuna erakutsi zuen herri sahararrak bizi duen egoerarekin eta Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide "justu eta demokratukoa" lortzeko Espainiako Gobernuari konpromisoak hartzeko eskatu zitzaion. Besteak beste, Marokoko Gobernuaren gerrako krimenak ikertzea eta Mendebaldeko Sahararendako autodeterminazio eta independentzia eskubidea aitortzea eskatu zitzaion Madrilgo Gobernuari.

Babesa, "beharrezkoa"

Mozioa aho batez onartu zen, Bildu eta Aramaioko Alkartasunaren aldeko botoekin. EAJko Iñaki Nafarrate ez zen egon. Bada, osokoa bertatik bertara jarraitzen Mendebaldeko Saharako zenbait herritar izan ziren. Mozioak aurrera egin ostean Eluali Dah Omar saharararrarekin egon ginen eta otsailaren 27ak eurendako zer suposatzen duen azaldu zigun: "Otsailaren 27a arrazaren eguna da, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren eguna. Estatu saharararraren errekonozimendua eskatzeko eguna da, 35 urtetan zehar ez gaituztelako aintzat hartu. Ordutik Espainiako Gobernuak bakarrik utzi gaitu Marokoko Gobernuaren eskuetan". Bestalde, esker oneko hitzak izan zituen Aramaioko Udalarendako: "Asko eskertzen dugu Aramaiok gure herriarekin erakutsi duen elkartasuna. Kausa justu bati eman diote babesa, izan ere, kanpoko babesa beharrezkoa dugu".

ESANAK

"Duela 35 urte Espainiak bakarrik utzi gintuen Marokoren eskuetan "

ELUALI DAH OMAR | MENDEBALDEKO SAHARAKO HERRITARRA

Ramon Ajuria alkateak Mendebaldeko Sahararen aldarrikapenekin bat egiten dutela eta euren "babes osoa" dutela adierazi zien.

ANTZUOLA

'Antzuola eta antzuolarrak' argazki lehiaketa abian da bosgarrenez

Argazkiak aurkezteko azken eguna maiatzaren 4 da eta udaletxera eraman beharko dira

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake lehiaketan. Antzuola izango da argazkietako protagonista eta herriko ohiturak, jaiak, jendea, tokiak… azal daitezke. Parte-hartzaileak hiru kategoriatan banatuta egongo dira: lehenengoan, 6-12 urtekoak; bigarrenean, 13-18 urtekoak; eta azkenik, 19 urtetik gorakoak. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkez ditzake; koloretan edo zuri-beltzean.

Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira eta azken eguna maiatzaren 4a izango da. Aurkezten diren argazki guztiekin erakusketa egingo dute Olaranen, San Isidro jaien asteburuan.

Argazkilaritzako adituek osatuko dute epaimahaia. Lanak baloratzerakoan, kontuan hartuko dute argazkiaren kalitate teknikoa eta artistikoa; baita adierazteko originaltasuna ere. Sariak maiatzaren 19an emango dituzte, Olaranen, 12:30ean.

Oinarriak eskuragai daude *www.antzuola.com* webgunean.

Kale bazkaria jaietan

Antzuolako jaiei dagokienez, berriz, aurten ere Antzuolako jaietako barikuan, uztailaren 13an, kale bazkaria egingo dute. Gogoratu beharra dago mahaiak eta aulkiak eskuratzeko izen-ematea ekainean zabalduko dutela.

ELGETA

Elgetako eta Antzuolako eguneko zentroak batera esleitzeko proposamena

Antzuolako udalbatzak bihar, martitzena, izango du gaia osoko bilkuran aztergai

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Zortzi erabiltzaile ditu uneotan Antzuolako eguneko zentroak, eta zazpi, berriz, Elgetakoak. Gatzagarekin batera Bideberri mankomunitean daude Antzuola eta Elgeta, eta mahai gainean dagoen aukera da etorkizun batean bi zerbitzu horien kudeaketa modu bateratuan lehiaketara ateratzea. Hau da, orain ez bezala Elgetako eta Antzuolako eguneko zentroen eta etxebizitza tutelatuen kudeaketa zerbitzu bakar baten moduan esleitzea.

Proposamen horren aldeko erabakia hartu zuen Elgetako udalbatzak urtarrilean egindako osokoan, baina erabakia atzera bota du otsaileko plenoan. Bilduko zinegotzi Janire Lazkanok osokoan adierazi zuen Antzuolako udalak urtebeteko epea eskatu duela erabakia behar den moduan aztertzeko.

Bihar, martitzena, jakingo dugu gaiaren inguruan apur bat gehiago, izan ere plenoa egingo dute Antzuolan, eta gai zerrendako bigarren puntua da honakoa.

Eulen Elgetan uztailera arte

Eulen enpresak kudeatzen ditu uneotan Elgetako eguneko zentroa eta etxebizitza tutelatua. Oxel Erostarbe alkateak jakitera eman duenez uztailera arteko kontratua du Eulenek Elgetan, "beste urtebetez luzatu daitekeena", esan du.

Elgetako eguneko zentroa. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

'1512-2012 Nafarroa bizirik!' ekimenarekin bat

Otsailean egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak ekimen horren aldeko mozioa

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Nafarroako erresumaren 500. urteurrena gogorarazi eta aldarrikatzeko sortutako *1512-2012 Nafarroa Bizirik!* ekimenarekin bat egin du udalbatzak. Mozioa aurkeztu, eta onartu egin zuten otsailaren 22an egindako osoko bilkuran.

"Gatzagako Udalak duela 500 urte Nafarroaren, hau da, gure estatuaren independentzia defendatu zutenei agur eta ohore egin nahi die", irakurri zuten, eta gaineratu: "Hainbat lekutan gure libertatearen sugarra babesteko borrokatu zirenak omendu nahi ditu, eta euskaldun guztion Nafarroa bizirik dela aldarrikatzen du".

Eta bat egin zuten *1512-2012* agiriarekin eta 1512ko konkistaren bosgarren mendeurrena gogorarazteko abiatuko diren ekimenekin, Udalak dituen ahalmenen arabera laguntza eskainita.

'Whisky' filma egubakoitzean

Bestalde, egubakoitzean, hilak 9, *Whisky* filma (2004, Uruguai, 108 min.) emango dute kultura etxean (19:00). Jaurlaritzak abian jarritako *Puntuetan* ekimenari esker ekarriko dute filma Gatzagara. Hain zuzen, ekimen horren helburua da film independenteak, zirkuitu komertzialetik kanpo geratzen direnak, herri txikietara, hau da, zinema normalean iristen ez den guneetara eramatea.

Whisky filma uruguaiarra da eta hiru lagunen arteko harreman itxiaren gaineko istorioa kontatzen du. Juan Pablo Rebella eta Pablo Stoll dira zuzendariak.

DEBAGOIENA EZAGUTZEN

JAKION
Jakionek emandako
Produktu sorta *
* Jakioneko produktuz osatutako otarrea.

Argazkian Urkulu, Udalatx eta Anboto ageri dira, besteak beste. Baita bi herrigune ere. Zeintzuk dira?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
SMS bidez: Bidali BONOFOTOA ERANTZUNA [bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.
E-postaz: *kluba@goiena.com*

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

KOLOORE KAMISETAK ETA IZERDI-JERTSEAK

koloore
www.koloore.es.
ESKAERAK:
koloore@koloore.es.

Parte hartzeko

Deitu
943 25 05 05
telefono zenbakira!

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko dira.

2012an atera etekina txartelari

Esko Sport

ESKO SPORT KIROL DENDA
Eskoriatza, 943 71 52 96
■ **-%10 produktu eta zerbitzu guztietan**

ETA HAUETAN ERE BAI

BEGIONO · gahir fisioterapia osteopatia · lastai · JAIXAK disfrutatzeko oparixak · MULTIÓPTICAS lehena zerbitzu optikoetan · GAES Centros Auditivos Entzumen zentruak · Guzti ederren · LILURA EDERTZE INSTITUTUA · RENAULT AUTOBERRI · AVIA · argia · iKER SUKALDEAK · TXURI-URDIN Donostia · eureka! zientzia museoa · AQVARIVM DONOSTIA SAN SEBASTIAN

KIROLA

LEHEN MAILA

Athleticendako izan da emozioz eta polemikaz betetako derbia

- Realaren gola ez zuen ontzat eman epaileak eta partidua aldatu zuen horrek
- Realzale edo Athleticzale izan, jarraitzaile guztiendako ez zen justua izan emaitza

EMAITZA

ATHLETIC
2-0
REAL SOCIEDAD

USOA AGIRRE | ARRASATE

Intentsitate, emozio eta polemikaz betetako derbia izan zen atzokoa. Izan ere, bigarren zatiaren hasieran Realak sartutako gola ez zuen ontzat eman epaileak eta goitik behera aldatu zuen partidua. Protagonista bat ere izan zen: Markel Susaeta. Athleticen bi golak egin zituen eibartarrak.

Bi taldeetako zaleen iritziak jaso ditugu behean. Guztiak bat datoz puntu baten: emaitza injustua izan dela Realarentzat.

Zeresana eman zuen jokaldia: Realaren gola. | ARGAZKI PRESS

1. Jarraitzaile gisa, nola ikusi duzu partidua? **2.** Nola ikusten duzu zure taldea hemendik eta liga bukatu arte?

REALZALEA
BITTOR ARRIARAN

1. "Lehenengo zatian, Athletic hobea izan da, eta bigarrenean, Reala askoz hobea. Gero, Realak gola egin du, epaileak ezetz esan du, errepikapenean ikusi da gola zela... betikoa da, San Mamesen beti zeozer gertatzen da. Iaz Muniainen penaltia, aurten gol hori...".

2. "Reala ondo ikusten dut, ez dut batere beldurrik. Erakusten dabil jokoa baduela, aulkia baduela eta azkenaldian oso indartsu dabil. Baina betiko zelaietan, betikoa da: Bernabeun partidua lapurtzen digute eta San Mamesen beti zerbait gertatzen da".

REALZALEA
ARATZ LOSADA

1. "Pena handia hartu dut. Uste dut, talde bakoitzak egin duen lana ikusita, berdinketa litzatekeela emaitzarik justuena. Onartu behar da Athletic ondo ibili dela, baina Reala ere nahiko ondo ikusi dut, bereziki bigarren zatian. Merezi zuen berdinketa".

2. "Gelditzen diren jardunaldiei dagokienez, eta ikusirik orain arte nahiko irregular ibili garela, aurreikusi daiteke sufritzea tokatzen zaigula. Uste dut oso garrantzitsua izango dela behintzat etxean jokatzen diren partiduak irabaztea. Ezinbestekoa izango da, salbatuko bagara!"

REALZALEA
BIXEN CALZON

1. "Dagoeneko ohituta gaude denetarik ikustera. Ez dut uste emaitza justua izan denik. Gainera, epaileak ere ez du batere lagundu. Athleticen lehenengo golaren ondoren, ondo aritu gara, eta bigarren zatian gehiago merezi izan dugu".

2. "Talde mordoa gaude puntu berdintsuekin. Gauden egoeran, puntu bat gora edo behera erabakigarria izan daiteke. Ikusi beharko da taldeak nola egiten duen aurrera, baina bukaerako jardunaldietan indartsu egotea komeni zaigu. Puntu bakoitza izango zaigu beharrezko".

ATHLETICZALEA
FELIX IRIZAR

1. "Realak ez du galtzea merezi izan. Athletic estu eta larri ikusi dut eta Realak lan handia egin du. Ontzat eman ez dioten gol horrek partidua aldatu egin du. Ikusi da Athletic teknikoki gehiago izan dela eta hori igarri egiten da emaitzetan".

2. "Oso gazteak dira Athleticeko jokalariak eta pentsatzen dut astean bi partidu jokatzeko ez luketela arazorik izan behar, horretarako prestatzen baitira. Besteok gai bagara astean bost egunetan lanera joateko, astean bi partidu edukita maila emateko moduan egongo direla pentsatzen dut".

ATHLETICZALEA
AGURNE JULDAIN

1. "Ezin izan ditut golak ondo ospatu, Donostiako taberna batean nengoelako Realzalez beteta. Ez dut uste emaitza oso justua izan denik, baina horrela suertatu da. Partidua aspergarria iruditu zait, baina izan daitezela Athleticen partidu guztiak aspergarriak, irabaziz gero!"

2. "Taldea ondo ikusten dut ligan eta erronka politak ditugu aurretik: Europa ligako partidua Manchesterren kontra, Kopako finala... Emozioz betetako liga bukaera izango da eta ea, zorte pixka batekin, gabarra ateratzen dugun!"

ATHLETICZALEA
ARITZ GALLASTEGI

1. "Athletic oso ondo sartu da partiduan, eta lehen golaren jokaldia oso ona izan da. Bigarren zatian, Athleticek ez du asmatu. Realari gola baliogabetu diote eta marrazaina oso-oso txarto egon da jokaldi horretan. Azkenean, Athletici sufritzea tokatu zaio. Batzuetan, merezi barik, garaipena lortzen da."

2. "Konpromiso asko eta handiak ditu Athleticek: Kopako finala eguenean, 37 punturekin Txapeldunen Ligarako 4. postu hori jokoan... Baliteke nekea igartzea, baina emaitzek laguntzen dutenean, gutxiago igartzen da".

Mondrako jokalaria Behobiakoengandik ihes egin nahian. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Ilusioz zelairatu arren, ezin puntuak etxeratu Mondrak

- Etxekoen akats baten ondorioz egin zuen Behobiak bigarren zatian gola
- Unai Kalzon zuri-moreak eta Oskar Modenes irundarrak, txartel gorria

EMAITZA

MONDRA

0-1

BEHOBIA

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Puntu beharra eta etapa berriak sortutako ilusioa nabarmena zen partiduaren hasieran. Ezohiko irudia zelaian: hiru entrenatzaile, bakarraren lekuan, eta jokalari fitxatu berriak. Harmailetan ohi baino zale gehiago, taldeari animuak etengabe ematen (besteak beste, Julen Zaitegi fitxatu berriaren aldekoak) baina baita epailearen lana salatzen, bereziki txartel gorrien unean. Hala ere, gura baina ezin; ilusioa bete-betean zapuztu zuen, etxekoen akats baten ondorioz, David Jimenezek 55. minutuan zelai erditik egin zuen golak.

Entrenatzaileak gustura

Partidua amaituta, emaitzak kontrakoa adierazi zezakeen arren, Jon Muruamendiaratz gustura zen taldeak egindako lanaz. Orokorrean, etxekoek presentzia handiagoa izan zutela zioen, nahiz eta bukaeran partidua zoratu. Unai Kalzon zurimoreak jasotako txartel gorria merezi gabekoa eta taldearentzako kaltegarria zela gaineratu zuen, Mondraren erdilari gabezia aintzat hartuta.

Aldagelako giroaz galdetuta, buru-makur zeudela erantzun zuen eta, lehenbailehen trago txarra irentsita, beharrezkoa dutela burua hurrengoan, Rotetaren aurkakoan, jartzea: "Aurkari zuzenak izanda, irabazi besterik ez dugu. Beraiek ere zigortutako jokalari garrantzitsuak dituzte, gainera". Zaleei eman beharreko mezuaz galdetuta, taldearengan konfiantza izateko eskatu zuen eta bereziki jokalariei animuak emateko.

Zelaitik harmailetara begirada itzulita, partiduan zehar zale batzuek taldea makal ikusi zutela zioten arren, Mojategitik alde egitera gindoazela, "hurrengoan izango da!" zen entzuten zena.

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Ander Ruiz de Azua , Aitor Chavez (Jon Loiti), Alain Gomez, Kepa Mercader, Unai Kalzon, Markel Gonzalez (Julen Moreno), Lander Andres (Markel Crespo), Jokin Pavo (Haritz Arabiurrutia), Julen Zaitegi , Iker Lopez (Xabier Pavon) , Andoni Aizpurua.

Gertakariak: Behobiako David Jimenezek gola (55. min). Txartel gorriak (93.min.): Unai Kalzon (Mondra) eta Oscar Modenes (Behobia).



Jon Muruamendiaratz, Ekain Garin eta Iker Zaitegi entrenatzaileak. | A.A.

Mosketariak bezala, hirurak bat

Muruamendiaratzen esanetan, aspalditik elkar ondo ezagutzeak, elkarrekin asko berba egiteak eta gauzak oso antzera ikusteak ahalbidetzen du, hiru entrenatzaile baten tokian egonda ere, unean uneko erabaki azkarrak momentuan hartzea. Hirukoa baikor da taldea arazo barik gidatzeko duen erronkan.

Fitxaketa berriei dagokienez, zapatuan jokatu zuten Julen Zaitegi, Jon Loiti eta Haritz Arabiurrutiaren fitxaketa berriekin atzealdea indartu gura izan dutela gaineratu du, eta taldearentzako oso lagungarriak izango direla. Beste hainbatekin berba egiten ari diren arren, oraingoz besterik lotuta ez dute; argitzeke dago, beraz, Aitor Lopez Rekarte Mondrarekin izango den, eta zein izango den haren lana, entrenatzaileei laguntzen ala jokalarien artean. Astean dira bildu eta erabakia hartzekoak.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergara 2- Beti Gazte 1: animuak igotzeko beharrezko puntuan etxean geratu dira

A.A | BERGARA

"Partidu garrantzitsua zen, aste gogorra izan da, baja asko ditugu zigorrak eta gaixotasun arrazoiengatik", zioen pozik Bergarako entrenatzaileak.

Etxekoen akats bat aprobetxatuta, kanpokoak aurreratu ziren 5. minutuan. Atsedenaldian, 0-1 markagailuan. Jokalari batzuk aldatuta, etxekoak gailendu ziren bigarrenean: korner baten ondoren, buruz sareratu zuen Ander mahoneroak, partidua berdinduz. Hamar minutu falta zirela egin zuen Iker Azkonagak bigarrena.

Zapatuan, Elgoibarren

Aurkari zuzenak dira eta, horregatik, irabaztea komeni. Helburua betetzeko, Galanek espero du oraingoan izan ez dituen jokalariak berreskuratzea.

Mahoneroak gola ospatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Zapore txarreko puntua lortu zuen UDAk Aurrera Ondarroak hamarrekin jokatuta

A.A. | ARETXABALETA

Sekulako gola egin zuen hamargarren minutuan Aurrera Ondarroak Ibarran. Handik bost minutura, baina, protesta egiteagatik, jokalari bat gutxiagorekin geratu ziren; hala ere, UDAk ez zuen aukera aprobetxatzen asmatu, bizkaitarrek gogor defendatu zuten-eta.

Joko txikiko lehenengo zatiaren ostean, indartsu ekin zioten aretxabaletarrek bigarrenari eta hamabost minutura Oxel Apraitzek berdindu zuen markagailua. Hortik aurrera, gura baina ezin ibili zen UDA, gola sartzeko pare bat aukera izan bazituen ere. Puntu bat etxeratuta ere, zapore gazi-gozoarekin geratu ziren, ia partidu osoa hamarreko arerioa izan zuten -eta. Zapatuan, Pasajes aurkari zuzenaren etxera doaz.

Ibarran atzo jokatutako partiduaren une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak Real Unionen etxean 3-1 galdu arren, taldea gustura etxeratu zen, aurpegia eman zuen-eta

Emaitzak kontrakoa adierazten duen arren, Andoni Azkargorta, Aloñaren entrenatzailea, gustura zen taldeak egin zuen lanarekin; talde handi bati "aurpegia jartzen jakin" izan zuela zioen partidua amaituta. Atsedenaldirako bi gol zituen dagoeneko kontran. Atzetik ezin irtenda ibili ziren oñatiarrak bigarren zatian ere; hala ere, partiduaren amaieran, irundarren atea zeharkatzea lortu zuen Unai Bikuñak. Hurrengo hitzordua goi partean dagoen beste talde batekin du Aloñak: domekan, 16:30ean, Tolosa hartuko du Azkoagainen.

ESKUBALOIA

Garaipenarekin, lehen mailarako igoera fasean jokatuko dute

Ford Mugarrik bete du denboraldiko bere helburua

Ford Mugarriko jokalaria jaurtiketa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAITZA

FORD MUGARRI
38-26
INDUPIME BASAURI

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Partidua 15. minututik aurrera nahiko kontrolatuta zeukaten Ford Mugarrikoek. Lehenengo zatia 21-12 puntuazioarekin amaitu zuten eta bigarren zati guztian ere aurretik joan ziren. Ia denbora guztian 10 puntuko aldearekin joan ziren arrasatearrak, eta nahiko garbi ikusten zen euren garaipena.

Hala ere, Ane Herrero entrenatzaileak esan digu partidu "eskasa" izan zela: "Oinez, lokartuta eta erlaxatuta hasi gara. Oso ondo dago 38 gol sartzea, baina eurek 26 sartu dizkigute eta gure helburua, partidu honetan, aurkariek guri 24 gol baino gutxiago sartzea zen". Azken partiduetan nahiko ondo ibili dira defentsan Herreroren mutilak, baina zapatukoan "tamalgarria" izan zela aitortu digu entrenatzaileak. "Horregatik, uste dut atezainak ere ez dituela baloiak gelditu azkeneko partiduetan bezala, ez duelako defentsaren laguntza izan".

Indupime Basauri eta Ford Mugarri, bi taldeak joan ziren partidura puntuen bila; arrasatearrek, lehenengo postuan jarraitu nahi zutelako, eta Basaurikoak, azken postuetatik igo nahi zutelako.

Bergararrek 30-29 irabazi

Bergararrek partidu oso txarra jokatu dute asteburuan El Pilar taldearen aurka. Lehenengo zatian 10-16 galdu zuten eta bigarren zatiko hasieran 12-20 zihoazen. Bergararrek defendatzeko modua aldatu eta azken bost minutuetan lehia bizi-bizia izan zen partiduan. Bi taldeak nor baino nor ibili ostean, bergararrek puntu bakarrarengatik garaitu zuten El Pilar.

Helburua lortuta

Arrasatearrek partidu "eskasa" jokatu zuten arren, sailkapen orokorrean lehenengo taldea da Ford Mugarri, eta dagoeneko lortu dute euren denboraldiko helburu nagusia: lehen mailarako igoera fasean jokatzea. "Oso pozik gaude. Liga irabazi dugu eta igoera fasea jokatuko dugu. Maiatzean izango dira lehen mailara igotzeko jokatu beharreko partiduak eta horri begira jarriko gara orain", esan digu Herrerok. Partidu horietarako entrenatuko dira, beraz, aurrerantzean Herreroren mutilek.Taldekideak lasaiago egoteko eta azken momentuko presiorik ez izateko, fasera begirako entrenamenduak egingo dituzte, baina beste lasaitasun batekin.

ANE HERRERO
ENTRENATZAILEA

"Espero dugu gelditzen zaizkigun lau partiduetan maila ez jaistea"

A.T.

Ane Herrero entrenatzailea oso pozik zegoen partidua bukatu eta gero. Jokalariekin batera, xanpain eta guzti ospatu zuten partiduaren garaipena.

Garrantzitsua izan da Indupime Basauriren aurka jokatutako partidua?

Oso garrantzitsua. Basaurikoak azken postuetan zeuden eta puntuak lortu nahi zituzten, guk bezala.

Aurrera begira, zein asmo dituzue?

Datorren astean Egiaren aurka jokatuko dugu eta irabazten jarraitu nahi dugu, liga partidu bakarra galdu gabe bukatzeko. Beraz, datorren astekoan eta gelditzen zaizkigun beste hiru partiduetan, saiatuko gara maila ez jaisten. Horrez gain, saiatuko gara lesioak eta zigorrak ekiditzen eta igoera faserako partiduetarako entrenatzen jarraituko dugu.

SASKIBALOIA

Irabazita zeukaten partidua azkenean galdu egin zuten

Horrek asko zaildu die etorkizuna oñatiarrei

EMAITZA

PAS PIELAGOS
68-62
NATRA OÑATI

A.T. | OÑATI

Guztiz etsita eta burumakur bukatu zuten domeka arratsaldeko partidua txantxikuek.

Xabi Igartua entrenatzaileak esan zigun partidua hirugarren laurdenerako irabazita zeukatela, izan ere, aurkariak baino hamar edo hamabi puntu aurretik zihoazen, eta horrez gain, "oso-oso ondo" jokatzen ari ziren EBA ligan diharduten oñatiarrak. Hala ere, Igartuak penaz aitortu zigun bere "erruagatik" azkenean ezin izan zutela irabazita zeukaten partidua gailendu, eta oso triste irten ziren kantxatik oñatiarrak. Hain ondo ibili eta gero, pena izugarria eman zien galtzeak. Gainera, Pas Pielagos taldea bosgarren postuan doa sailkapenean eta oñatiarrendako garaipena lortzea oso garrantzitsua izango zitekeen.

Etorkizun zaila

Datorren asteko partidua Estela taldearen aurka jokatuko dute. Estela liderra da, lehenengo doa sailkapenean, eta partidu "oso gogorra" izango dela azaldu digu entrenatzaileak. "Partidu hori eta hurrengo guztiak derrigorrez irabazi behar ditugu", esan digu Igartuak, eta etorkizuna "ikaragarri zaildu" zaiela ere gaineratu digu.

Hemendik aurrerako helburua zein izan behar den argi daukate, beraz, EBA ligan jokatzen duten oñatiarrek: partidu guztiak irabaztea. Horretan saiatuko dira.

ESKUBALOIA

Oñatiko neskek berdindu egin zuten partiduan

Ereintzaren aurka jokatutako partiduan, lehenengo zatian nahiko parekatuta joan ziren bi taldeak eta bi punturengatik galtzen bukatu zuten lehen zatia oñatiarrek. Bigarrenean nahiko berdintsu ibili ziren eta 22-22ko emaitzarekin amaitu zuten.

JOSETXO ARANTZABAL

SASKIBALOIA

Eskoriatzako neskek 70-67 irabazi zuten Alde Zaharra taldearen aurka

A.T. | ESKORIATZA

Partidua berdinduta bukatu zuten Eskoriatzako neskek eta, bost minututako luzapenaren ostean, 70-67 irabazi zuten Alde Zaharra taldearen kontra.

Lehenengo bi zatietan eskoriatzarrak joan ziren markagailuan aurretik, eta hirugarrenean aurkariak gailentzen hasi ziren.

Partidua bukatzeko zortzi segundo besterik ez zirenean geratzen, baina, Eskoriatzako taldekide batek hirukoa sartu zuen eta horrek ekarri zuen hemengoen garaipena.

Inma Murillo entrenatzaileak esan digu ez zela oso partidu "ona" izan, defentsan nahiko justu ibili zirelako, eta gaineratu digu aspaldian ez dizkietela aurkariek horrenbeste saskiratze egin. Erasoan, berriz, "oso ondo" hasi zirela azaldu digu, baina amaiera aldera, erlaxatzen joan zirela.

Datorren astean, Bera Beraren kontra jokatuko dute eta partidu zaila izango dute.

SASKIBALOIA

Hamar puntuko aldearekin irabazi zuten Bergarako mutilek

A.T. | BERGARA

Santo Tomas Lizeoa taldearen aurka jokatu dute partidua asteburuan Bergarako Soraluce BKE Gipuzkoako senior mailako mutilek.

Partiduari nahiko hasiera makala eman zioten: 9-2 joan ziren galtzen bergararrak. Hala ere, markagailuan denborak aurrera egin ahala, hobeto defendatzen hasi ziren, eta aurkariei aurrea hartzea lortu zuten. 54-64 bukatu zen partidua.

Garaipenarekin, pozik

Santo Tomas Lizeoa taldea sailkapenean laugarren doa eta bergararrak, berriz, azken hirugarren doaz. Beraz, bergararrendako oso pozgarria izan zen partiduaren garaipena lortzea. "Benetan pozik gaude irabaztea lortu dugulako", esan ziguten.

Datorren astean arrasatearren kontra jokatuko dute derbia eta "konfiantzaz" eta "dena ematera" joango dira.

ATLETISMOA

290 bat neska-mutiko aritu ziren Mojategiko atletismo jardunaldian

USOA AGIRRE | ARRASATE

Leintz bailaran eskola kirolean ari diren neska-mutikoak batu ziren zapatu goizean Mojategiko atletismo pistan. Bost modalitate ezberdinetan jardun zuten: altuera-jauzia, luzera-jauzia, pilota jaurtiketa, 60 metroko lasterketak eta errelebutako lasterketak, 4x50 metrokoak.

Giro ederra egin zuen zapatu goizean eta guraso asko bildu zen harmailetan seme-alaben trebetasunak ikusteko asmoz.

Otxandiotik ere bai

Leintz bailarakoez gain, Otxandioko sei lagunek ere parte hartu zuten Arrasateko atletismo jardunaldian. Guztira 290 bat neska-mutiko batu ziren, bi txandatan banatuta: 10:00etatik 11:00etara jardun zuten 3. mailakoek; eta 11:00etatik 12:00etara 4. mailakoek.

Arrasate Herri Eskolakoek (40), Aretxabaletako Kurtzebarrikoek (50), Eskoriatzako Luis Ezeizakoek (26), Aramaioko San Martin eskolakoek (4) eta Arizmendi ikastolako Santa Teresa (19), Gazteluondo (54), Arimazubi (30) eta Almen (60) guneetako eskola kiroleko neska-mutikoek parte hartu zuten antolatutako bost probetan.

Datorren zapatuan, berriz

Eskola kirolean ari diren gaztetxoei atletismoa ezagutzera emateko antolatzen dute urtero jardunaldi hau, Arrasateko atletismo taldearen laguntzarekin. Datorren zapatuan, martxoak 10, eskola kiroleko gainerako mailakoek izango dute atletismoko ekintza horiek guztiak probatzeko aukera; 10:00etatik aurrera batuko dira Leintz bailarako neska-mutikoak Arrasateko Mojategin.

Altuera-jauzia izan zen gustukuen izan zuten probetako bat.

Koltxoneta gainean, saltoa eginda.

Luzera-jauzia.

Bi metrotik gorako saltoak egin zituzten askok luzera-jauzian.

Denak emanda iritsi ziren batzuk lasterketaren bukaerako helmugara.

Helmugara iristen.

Pilota-jaurtiketa.

Mutikoak prest korrikari ekiteko. 60 metroko lasterketa egin behar izan zuten guztiek. | ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL

GAIZKA ETA IBON
ESKORIATZA ETA GATZAGA

"Probetatik gehien gustatu zaiguna izan da altura-jauzia, korrika joan eta koltxonetara salto egitea".

AMAIA, SAIOA, XUBANE, MIRIAM, AMAIA, EDURNE ETA LOREA
ARETXABALETA ETA ESKORIATZA

"Atletismoko proba guztietan hartu dugu parte denok: korrika, luzera-jauzian, altura-jauzian eta pilota jaurtitzen. Oso gustura ibili gara. Urtean behin egiten dugu topaketa hau, baina atletismoko probak urtean zehar ere egiten ditugu".

MARTXEL, ATHARRATZ, AITOR ETA DANEL
ARRASATE

"Hondarretara eta koltxonetara salto egitea gustatu zaigu gehien lauroi. Nahiko onak gara salto egiten eta horregatik disfrutatu dugu luzera- eta altura-jauzian. Errekorrik ez dugu egin, baina alturan 3,10 egin dugu salto".

JOKIN ETA IGOR
ARRASATE

"Hondarretan salto egitea eta altura-jauzia gustatu zaizkigu gehien. Nik (Igor), 2,10eko luzera-jauzia egin dut".

ANDER ETA URKO
ARRASATE

"Altura-jauzia eta hondarretan salto egitea gustatu zaigu. 2,90 metro izan da gure errekorra luzera-jauzian".

NAHIA, ALAITZ, IRENE ETA NAHIA
ARRASATE

"Proba guztietan hartu dugu parte eta altura-jauzia eta korrika egitea gustatu zaigu gehien. Beste ekintzetan ere gustura aritu gara, baina horietan oso onak ez garenez, nahiago ditugu beste biak".

ATLETISMOA

Erreibindikazio onenak saria izango du aurtengo Takarraran lasterketan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Berritasunekin dator aurten Takarraran berdintasunaren aldeko lasterketa, izan ere, erreibindikazio deigarrien edo orijinalena egiten duenari sari sorpresa emango dio Arrasateko Udaleko Emakume Txokoak. Sari horrez gain, beste hainbat ere emango dituzte. Dena dela, Emakume Txokoak gogorarazten du helburua ez dela lehia, baizik eta emakumeendako espazioak irabaztea eta emakumeoi kirola egiteko aukera bat ematea. "Adin batetik aurrera, batez ere, emakumeok ez dugu kirola egiten, eta osasuna zaintzeari garrantzia eman gura diogu", esan du Emakume Txokoko Amets Beltran de Gebarak.

Izenemate epea zabalik dago, baina egunean bertan, datorren zapatuan, ere egin daiteke hori: Seber Altube plazan irtengo dira korrikalariak, eta hantxe bertan eman daiteke izena, 11:30 -12:00 bitartean.

Laugarrena

Zapatukoa laugarren Takarraran lasterketa izango da. Debagoien osoko emakumeek parte hartzen dute urtero-urtero, eta 60 eta 70 parte-hartzaile artean izaten ditu.

Emakume Txokoak entrenamendu-plana ere zintzilikatu du udal webgunean. Otsailaren 27an hasteko programa da, baina denetariko gomendioak ere batzen ditu.

Santa Marinako emakumeen erreibindikazioa, iaz. | JULIO CALLEJA

Kontseiluaren lehenengo batzarra, Agorrosinen. | BERGARAKO UDALA

ANTOLAKUNTZA

Bergarako kirolerako proposamenak eskatu ditu Kirol Kontseiluak

L.K. | BERGARA

Bergarako I. Kirol Kontseiluak epe bat zabaldu du herritarrek 2012-2015 urte arteko planaren gaineko proposamenak egin eta lehentasunak marka ditzaten. Hain zuzen, martxoaren 16ra arte izango dute bergararrek horretarako aukera. Bi modutara helarazi ditzakete proposamenak: *bergarakokirola.blogspot.com* blogean, edo Agorrosingo harreran eskatu daitekeen orria beteta. Epe berbera izango dute ere Kirol Kontseiluaren batzorde iraunkorrean egon nahi dutenek izena emateko.

Batzar hori joan den eguaztenean izan zen, Agorrosinen, eta 24 lagun joan ziren: norbanakoak, eskoletako ordezkariak, kirol elkarteetakoak, osasun arlokoak, alderdi politikoetakoak...

Partaidetza bultzatuko dute

Kontseiluaren funtzionamenduaz hitz egin ondoren, 2012-2015 epealdirako plana egiteko helburu eta lehentasunen inguruan jardun zuten.

Batzorde iraunkorrean zortzi eta 10 lagun inguru izango dira, eta 2-3 hilean behin batzartuko dira.

Bergarako Kirol Kontseiluak urtean birritan batzartzeko asmoa du, baina partaidetza bloga eta beste baliabideen bidez bultzatuko dutela esan dute arduradunek.

MENDIA

Eski alpino eta mendi eski irteerak aste bukaeran Besaiderekin

Gaur, astelehena, hasi eta etzira arte eman dezakete izena aste bukaeran Besaiderekin Formigalera eski alpinoa egitera joan gura dutenek. Elkartearen bulegora joan behar da, 18:30etik 19:30era. Argibide gehiago: *www.besaide.org/hasiera/80-eski-alpinoa.html*.

Gaur eta bihar eman daiteke izena aste bukaeran Bareges-Col d'Aube-Montaigu irteeran joateko. Bulegora joan beharra dago 19:00etatik 20:00etara.

IKASTAROA

Arrolaren GPS ikastaroan izena eman daiteke oraindik

Arrola mendizale taldeak antolatu duen GPS ikastaroan tokia dago oraindik izena eman nahi dutenentzat. Ikastaroa martxoaren 17 eta 18ko asteburuan egingo da. Kostua honakoa da: Arrolako bazkide federatuendako, 45 euro; federatua bai, baina Arrolako bazkide ez denarendako, 50 euro; eta federatu gabea eta bazkidea ez denaren kasuan, 60 euro. Arrolakoekin harremanetan jartzeko deitu 635 20 58 41 zenbakira edo bidali mezua *arrolamt@gmail.com* helbidera.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Bergara-Beti Gazte	2-1
Hondarribia-Elgoibar	2-1
Trintxerpe-Oiartzun	2-0
Mondra-Behobia	0-1
Urola-Roteta	4-2
Aretxabaleta-Aurrera	1-1
Tolosa-Pasaia	2-2
Real Union-**Aloña Mendi**	3-1
Berio-Anaitasuna	1-3

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Anaitasuna	50	24
2	Real Union	44	24
3	Tolosa	43	23
4	Pasaia	42	23
5	Oiartzun	42	23
6	Berio	41	24
7	**Aretxabaleta**	40	23
8	**Aloña Mendi**	34	23
9	**Bergara**	33	23
10	Beti Gazte	33	23
11	Trintxerpe	31	23
12	Urola	29	23
13	Hondarribia	25	23
14	Aurrera	23	24
15	Elgoibar	22	23
16	Behobia	21	24
17	**Mondra**	19	23
18	Roteta	13	24

HURRENGO JARDUNALDIA

Elgoibar-**Bergara**
Oiartzun-Hondarribia
Behobia-Trintxerpe
Roteta-**Mondra**
Aurrera-Urola
Pasaia-**Aretxabaleta**
Aloña Mendi-Tolosa
Anaitasuna-Real Union
Beti Gazte-Berio

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

Peña Ath. Santurtzi-Aretxabaleta 1-3

ERREGIONAL PREFERENTEA

Anaitasuna B-Aretxabaleta B 1-0
Idiazabal-Antzuola 1-0

1. ERREGIONALA, IGOERA FASEA

Hernani B-Mondra B 4-2

1. ERREGIONALA, KOPA

Zestoa B-Aretxabaleta C 3-1

OHOREZKO GAZTEAK

Elgoibar-Mondra 3-4
Ikasberri-Bergara 0-4
Euskalduna-Aloña Mendi 4-3

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Mundarro-Bergara 0-2
Aloña Mendi-Amaikak Bat 4-1
Eibartarrak B-Aloña Mendi B 2-7

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Mondra-Ikasberri 2-1
Aretxabaleta UDA-Eibar B 0-1
Aloña Mendi-Reala B 1-4

GAZTEEN 1. MAILA, KOPA

Arizmendi-Aloña Mendi B 3-4
Eibartarrak B-Aretxabaleta B 3-1

OHOREZKO KADETEAK

Bergara-Orioko 10-1
Aurrera-Aretxabaleta 4-0
Aloña Mendi-Amaikak Bat 4-1

OHOREZKO KADETEAK, KOPA

Anaitasuna-Aretxabaleta 0-4
Bergara-Billabona 6-1

KADETEEN 1. MAILA, IGOERA

Ordizia-Arrasate 1-2

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPEL. GIZON.

Ford Mugarri-Indupime Basauri 38-26

Soraluce BKE-Estudios Gis El Pilar 30-29

EMAKUME SENIOR PREFEREN.

Aloña Mendi-Ereintza 22-22

1. LURRALDEKO TXAPELKETA

Ordizia-Izarraitz Aloña Mendi 30-29

2. LURRALDEKO TXAPELKETA

Somos Eibar-Arrasate 46-18

GIZONEZKO KADETEAK

Berezao Aloña Mendi-Amenabar 31-25

Soraluce Berg.-Talleres Chapime 18-23

EMAKUMEZKO KADETEAK

Bartolo-Aloña Mendi A 18-34

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Pas Piélagos-Natra Aloña 68-62

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Zarautz Zast-MU 77-76

SENIOR GIZONAK, 3. MAILA

MU B-Multi. Trade Billabona 38-70

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Take Orbela 75-50

Santo Tomas Lizeoa-Soraluce 54-64

SENIOR GIZONAK, 2. MAILA

Aloña Mendi-Oiarso 97-81

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Easo Alde Zaharra 70-67

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eskolapioak-Eskoriatza 4-2

GIPUZKOA, BIGARREN MAILA

Donibane Pari Berri-Aretxabaleta 4-15

GUREKIROLA
GOIENA TELEBISTA HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30

goiena

PIRAGUISMOA

Patxi Ugalde | Beti Bustiko eta Euskal selekzioko piraguista

"Ez dut katarrorik hartu oraindik, baina erreka bazterrak izoztuta daudenean uretara sartzea..."

- Gipuzkoako txapelketa irabazita hasi du denboraldia, eta Mundialak ditu buruan
- Seu d'Urgell herrian igaro du asteburua, euskal selekzioaz entrenatzen

Patxi Ugalde, joan den astean, Gipuzkoako Txapelketako saioan. | BETI BUSTI

XABIER URTZELAI | BERGARA

Patxi Ugaldek (Bergara, 1994) Katalunian erantzun dio Goienaren deiari, La Seu d'Urgell herrian eman du-eta asteburua, Euskal selekzioarekin entrenatzen. Beti-Bustiko piraguistak kilometro mordoa egin behar izaten ditu ondo entrenatu nahi duen bakoitzean; egubakoitzean egin zuten zazpi orduko bidaia Kataluniara, eta arratsaldeko saioa amaitu ostean erantzun zuen elkarrizketa. Asteburua kanal olinpikoan eman du, seguru, gogor entrenatzen.

Zer moduz hasi da denboraldia?

Ezin naiz kexatu, jokatutako bi txapelketak irabazi egin ditudalako (Bidasoan egin zuten Gipuzkoako Txapelketa, eta Pau-n Euskadiko kopako saio bat). Denboraldia, baina, hasi baino ez da egin, txapelketa garrantzitsuenak, nazioartekoak, uda partean izaten direlako.

Aurten ze helburu duzu?

Udan gazte mailako Munduko Txapelketa jokatuko da Ameriketan, eta hara sailkatzea nahiko nuke. Txapelketa horren ostean egingo dute Europakoa, Eslovenian, baina Munduko Txapelketa jokatuz gero Europakora ere sailkatuta egongo nintzateke. Eslovenian hiru lagunendako tokia egongo da, Mundialean bakarrarendako tokia dago.

Eta bertara sailkatzeko zer egin behar duzu?

Espainiako Kopa eta Txapelketa barruan dauden hitzorduek puntuak ematen dituzte, baina horrekin batera oso garrantzitsua da Pirinioetako Txapelketa barruan dauden probetan lan ona egitea. Txapelketa horiek Foix-en (Frantzia), Pau-n (Frantzia) eta Seu d'Urgell-en egiten dituzte.

Konpetentzia handia duzu?

Espainia mailan gure kategorian posible da txapelketa batera 40 piraguista azaltzea. Baina, maila antzerakoan zazpi piraguista inguru ibiliko gara. Hala, guztien artean onena izan beharko nuke sailkatzeko.

Ze asmo duzue Seu d'Urgell-en egingo dituzuen egunotarako?

Honaino etortzen garenean gogor entrenatzeko izaten da. Euskal Herrian Bidasoan baino ezin da ondo entrenatu, eta benetako kanal batean ibiltzeko Seu d'Urgell-era etortzen gara, edo Frantziara jotzen dugu. Hemen badaude gazteak egunero entrenatzen dutenak, eta gu tarteka etortzen gara, oso garestia delako uretan egiten dugun ordu bakoitza, federazioak diru mordoa ordaindu behar izaten du. Ez dugu besterik egiten, entrenatu eta atseden hartu.

Gogorra izango da.

Beno, batez ere bidai luzea egin behar izaten dugulako honaino etortzeko. Gogorra da, orain gertatzen den moduan, asteartean azterketa bat baldin badaukazu.

Zaila izango da kirol horretatik bizi ahal izatea.

Oso-oso onak direnek ez dute arazorik piraguismotik bizi izateko, eta horrelakoak ez daude asko. Gainontzekoek... [Barre].

Zer du piraguismoak?

Ez dela kirol batere monotonoa, erreka bakoitza ezberdina da, eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Eta, erreka bakoitzak ere gauza ezberdinak egiteko aukera ematen du. Aparte, norberak hobetzeko duen erronkak ere zeresan handia du.

Zertan hobetu behar duzu?

Transmisioan, batetik. Hau da, palakada bakoitza ematerako orduan teknika oso garrantzitsua da, palakada horrekin transmititzen den indarra ahalik eta handiena izan dadin. Eta saltoetan ere hobetu beharra daukat. Saltoa egin eta asko urperatzen bazara denbora galtzen ari zara; zaindu egin behar da hori, piraguista batetik bestera bi segundo baino gutxiagoko aldea egoten delako.

Erreketan ibiltzen zarete. Baina, itsasoan, lakuetan... Atsegin duzu ibiltzea?

Lakuetan ez horrenbeste, hor palakadak bata bestearen ostean ematea delako gakoa. Baina hori ere ondo egiten jakin behar da, teknika lantzeko aproposa da. Eta itsasoan ere beste horrenbeste, olatuak hartzen ikasteak ere asko laguntzen du teknika ikasteko.

Denboraldiaurrea neguan egiten duzue. Ez da errekako ur hotzetara sartzeko sasoirik aproposena...

Batzuetan gogorra izaten da, bai. Erreka bazterrak izoztuta daudenean uretara sartzea, edo erabat izoztuta, joan den astean moduan... Arropa aproposa eramaten dugu, baina neoprenoak ezin daitezke oso sendoak izan, bestela ezinezkoa izaten da mugitzea.

Errekan izango zenuen sustorik.

Bai, bat edo beste. Uretara erori eta harriren batekin min hartu, edo lagunen bat harri artean desagertzen dela ikusi eta beherago azaldu... Horrelakoak ekiditeko garrantzitsua izaten da erreka bakoitza ondo ezagutzea, non dauden ur korronte gogorrak, non egiten diren olatuak, harriak...

"Erreka bakoitza ezberdina da, eta ondo ezagutzea komeni da"

"Teknika oso garrantsitzua da, denbora ez galtzeko"

Klubean gazteen garrantzia

Bergarako Beti-Busti klubak 25 urte bete zituen iaz, eta urte horietan sasoi makalak eta oso onak izan dituzte. Txapelketa arloan Ugalde da gehien nabarmentzen dena, baina Bergarakoak azpimarratu du gazteak datozela atzetik, eta hori dela garrantzitsua: "Unibertsitate sasoian jendea kanpora joaten da ikastera, eta utzi egiten dute piraguismoa. Baina, ikusten da atzetik gaztetxoak badatozela, eta horrek mantentzen du kluba bizirik".

Ugalde, 2009ko Euskadiko Txapelketako saioan. | BETI BUSTI

HEZIKETA

Fardelek lan astuna kendu dute, baina arazo ekologiko gero eta handiagoa dira

Jacqueline Farmer kazetariak 'Couchorama' dokumentalean azaltzen du

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Urtarrilean eman zuen frantsesezko Arte kateak *Couchorama* dokumentala, eta oso komentatua izan da. Haurra izan berria duen Jacqueline Farmer kazetariak egin du *Couchorama*; izan ere, asteak aurreratu ahala konturatu da etxeko zakarrontzia azkar betetzen zitzaiola. Emakumeak kalkulatu du haurrak hiru urtean 6.000 fardel zikinduko dituela. Tona bat zabor! Pixoihalek gorderik daramaten benetako zikinkeriaz ohartarazten gaitu dokumentalean.

Berrerabilgarriak diren fardelak. | SIMPLYLA

Erabili eta bota

Txinan eta oro har Asian *Kaidangku* izeneko praka zulodunak erabiltzen dituzte haur txikiek beharrak ondo kontrolatzen ikasi bitartean. Gurean, 1970eko hamarkadatik fardelak erabiltzen ditugu. Erabili eta bota. Fardelek lan astuna kendu dute eta fabrikatzaileek asko mehatu eta arindu dituzte, baina belaunaldi bakar batean ingurumenari sekulako arazoa sortu zaio gaur aurrerapenaren ikurretako bat denarekin. Eta arazo ekologikoa gero eta handiagoa den bitartean multinazionalek beren interes ekonomikoak defendatzen jarraitzen dute. Fardel sintetikoak nagusitu diren herrialdeetan, ordea, hasita daude produktu horiek eragiten dituzten kostuak kontabilizatzen. Pixoihal biodegradagarriak edo pixoihal garbigarriak egon badaude.

Haurtzaroko nerbio-tikak: sei umetik batek agertzen duen sintoma

'Pediatric Neurology' aldizkariak Burgosko ospitale batek egindako ikerketa argitaratu du

L.Z. | ARRASATE

Nerbio-tik bat da pertsona batek bat-batean eta behin eta berriz errepikatzen duen mugimendua edo soinua. Oharkabeko mugimenduak dira, kontrolaezinak pertsona horiendako, eta ez dira gauza arraroa haurren artean. Kasu gehienak betazaletan edo lepoan kokatzen dira, baina badaude sabeleko gihar-rekin edo zotinarekin harremana dutenak. Kasu gehienak arinak dira, eta adinean aurrera egiten den heinean desagertu egiten dira.

Burgosko General Yagüe ospitalean Esther Cubo doktorearen taldeak egindako ikerketak jasotzen du sei umetik batek agertzen duela nerbio-tik asalduraren bat. Arazoa da nerbio-tik kasuen erdiak harremanen bat dutela bestelako asalduraren batzuekin; esaterako, arreta eskasiarekin edo hiperaktibitatearekin, estresarekin, depresioarekin edo antsietatearekin. Dopamina izeneko hormona da eragile nagusia.

Tratamenduak

Aukera dago dopaminaren funtzioa arinduko duten botikak hartzeko, eta espezialistek erlaxazio teknikak zein terapia kognitiboak aholkatzen dituzte. Lehenengo eta behin, dena den, familiek jarrera lasaia izan behar dute, eta garrantzitsua da haurraren antsietatea ez areagotzea.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

Zaintzeko beste era batzuk badaude

Arantza Hernandez
Osasungintzako irakaslea

Gure inguruan, hirugarren adinekoen zaintzan, ohikoa da askotariko euste motak erabiltzea. Orain artean burutik pasa ere ez zaigu egin egon daitezkeela malguagoak eta duinagoak diren lokailuak horiek erabili behar dituzten pertsonentzat. Pentsatu izan dugu orain artekoak —zaintza fisikoan oinarrituak, eta jakina, irribarrean, besarkadetan, zaintza arduratuan…— nahikoak zirela. Baina egia esan, nahiz eta oro har zaintzaileen lana bikaina izan, badago hobetzekorik.

Honetan adituagoak garenok urte batzuk dela hasi ginen entzuten beste zaintza mota bat posible zela; lokailurik gabea, euste fisiko zein psikikorik gabea. Hainbat erakundek uste dute beste modu bateko zaintza egiterik badagoela lokailuen zentzuzko erabilera batekin. Hori erakusten dute, esate baterako, Cuidados Dignos fundazioaren *Sujeciones 0* programak edo Confederación Española de Mayores elkartearen *Desatar al Ancianoa* programak.

Euste metodoak

Euste fisikoa eta kimikoa bereizi behar ditugu. Euste fisikoa da pertsonari mugikortasun osoa mugatzen dion edozein metodo, askatzeko erraztasunik eman gabe; erortzea edo jaikitzea saihestuko dioten besaulkiko edo oheetako lokailuak edo gurpildun jarlekura lotzeko txalekoak. Euste kimikoa, berriz, medikazio lasaigarrien erabilera da; erabiltzen da, batez ere, kontrolatzeko portaera deseroso bat berez ez duena inongo oinarririk diagnostikatutako desoreka psikiatriko baten.

Lokailuak erabiltzeko lau arrazoi azpimarra ditzakegu: erortzeko arriskua duten pertsonengan istripuak ekiditen dituzte. Pertsona horiei mugitzen uzten badiegu lesioren bat jasateko arriskua handia dela pentsatzen dugu, baina hori ez da egia Cuidados Dignos fundazioaren esperientziaren arabera. Bigarrenik, lokailuek orientazioa galtzeko arriskuan laguntzen du. Horri dagokionez ere aukera hobeak egon badaude; mugimendu detekzio sistemak edo eskumuturrekoak. Hirugarrenik, leku edo objektu arriskutsuetara hurbiltzea ekidin dezakete. Eta azkenik, norberarentzat edo beste pertsona batzuentzat arriskutsuak izan daitezkeen jarrera oldarkorrak saihesten dituzte. Hobe jarrerari errotik heltzea, eta konpontzen saiatzea medikazioarekin ezabatzea baino. Hurrengo atalean lokailuak kentzeko gako batzuk erakusten saiatuko gara, baita mendeko pertsonen zaintzaren alde bioetikoak zeintzuk diren azaltzen ere; horrela gure nagusiei zaintza duin eta atseginagoa emango diegulakoan gaude, zaintzaileari lan zama gehitu gabe. Zaintzeko beste era bat proposatzen duen filosofia da.

Egun erabiltzen ditugun lokailu batzuk. | ARIZMENDI IKASTOLAKO LANBIDE HEZIKETA

Lokailuen ondorio ezkorrak

Lokailuek independentzia fisiko eta mentalaren gradu gorena lortzea ekiditen dute eta autoestimuaren, autonomiaren, duintasunaren... galera dakarte. Aldakuntza fisikoak ekartzen dituzte; presio ultzera, infekzioak, inkontinentzia, gose falta, idorreria, giharren tonu galera... Beldurra, lotsa, haserrea, agresibitatea, bakartze soziala eta apatia ere ekar dezakete. Bestetik, medikamentu psikotropikoen erabilerak efektu kaltegarriak sor dezake; pentsamolde aldakuntzak, haluzinazioak, depresioa, oreka arazoak, zorabioak eta erorketak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK

KULTURA

Cristina Medina eta Joan Estrader Espaloian. | J.A

Polizia, nobelak idazten. | J.A

Lurrean ere antzezten. | J.A

Pertsonaietako bat interpretatzen. | J.A

Erritmo biziz eta adimenez betetako umorez, Elgeta barrez

- Pez en raya antzerki taldeak 'Llorar por llorar' ekarri zuen Elgetara
- Cristina Medina da ikuskizunaren egilea; baita aktoreetako bat ere

MIREN ARREGI | ELGETA

Llorar por llorar izena du egubakoitzean Pez en raya teatro taldeak eskaini zuen antzezlanak. Zalantzarik ez dago. Espaloian elkartu ziren ikusleek ez zuten negar egin egiteagatik; antzezlanaren azkartasunak, zorroztasunak, umoreak eta antzezleen grazia paregabeak negar malko ugari eragin zituen. Cristina Medina eta Joan Estrader eszenatokian; hamabost urteren ondoren, azken irratsaioa egitera doazen bi esatariren paperean. Bi aktore eszenatokian, baina pertsonaia ugari. Tartean *Señora Flecha,* polizi nobelak idazten dituen atso zahar zorrotza. Hura gonbidatu dute azken irratsaio honetara. Tartean zeuden baita ere hiltzaileak eta biktimak, rock zaleak, txinatar bat, maitaleak... Harritzekoa bi aktoreak atrezzo xumedun eszenatoki batekin egiteko gai direna! Aktoreak ere bikain. Biak bikain. Aho zabalik utzi gintuena, baina, Medina izan zen. Pertsonaia asko eta askotarikoak interpretatu zituen, guztiak ere bikain, eta bakoitzari bere ahots eta izatea emanez.

Hitz joko adimentsuak dira antzezlaneko testuaren oinarria. Ikus-entzuleari ez zaio atsedenik ematen. Broma bat bestearen atzetik; aurrekoaz barre egiteari oraindik utzi ez diozunean, hor dator hurrengoa! Erritmo bizian, azkar.

Ohikoak soilik ez

Espaloiko ohiko ikusleez gain, oraingoan gaztetxo asko ere joan zen emanaldia ikustera. *La que se avecina* telesaileko *Nines* ikustera joan ziren asko eta asko. Hark ez zien hutsik egin!

CRISTINA MEDINA | AKTOREA

"Telebistan ez bezala, antzerkian bakarrik zaude. Norbere esku dago dena"

Cadizkoa da Cristina Medina. Tele5eko *La que se avecina* telesaileko aktorea Elgetan ezaguna da dagoeneko; izan ere, ez da hara datorren lehen aldia.

Zer moduz Elgetan?

Espaloian beti hartu izan gaituzte ondo. Antolakuntzak bikain tratatzen gaitu eta gustura egoten garen toki bat da.

Ikuskizun berriarekin etorri zarete.

Bai, egiten dugun laugarren aldia da. Oraindik nolabait sortzen ari garen ikuskizun bat da. Eszenografia edo testuak ere probatzen ari gara. Gauza batek grazia egiten badu, aurrera, eta funtzionatzen ez badu, kendu egingo dugu eta kito.

Nazioartean ikuskizun asko egin ditu Pez en rayak. Ederra izango da...

Oso. Beti eskaini izan ditugu ikuskizunak kanpoan, bereziki Europan. Ingalaterrarekin beti izan dugu lotura berezi bat. Baina beste toki batzuetan ere izan gara; esaterako, *Tápate* ikuskizunarekin New Yorken izan ginen,

Cristina Medina Elgetan. | J.A

Sólala-rekin Shangain... Ederra da, sorkuntza propioak izanda, kanpoan egin ahal izatea. Pozgarria da beste toki batzuetan ere funtzionatzen dutela ikustea.

Ondo pasatzen duzuela dirudi.

Gurea absurdua denaz eta tontokeriez aritzea da. Oso ondo pasatzen dugu, guk barre ugari egiten dugu eta ederra da ikuslea algaraka ikustea. Betetzen gaituen zerbait da. Ofizio hau oso gogorra egiten da batzuetan; jai egunik ez, familiarekin egoteko denbora gutxi... Ondo pasatuko ez bagenu, akabo!

Eszenatokian bi zarete...

Bai, Joan Estrader eta ni neu. Zuzendaria David Sant da, gure espektakulu gehienetako zuzendaria. Oraingoan, baina, lagun izan dugu Gerard Florejachs. Hura telebistako gidoilaria da, Buenafuenteren hasierako bakarrizketak idazten zituen eta oso tipo ona da. Talde ederra egiten dugula uste dut. Barre ugari egiten dugu, behintzat; barre egiteari uzten diogunean utziko dugu hau. Guk ez badugu barrerik egiten, ikusleak ere ez, hori argi dago.

"Egiten dugunarekin jendea barrezka ikusteak bete egiten gaitu"

***La que se avecina* telesailean ere jarraitzen duzu.**

Bai, neska! Astean zehar telesaileko grabaketekin dihardut. Egubakoitza iristen da, eta antzezlana! Datorren asteburuan Kanarietara goaz, astean zehar berriz telesaila... Jota nago! Esan behar dut, baina, ekainetik urrira ezer egin gabe egongo naizela. Urtean zehar lan handia izaten dut, baina uda garaian tripaz gora egoten naiz.

Telebista eta antzerkia oso lan desberdinak omen dira.

Guztiz desberdinak. Antzerkian zuk zeuk ikusten duzu ikuslearen erreakzioa. Telebistan, egin egiten duzu, baina nik ez dakit zerk eragiten duen barrea eta zerk ez. Telebistan, gainera, jende mordoa dago kamera aurrean zein atzean, eta talde-lana da. Antzerkian norberak ematen du aurpegia, bakarrik zaude, gure esku dago gauzak ondo egitea.

Xabier Silveirak 'A las nueve en el Faisan' liburua aurkeztu zuen Bergaran

▸ Bertsoek hartu zuten protagonismoa aurkezpenean

▸ 35 lagun inguru izan ziren ekitaldian, Gaztetxean

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Xabier Silveirak *A las ocho en el Bule* bere lehen lanaren ostean, bigarrena kaleratu du, *A las nueve en el Faisan*. Lehen lanaren jarraipena izan da bere bigarren liburua eta horixe aurkezten izan zen egubakoitzean Bergarako gaztetxean.

Bertsoek hartu zuten protagonismoa ekitaldian, izan ere, Silveirarekin batera bi bertsolari izan ziren: Unai Gaztelumendi eta Aritz Etxeberria. Silveirak bere liburuko pasarteak irakurri zituen eta horien harira gaia jarri eta bertsoak bota zituzten Gaztelumendik eta Etxeberriak, bertan bildutako 35 lagun inguruaren aurrean. Jorratu zituzten gaien artean izan ziren, besteak beste, Euskal Herriak bizi duen egoera politiko berria eta haurtzaroko traumak.

Silveiraren bigarren lana

Silveiraren lehen liburua Donostian kokatzen zen eta koadrila bat zen protagonista. Euren egunerokotasunak kontatzen ziren lan horretan, horren jarraipena izan den *A las nueve en el Faisan* liburuan "inplikazio politikoak eragiten duen ezkutuko errepresio hori kontatzen du; buruko dudak, paranoiak, beldurrak...", kontatu digu Silveirak.

Gainera, idazlearendako oso esanguratsua den taberna baten dago inspiratuta: Behobiako Faisan tabernan. "Espainiako faxistek eman diote orain tabernari izena, baina nik ehunka aldiz gosaldu nuen han txikitan aitarekin. Nire koadrilako neska batek han egiten zuen lan zerbitzari moduan eta bertan zegoela atxilotu zuen polizia nazionalak. Urteak egon zen kartzelan eta niretzako oso leku adierazgarria da Faisan", esan digu Silveirak.

Liburua idazten lauzpabost hilabete pasa dituela ere azaldu digu Silveirak eta hauxe aitortu: "Aurretik bizitako 35 urteak bizi eta jasan gabe, ez nuke hitz bakar bat ere idatzi ahal izango".

A las nueve en el Faisan liburua ere gaztelaniaz izan da, lehenengoa bezala, eta aurreratu digu seguruenik hirugarren liburu bat ere egongo dela. Hirugarren eta azken liburu hori euskaraz izango dela ere azaldu digu Silveirak eta "naturala" ikusten duela bere lehen bi lanak gaztelaniaz izatea. "Kale borrokatik atxilotutako gazte askoren ibilbidea ere horrelakoxea izaten da; gaztelaniaz egin zuten egin zutena, gaztelaniaz bukatu zuten erbestean edo kartzelan eta euskarara itzuli dira".



Xabier Silveira bere azken lanarekin: *A las nueve en el Faisán*. | JOSETXO ARANTZABAL

Jarraitzaileak, The Crack taldea animatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

Mitikoak eta jatorrak

FITXA

MUSIKA

GOLPE DE ESTADO ETA THE CRACK

Estiloa: Punk oi! klasikoa.

Non: Oñatiko gaztelekuan.

Entzuleak: Goraino ez, baina polito bete zen aretoa.

Eguna: Egubakoitza, martxoak 2.

L.K. | OÑATI

Giro bikainaz eta talde mitiko baten gertutasunaz gozatu zuten egubakoitz gauean Oñatiko gaztelekuan batu ziren zaleek. Ingalaterrako The Crack talde beteranoak 80ko hamarkadako punk doinuak jo zituen. Ez zen euren kontzertu onena izango, baina akatsei ez zieten kasurik egin entzuleek; aitzitik, musikarien jarrera bikaina eta abesti ezagunak txalotu zituzten. Ez ziren falta izan *My world, I'll be there* edo *Don't let me down* kantuak. Entzuleek ere primeran babestu zuten taldea; aurreko ilarako jarraitzaileek, batez ere, dena eman zuten.

The Crack-en aurretik, Oñatiko Golpe de Estado hirukoa igo zen agertokira, betiko moduko gogotsu, batez ere *Txirli* taldeko *frontman*-a.

Manu Gallardo | Ozenki elkarteko presidentea

"Ahal bada, urtean bi opera egingo ditugu, eta 'Carmen' egitea aztertzen gabiltza"

'La Bohème'-ren arrakasta eta gero, zenbait proiektu badituzte Ozenki elkartekoek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ozenki elkarte lirikoko presidentea, Manu Gallardo, oso pozik dago *La Bohème* operak Arrasaten izan zuen harrerarekin: "Eskerrak ematen dizkiet lagundu diguten guztioi, eta ikusleoi".

Amaia antzokia bete egin zen La Bohème ikusteko. Pozik, ezta?

Bai, Ozenki elkartekook oso-oso pozik gaude. Jendeak zoragarri erantzun du: egunean bertan eta gero, zorion deiak, mezu elektronikoren bat... jaso ditugu. Opera eta gero, txalo eta guzti egin ziguten. Are gehiago: emanaldia eta gero, emakume batzuk etorri zitzaizkigun, Carmen operarako 50 sarrera erosi guran. Esan genien urrian egin behar zela, bai, baina horrek ez zuela esan gura Arrasatera ekarriko genuenik.

Nondik etorri zen gaizki-ulertua, bada?

La Bohème egin duen Opera 2001 produktorearen hurrengo proiektua delako *Carmen*, eta esku-orrietan eta operako azpitituluetan

Manu Gallardo. | GOIENA

urri-azaro bueltarako iragartzen zelako. Orain, jende asko dabil ea Arrasatera ekarri behar dugun galdetzen, eta aztertzen gabiltza; diru aldetik bere ondorioak ditu, baina gogoa baldin badago...

Urtean opera emanaldi bat antolatu gura duzue, ezta?

Bai; eta, ahal bada, urtean bi, udaberrian eta neguan. *Carmen* egitea baloratzen gabiltza. Dena dela, gure hurrengo helburua Arrasateko eta inguruko jendearekin proiekturen bat egitea da, Arrasate Musikaleko jendearekin, kantu taldeekin...

Laguntzaileak eskertu zenituen bereziki.

Bai. Arrasateko Udaleko Kultura zinegotzi Kepa Ugarteri eta teknikari Jon Garairi, eskerrik asko, proiektuan sinistu zutelako; Kutxari ere eskerrak eman gura dizkiot, batez ere Maite Irizarri eta Susaneri; Euskadiko Kutxari eta Larraitz Arabaolatzari; eta, bihotz-bihotzez, eskerrik asko Arrasate Musikali eta Maite Izagirreri, Arantzazuri eta Tere Gonzalezi. Eskerrak eman gura dizkiet ere etorri ziren guztioi, eta esan gura diet lanean jarraituko dugula urtean opera bat edo, ahal bada, bi ekartzeko Arrasatera.

Horrez gain, amari eskaini nion emanaldia. 84 urte ditu eta zertxobait makal dago, adin horrekin, baina autobusa hartu eta Eibartik etorri zen, oso animatuta.

Arrasaten eta inguruan musikazaletasuna badago, ezta?

Bai, izugarrizko zaletasuna; kulturaz eta, batez ere, kantuaz asko dakien zonaldea da. Opera ikusteko, Bilbora edo Donostiara joan beharra daukagu; baina oso herri gutxik duten benetako luxua dugu guk, zarzuela konpainia egonkorra dugulako, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa. Hori da herriko izarra eta beraz harro egon behar dugu.

Lotuta daude Arrasate eta Oñatiko Gaztemanietako lehen emanaldiak

- "Ahalegin handia" egin dute udalek eta Aldundiak Gaztemaniak egiteko
- Kanpoko talde batek eta herriko beste batek joko dute gau berean

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Arrasateko eta Oñatiko udalek parte hartzen dute aurten ere Gaztemaniak kontzertu programan. Horiekin batera, Donostia, Hondarribia eta Zarauzko udalak daude aurten programa horretan. Aurtengo edizioa zalantzan egon da, baina herri horiek eta Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzuak egindako "esfortzu garrantzitsuarekin", aurrera atera da.

Urtero hitzarmen bidez berritzen den Foru Aldundiaren zuzeneko musika egitaraua da Gaztemaniak. 20 eta 30 urte bitarteko entzuleendako proposamen minoritarioak, ausartak, ezohikoak eta esperimentalak eskaintzen ditu. Talde nagusi batek eta, telonero gisa, herriko talde gonbidatu batek jotzen dute.

Berritasun gisa, aurrerantzean, sarrerak aurrez Interneten erosi ahal izango dira, *www.kulturalive.com* atarian, hain zuzen.

Liverpool-eko The Cubical taldeak Arrasaten joko du. | JULIE NAGLESTAD

Udalak, 6.000 euro

Arrasateko Udalarendako, 6.000 euroko kostua dauka aurten Gaztemanietan parte hartzeak. Urtean bi kontzertu izango dira, eta lehenengoa zehaztuta dago: maiatzaren 11n, Liverpool-eko Cubical taldeak joko du. Herriko taldea zehaztu barik dago. Oñatin, lehenengo kontzertua apirilaren 20an izango da, eta AEBetako Iowa estatuko Radio Moscow taldea entzuteko aukera izango da gaztelekuan.

Arrasateko Kultura zinegotzi Kepa Urteagak Foru Aldundiak eta udalek Gaztemaniak "bertan behera ez geratzeko" egin duten ahalegin handia azpimarratu du, eta gaineratu du Arrasateri "kalitatezko musika jorratzen duten taldeak" entzuteko aukera ekartzen diola Gaztemaniak programak. "Talde alternatiboak izaten dira, gutxiengo batendako. Musika aldetik, barietatea ekartzen du, hemen jorratzen ez den musika bat entzuteko aukera".

Arrasaten joko duen The Cubical taldea Liverpool-eko soinu berriko talde onenetarikotzat dute adituek. Garaje soinua, psikodelia eta bluesa... horiek guztiak euren estiloko ezaugarriak dira, eta Tom Waits, Nick Cave, Bob Dylan edo Leonard Cohenen oinordekotza antzematen da euren musikan. Zuzenekoan oso onak direla esaten dute kritikoek.

Oñatin joko duen Radio Moscow AEBetatik dator, Iowako Story Citytik, eta blues psikodelikoa egiten dute horiek ere, eta 60ko eta 70eko blues rock taldeen ekarpenetik edaten dute, batez ere Cream, The Jimi Hendrix Experience eta Blue Cheer bezalako *power hirukoteen* estilotik. Joan den urrian kaleratu zuten hirugarren diskoa, *The Great Escape of Leslie Magnafuzz*.

Beste hiru kontzertu

Orain arte programatuta dauden kontzertuak hauek dira: martxoaren 23an, Zarauzko Lizardi antzokian, Jonathan Richman-ek joko du (Massachusetts, AEB), eta telonero gisa Zarauzko Unax Noga igoko da agertokira. Debagoieneko kontzertuak eta gero, Hondarribiko Psilocybenean Chicagoko bi taldek joko dute: Shellac eta Helen Money. Urrian, oraindik zehaztu bariko egunean, Psilocybenean,AEBetako Howlin Rain taldea izango da gonbidatua.

Antzerki-klown emanaldia, Kooltur Osteguneta

Datorren eguenean, martxoak 8, Que Parche Teatro taldeak *Soltarlo al aire* antzezlana egingo du Arrasateko gaztetxean, 22:00etan, Kooltur Osteguna ekimenaren barruan. Emakumearen Egunarekin zuzenean lotutako lana da. Joan den kurtsoan ere bilbotar eta argentinar bikote horrek osatutako antzerki-klown taldea izan zen Kooltur Osteguneta. Gerora, Ameriketako Estatu Batuetatik eta Hego Amerikatik barrena bira luzea egin dute.

Emakume zientzialarien gaineko erakusketa Kulturaten

Emakume zientzialariek –ingeniariek, arkitektoek eta asmatzaileek– egin duten lana hobeto ezagutzeko aukera izango da Arrasaten, Kulturateko klaustroan, martxoaren 12tik aurrera. XIX. mende bukaera eta XX. mende hasierako emakumeak dira protagonistak. Bisita ordutegia hauxe izango da: 17:30etik 20:30era. Bisita gidatuak egingo dituzte martxoaren 13an: 18:30ean gaztelaniaz eta 19:30ean euskaraz. Emakume Txokoak antolatu du.

Mariaren Lagundia
Ikastolan
Cambridge azterketak
egiteko aukera!

Herrian bertan eta merkeago

Informazio gehiago: www.mlagundia.net

• PET
• FIRST
• ADVANCED
• PROFICIENCY

Matrikula:
martxoaren 31ra arte.

Mariaren Lagundia
Ikastola
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net

kristau eskola

UNIVERSITY of CAMBRIDGE
ESOL Examinations
Authorised Centre

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL
Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

GURE ARTISTAK

GORA GORA KIDS

Gora Gora Kids taldea, kontzertuan. | GORA GORA KIDS

"Beldurrezko filmen estetika dauka diskoak; hortik dator 'Horror Songs' izena"

- Gora Gora Kids taldeak *Horror Songs* izeneko binilozko disko berria atera du
- Garage-rock eta surf estiloak landu dituzte 4 abesti berritan

MIREN ARREGI | OÑATI

Gora Gora Kids taldeko bateria jotzailea da Arkaitz Villar oñatiarra. Beste hiru taldekideak Donostia, Irulea eta Andoaingoak dira, baina, tartean oñatiar bat izateak aitzakia ezin hobea eman digu atera berri duten *Horror Songs* diskoaren gainean berba egiteko.

Binilozko disko berria aurkeztu duzue asteon. Zergatik biniloa?

Kapritxo bat da. Gustatzen zaigun euskarri bat da, nik neuk biniloak erosten ditut batzuetan eta Xabik, gure gitarristak bilduma eder bat ere badu. Gustatzen zaigun formatu bat da, kapritxo bat.

Entzule gutxiagorengana helduko zarete, ordea...

Badakigu ez dela batere komertziala. Guretzat egin dugu, gutizia bat da. Masiboki entzuten ez den formatua bada ere, badu bere zirkuitua eta geroz eta talde gehiagok ateratzen du biniloan.

Ondo pasatzea izan da beti zuen helburua.

Guretzat hau guztia denbora pasa bat da. Beti izan gara musikazaleak eta orain dugu aukera musika egiten saiatzeko. Ez gara musikari profesionalak, baina ondo pasatzen dugu.

Zer esango zenuke diskoaz?

Oso naturala da diskoa. B Serieko filmen edo fanzine kulturaren eragina du. Bat-batekotasuna gustatzen zaigu; ez dugu mezurik helarazi gura. Oso abesti motzak dira, letra gutxikoak, eta gauza oso bat-bateko eta gaineko bat egitea da asmoa, mezu transzendental barikoa.

Surf, garage doinuak... *Uaouh, Miauh & Yeah!* zuen aurreko diskoaren joera berdina du?

Garagera jo dugu gehiago. Rock and roll klasikoaren egiturak erabili ditugu. Abesti motzak dira, konplikazio barikoak. Hori da bilatzen eta gustatzen zaiguna. Gainera, hori da jotzen dakigun bakarra.

4 abesti berri dira. Letrak umorezkoak?

B Serieko pelikulak, zombi kontuak, mamuak, komikietako eragina ere badago, gu kontsumitzaileak garen aldetik. Hori da letra aldetik ateratzen zaiguna.

Horregatik Horror Songs izenburua.

Beldurrezko filmen estetika dauka eta hortik abestien izenburuak ere. *Zonbidantza*, *Mamuaren Jauregian*, *Yuri Gagarin*... Beldurrezko, zientzia fikziozko filmak... Hori da estetika.

Abesti guztiak dira zuenak?

Aurreko diskoan bertsioak ere sartu genituen baina oraingoan abesti guztiak guk sortu ditugu.

Taldekide bakoitzak estilo propioa omen du. Mesede ala kalte egiten dio horrek taldeari?

Mesede egiten diola esango nuke. Aberastasuna ematen dio. Gure soinua ez dago guztiz definituta, ez gara musikari onak eta ez dakigu musika egiten. Esango nuke taldekide bakoitzak bere estiloa edukitzeak aberastu egiten duela taldea, abesti bat monotonoa izan daiteke eta beste bat dibertigarria, taldekide bakoitzak bere ekarpena egiten duelako.Gu gure artean oso desberdinak gara eta horrek on egiten dio taldeari.

Diskoak grabatzeak badu garrantzia zuendako?

Belaunaldi kontua dela esango nuke. Gu 1970eko hamarkadakoak gara, eta esango nuke gure belaunaldian badagoela CD edo biniloak ateratzeko joera bat. Gaur egungo talde gazteek ere grabatzen dituzte, noski, mp3 eta halako formatuetan baina, CD edo binilo baten argitaratzearena bai da gure belaunaldiko kontua.

Kontzertuak dira helburua?

Helburua jendea mugiaraztea da. Zuzenekoari begira egindako diskoa da. Hemendik udara bitartean kontzertu mordo bat egingo ditugu. Mutrikun Sharon Stonerrekin joko dugu. Beasainen eta Gasteizen ere egingo ditugu kontzertuak, Oñatin, Iruñean, Tolosan... Gure helburua kontzertuak ematea da.

Dagoeneko kalean dago... Zer esan dizuete zaleek?

Kontzertuetan oso harrera ona egiten digute. Abesti sinpleak izanik, jendea harritu egiten da. Diskoa entzuten duten lagunek ezer esaten ez dizutenean badakizu ez zaiela gustatu. Dena den, guretzat hau denbora pasa bat da eta zuzenekora begira gaude. Horren musika sinplea izanda desberdina izatea lortzen dugu. Pentsa, bataiatu gaituzte talde txarrenetan onena bezala! Gu gustura gaude egin dugunarekin.

"Biniloan ateratzea kapritxo bat izan da"

"Rock and roll klasikoaren egiturak erabili ditugu"

"B Serieko pelikulen eta fanzineen eragina du"

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Atxondo. 200 m2-ko txaleta salgai. Sukaldea, bi egongela, lau logela, hiru bainugela (bata logela baten barruan),trastelekua. Altzairuz hornitua. Berogailua,zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m2-ko terrenoa. Prezioa: 900.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 615-70 12 23.

Berriz. Pisua salgai herri erdian.71 m2: egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta ganbara. Bi horma-armairu, berriztua eta eguzkitsua. Aurrealde margotu berria, eta komunitateko gasturik gabe. 193.000 euro. 679-86 17 30.

Berriz. Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m2. Oso kokapen ona. Guztiz jantzita dago. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki bategaz). Berogailua zoru irradiatzailea da. Oso eguzkitsua da. Harremanetan jartzeko, deitu: 607-52 24 26.

Bolibar. Etxe zaharra salgai bolibarren. 34 m2 x 3. Teilatu berria eta proiektuagaz. 3 gela eta 40 m2ko terraza. 150.000 euro. Harremanetan jartzeko, deitu: 660-35 80 67.

Durango. Pisua salgai Muruetatorren. 90 m2. Sukaldea eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma- armairuak..) eta jantzia. Eguzkitsua, bista eta kokapen ederrekoa. Ganbara eta garajea. Harremanetan jartzeko, deitu: 686-13 89 09.

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldea-jangela, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m2 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz betea eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, ateak eta zorua aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 655-70 46 84.

Elorrio. Salgai estreinatzear dagoen 162 m2-ko terraza duen atikoa (73 m2). 2 logela, egongela bat, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea!. Tel.: 615-75 59 85 (goizez) eta 636-22 49 02 (arratsaldez).

Eskoriatza. Duplexa salgai, 120 metrokoa. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. Harremanetan jartzeko, deitu: 679-16 24 96.

Eskoriatza. Apartamentua salgai gaztanadui kalean. Aukera paregabea. Berri- berria, eguzkitsua eta oso erosoa. Interesatuok deitu telefono hauetara: 653-71 53 58 / 943 -03 89 49.

Gasteiz. 57 m2, egoera onean, kalefakzioa eta ura elektrikoak dira, hegoaldera begira, 1. solairua, 5 ate pisu bakoitzeko, igogailua, eraikinak 20 eta 30 urte bitartean ditu, 2 logela, 2 komun (biak bainerarekin), sukaldea (garbigailua, mikroondasa, etab.), balkoia, moketa logeletan, parketa egongelan eta baldosak gainontzekoan, banakako garajea, itxia, eskiak gordetzeko tokia, piszina eta belardia urbanizazioaren barnean, aurrean plaza bat dauka, kolunpioekin etab. orain dela urte bat hormak margotu ziren eta zorua aldatu zen, altzariekin. 665-75 78 07. marian.formigal@ gmail.com.

Iurreta. Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 78.000 euro. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 685 -72 80 42.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699-78 47 49.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 675-71 72 83.

Soraluze. Etxebizitza salgai. Hiru logelakoa. Terraza handiarekin. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 608-57 37 50.

Sakana. 64 m2 eta bajerak 50 m2. Interesatuek hots egin dezatela. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 639-77 91 30.

103. EROSI

Durango. Baserri bifamiliar osoa erreformatzen dizut, baserri erdiaren truke, durangaldean. Beste proposamenen bat badaukazu, kontutan hartuko dut. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 618 -93 62 14.

103. ERRENTAN EMAN

Abadiño. Pisua alokatzeko AbadiÒo-Zelaietan.72 m2 karratu. 3. Solairua igogailu barik. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 946 -81 87 20 (iluntzean deitu).

Altsasu. Intxaurrondo kalean. 3 gela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Interesatuek deitu 630- 22 13 41 telefonora.

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Durana kalean. Hiru logela, sukalde-egongela eta komuna. Harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 658 70 44 62,

Aretxabaleta. Mitarte 8an etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelakoa. Terraza handiarekin. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 649 06 20 89

Bergara. 90 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi plazako garaje itxiarekin. Deitu 618 62 79 89 edo 663 86 11 37 telefono zenbakietara.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Harremanetan jartzeko, deitu: 618-90 23 66.

Elorrio. Apartamentua alokagai herri erdian. Sukalde-egongela, logela bat, bainugela. Altzariz hornitua, kalefakzioa-gasa. Harremanetan jartzeko, deitu: 94-682 04 38 (gauez).

Eskoriatza. Baserria ematen da errentan. Guztiz eraberritua. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 605 -77 51 65.

Eskoriatza. Apartamentua errentan edo salgai erdigunean. Jantzia. Eraikin berria. Harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 670-78 17 59.

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da kale zaharrean. Hiru logela. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 656-00 84 92.

Oñati. Kurtzebide 1c atartean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Igogailuarekin. Etxe berria. Jantzia. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 615-73 29 83.

Olazti. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Harremanetan jartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: 620- 90 60 95 telefonora.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. Harremanetan jartzeko, deitu: 685-42 72 80.

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Bi logelakoa. Harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 610-99 70 46.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. Balkoi edo terrazaduna, nahiago. Hilean 600 euro ordain ditzaket. Andrea. 617-28 08 07.

Donostia. Donostian umerik gabeko bikote bat alokera pisu billa gabiltza. Gros, egia, intxaurrondo zaharra, ategorrietan. belarrak@hotmail.com

Durango. Mutil gaztea pisu konpartitu batean logela bila. Durangon edo Iurretan. Deitu lasai. 658-42 86 12 edo 658 -71 16 42 (Malick/Iñaki).

Elorrio. Alokatzeko pisu bila nabil Elorrion. Altzariekin. Deitu 94-658 21 91 zenbakira.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Pertsona bat behar da 4 gela eta 2 bainu gelako pixua osatzeko, etxea oso eguzkitzua da,oso ondo dago eta 3 langile bizi dira bertan. Deitu 653-71 44 57 telefonora.

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Harremanetan jartzeko, deitu: 630-71 35 83.

Arrasate. Pertsona bat behar da erguin aldean etxebizitza osatzeko. Ignacio. 670-59 73 62.

Bergara. Logela ematen da errentan pertsona bakar edo bikotearentzat. Deitu 699-09 46 26 telefonora.

Berriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatzeko eta leku paregabean. Aukeran, nahiago emakumea. Harremanetan jartzeko: 619-66 58 57.

Berriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatzeko eta leku paregabean. Aukeran, nahiago emakumea. 619-66 58 57.

Berriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatzeko eta leku paregabean. Aukeran, nahiago emakumea. 619-66 58 57.

Durango. Logela bat alokagai Durangon. Harremanetan jartzeko, deitu: 630-76 18 28.

Iurreta. Pisu batetan logela alokagai, Iurretan, neska euskaldun batentzat. 200 euro. Tel.: 633-23 38 48.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 15 m2ko garaje itxia salgai Ozaetan. Prezio negoziagarria. 655-72 63 13, 943-76 50 71.

Berriz. Garaje itxia salgai. 42 m2. Ate automatikoagaz. Ura eta argiaren instalazioak, iaztik. Komuna eta bodega txiki bat. 2-3 kotxe. Txokoa sukaldeagaz. Tel.: 615-75 21 36.

Berriz. Berrizen, Learreta-Markina kalean garajea salgai. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m2. 663 -39 75 88.

Durango. Garajea salgai. Montorretan, Simply supermerkatuaren ondoan. 2 lerro, autokarabana sartzeko toki aproposa. 652-76 81 31.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. Tel.: 660-45 87 56.

Otxandio. Garaje itxia salgai Otxandion, pertsianarekin. 675 -71 72 83.

204. ERRENTAN HARTU

Durango. Kotxe partzela alokagai askatasun etorbidea 11n. Harremanetan jartzeko: 94-681 39 32.

Durango. Garaje itxia alokairuan Sasikoa inguruan. 75 euro. 688-80 70 92

Durango. Garajea alokairuan Durangon. 50 euro hilean. 675 -71 95 54.

Oñati. Garaje bat errentan hartuko nuke OÒatiko Bidebarrieta kalean. 626-59 91 86.

3. LOKALAK

302. EROSI

Bergara. Lokal bila gabiltza San Lorentzo edo Matxiategi kaleetan. 50 metro koadrotik gorakoa. 654 35 50 16

303. ERRENTAN EMAN

ARRASATE
Taberna ematen da errentan erdigunean. Guztiz berritua.
671 42 54 32

4. LANA

402. ESKAERAK

Abadiño. Persona nagusien zaintzarako, garbiketarako edo umeen zaintzarako lan bila. Orduka, gauez edo asteburuetan. Sukaldatu, plantxa egin,.. Ospitaletan, garbiketan eta nagusien zaintzan esperientzia. 696-75 35 30.

Abadiño. Umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako eskaintzen dut neure burua. 697-25 87 24.

Arrasate. 53 urteko bertako emakumea edozein lan egiteko gertu: umeak zaindu, etxekolanak egin, pertsona nagusiak zaindu eta abar. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa edo etxeko garbitasunak egiteko. 699-54 17 27.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa edo etxeko garbitasunak egiteko. Deitu 699 54 17 27 telefonora.

Arrasate. Eskarmentudun gidaria lanerako gertu. B, D, D1 eta BTP baimenak ditut. Mudantzatan laguntzen ere bai. Nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko gertu. Gurutze Gorriaren titulua daukat. 698 59 37 57

Arrasate. 53 urteko bertako emakumea edozein lan egiteko gertu: umeak zaindu, etxekolanak egin, pertsona nagusiak zaindu eta abar. Deitu 943-79 60 89 telefonora.

Arrasate. Neska gertu ospitalean gauak egiteko, garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko. Egoitzatan eskarmentua dut. 693 40 88 86

Bergara. Goizez lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten. Deitu 680 77 06 46 telefonora.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
• Artekale 70 m². 2 logela. Berogailuarekin. 123.707€.
• Justo Garate Plaza. 80 m2. 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
• Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berriztua. 144.243€.
• Simon Arrieta 90 m². 3 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin.
• Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
• Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395€.
• Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailua eta berogailuarekin. Prezio ona.
• San Lorenzo 67 m². Garajearekin.
• Zubiaurre 51 m². 102.000€.
• Herri Lagunak 60 m². 2 logela. Oso ondo. 160.771€.
• Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000€.
• San Pedro 65 m². 2 logela. Erabat berriztuta. Ganbararekin. 122.606€.
• Burdiñate. 104 m². Garajearekin. Oso prezio ona.
• Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
• Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona
• Ibargarai 74 m². Igogailua eta garajearekin.
• Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
• Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailua eta garajearekin.
• Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
• Zubiaurre 82 m². Igogailua eta berogailuarekin. 150.253€.
• Zubieta 240 m², ortuarekin.
• Lorentxokon pisuak estrenatzeko. PREZIO BEHERAPEN HAUNDIAREKIN!
• Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000€.
• Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1,2,3 eta 4 logela. Aukera ona.
• Masterreka 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
• Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.

Antzuola:
• Baserria 200 m². 3 logela. Berria. Garajea. Lur sailarekin.
• Baserria 200 m². 3 logela. Berria. Garajea. Lur sailarekin.
• Buztinzurin apartamendua estrenatzeko. Aukera ona.
• Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

Soraluze:
Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Elgeta:
• Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.

ARRASATE
Zerbitzariak behar dira jatetxerako.
Asteburuetarako eta astegunetarako.
Euskara, autoa eta esperientzia baloratuko dira.
Bidali argazkidun curriculuma:
zerbitzariak@hotmail.es

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaindu eta etxeko garbiketak egiteko. Eskarmentu handikoa. Deitu telefono honetara: 696-84 19 51.

Debagoiena. Nagusiak zaiduko nituzke. Legezko papereak eta gidatzeko baimena dauzkat. Eskarmentu eta erreferentzia onak. 603-14 59 17.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke: nagusiak zaintzen edo denetariko garbiketa lanetan. 699-09 46 26.

Debagoiena. Etxeko lanak eta garbitasunak egingo nituzke. 646-10 21 66.

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu plantxa edo etxe zein bestelako garbiketak egiteko, orduka. 680-49 11 45.

Debagoiena. Emakume arduratsua lan bila etxeak, atariak eta tabernak garbitzeko. Ume eta nagusiak zaintzeko ere bai. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 615-06 28 04.

Debagoiena. Neska gertu sukaldari edo garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 619-78 63 41.

Debagoiena. Tradiziozko sukaldari morokoarra jatetxe edota jaialdi pribatuetan lan egiteko eskaintzen da, ordu edota egunak. 672-74 67 69 Said.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, lantegietan zama lanak egiateko edota garbiketa lanetan jarduteko. 685-42 72 80.

Debagoiena. Neska arduratsua umeak zaintzeko, nagusiak zaintzeko eta paseatzera ateratzeko eta garbitasun lanak egiteko gertu. 943-71 53 74, 695-73 87 95.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizi izaten ere. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin. Baserrietan ere bai. 669-10 13 94.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. 638-59 04 71.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943-71 53 74 / 695 -73 87 95.

Debagoiena. Neska euskalduna eta esperientziaduna goizetan haurrak zaintzeko prest. 685-76 91 11.

Debagoiena. Esperientziadun emakumezko batek, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzte. Maite. Deitu 650-17 74 87 edo 943-76 48 26 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Garbiketak egiten, nagusi zein umeak zaintzen edo sukaldari lanetan jardungo nuke. Elikagaiak erabiltzeko agiria daukat. Roxana. Deitu 634-40 64 65 telefonora.

Debagoiena. Lan egingo nuke elkarte, etxe, atari eta abarrak garbitzen. Baita nagusiak zaintzen ere. Deitu 678-80 96 01 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu lanerako nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, egun osoz, asteburu, gau zein etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia onak. Berehala hasteko moduan. 638 -93 11 48.

Debagoiena. Erizaintza laguntzaile tituludun bikotea, baserrietan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bertan bizitzeko aukera. Deitu telefono zenbaki honetara: 697-35 62 49.

Debagoiena. Umeak zaintzeko gertu nago. Aisialdiko hezitzailea naiz. Brigitte. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 664-51 64 98.

Debagoiena. Erizaintzako laguntzaile tituludun gizon esperientziduna, pertsona nagusiak atenditzeko prest, baita ospitaletan gauak pasatzeko ere. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 697-35 62 49.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Legezko paperak ditut. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 638-59 04 71.

Debagoiena. Elgeta, Bergara edo Arrasate. Emakume euskalduna gertu lanerako. Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara: 606-50 02 67.

Debagoiena. Neska euskalduna edozein lanerako gertu. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 673 -41 99 69.

Debagoiena. Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Informeak ditut. Disponibilitate osoa. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 671 -35 22 60.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 680-95 65 57.

Debagoiena. Mutila gertu sukalde laguntzaile edo sukaldari bezala lan egiteko. Baita garbiketak egiteko ere. Sukaldean 8 urteko eskarmentua. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 634 -41 90 51.

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari lanak egiteko, eta garbiketa edo bestelakoetan jarduteko. 671-84 71 71.

Debagoiena. 25 urteko gaztea arotz lanak edo margoketa lanak egiteko prest. Prezio ekonomikoak 603-61 61 38.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Interna edo externa. Lanaldi osoa. Erreferentziak eta esperientzia. 637-14 62 42.

Durango. Neska gaztea, zerbitzari lanak egiteko eskaintzen da, lan-erdi, lan oso edota asteburuetarako, esperientziaduna. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 615 -71 62 32.

Durango. Bulegoen, etxeen, portalen.. garbiketerako edo nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, aukeran goizez, astelehenetik zapatu eguerdira. Esperientzia. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 676-54 66 91 (Lola).

Durango. Durangoko emakumea orduka etxeko lanak egiteko prest, informeekin. Deitu 94-466 89 26 edo 688-65 90 90 telefono zenbakietara.

Durango. Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 675-70 32 61.

Durango. Garbiketan zein ume edo nagusien zaintzan lan bila. Lanaldi osoan, orduka edota asteburuan. Esperientzia eta erreferentziak. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 618-35 37 18.

Durango. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanetarako eta sukalde lanetarako ere. Deitu 94-466 82 12 edo 653 -33 06 05 telefono zenbakietara. Genevive.

Durangaldea. Emakume arduratsua umeen edo nagusien zaintzan edota garbiketa lanetarako prest. Interna, externa edo orduka. Erreferentziak eta esperientzia. 659-73 92 65.

Durangaldea. Goizez, arratsaldez zein gauez lan egiteko prest. Garbiketa lanetarako edota gauez pertsona nagusiak zaintzeko. 690-68 73 95.

Durangaldea . Interna edo orduka umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko lan bila. Tel.: 646-20 72 71.

Durangaldea. Nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Esperientzia eta erreferentziekin. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:30ak arte. 633 -03 86 09.

Durangaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. 14:00etatik 20:00etara. Esperientzia eta erreferentziak. 638-43 79 01.

Durangaldea. Interna edo orduka lan bila dabilen neska. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketa lanetarako. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia. 689-98 72 06.

Durangaldea. Nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketan lan bila. Interna, externa, orduka edota asteburuetan. Erreferentziak eta esperientzia. 659-73 92 65 edo 697-12 64 38.

Durangaldea. Asteburuetarako lan bila. Garbiketan, umeen edo nagusien zaintzan. Esperientzia eta erreferentziak. 697 -12 64 38.

Durangaldea. Emakume arduratsua nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketan lan bila. Interna, externa, orduka edota asteburuetan. Erreferentziak eta esperientzia. 680-29 66 76

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Klase partikularrak emateko prest ere bai. 646-53 83 90.

Durango. Pertsona nagusien zaintzan, garbiketan, segurtasunean, lorezaintzan, okintzan, gurdi-garraiolari,.. Lan bila. Tel.: 622-47 39 41. Julian.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna edo externa. Tel.: 683-47 28 05.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna. 632-11 77 23.

Durango. Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketa, ospitaletako edo etxeko zaintzak,.. Jardunaldi osoa edo erdia, gauez, orduka,.. Esperientzia. 690-68 73 95.

Durango. Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxeen edo portalen garbiketa, ospitaletako edo etxeko zaintzak,.. 16:00etatik 20:00etara. Esperientzia. 646-92 52 15.

Durango. Nagusien, umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Jardunaldi osorako, asteburuetan,.. Erreferentziak eta esperientzia. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 681-21 82 30.

Durango. Nagusien zein umeen zaintzan edo garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 619-15 58 04.

Durango. Nagusien zaintzan interna modura lan bila. Esperientzia alzheimerdun eta dementziadun nagusien zaintzan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 630-25 32 25.

Durango. Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketan aritzeko lan bila. Interna, externa edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 603-95 41 94.

Durango. Pertsona nagusien zaintzarako lan bila. Interna modura. Esperientzia. 632-86 92 82.

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. 678-80 96 01.

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 603 -07 13 83.

Durango. Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketetan lan bila. 09:00etatik 13:00etara. Esperientzia. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 633-03 86 09.

Durango. Nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketan lan bila. Lanaldi osorako, erdirako edo gauetarako. Erreferentzia onak. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 650 -61 01 94. Rosa.

Durango. Umeak zaintzeko edo partikularrak emateko prest. Magisteritzan diplomatua. Ingeleseko eta euskerazko titulazioekin. Esperientzia. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 657-77 61 71.

Durango. Irakasle euskalduna klase partikularrak emateko prest; lehen hezkuntza zein DBH. Tel.: 653-70 20 49.

Iurreta. Pertsona nagusiak zein gaixo daudenak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Tel.: 699-74 57 23. Ines.

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Esperientziaduna lan bila. Neska euskalduna naiz. Esperientzia daukat ostalaritzan, ume zaintzan eta etxeko lana egiten. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 72 72 86

Durango. Erizaintzako ikasle euskalduna LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. Interesatuak: 685-73 70 15 (Ane).

6. MOTORRA

601. SALDU

Fiat punto salgai. Fiat punto salgai. 2007. Urtekoa. 48.425 km. 8.000euro. Tel.: 665-74 56 03.

Smart kotxea salgai. Smart fortwo coupe passion salgai. 62zp. 48.000 km. la berria eta oso egoera onean. Tel.: 676-61 71 54 edo 676-98 33 06.

125eko motorra salgai. Yamaha ybr 125 salgai. Kotxeko karnetagaz eraman ahal da, 10.000 km eta egoera ezin hobean dago. Deitu eta probatu. Tel.: 676-90 01 05.

Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2009 urtekoa. 6 plazakoa. Egoera onean. Tel.: 652-76 81 31.

Autokarabana salgai. Autokarabana Benimar sport 310 salgai.50.000 km. Hiru urtekoa eta 6 pertsonentzako lekua. Ekipamendu osoa eta oso ondo zaindua. 31.000 euro. Tel.: 676 -61 71 54 edo 676-98 33 06.

Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2002. urtekoa. 100.000 km. 21.000 euro. 607-86 32 24.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahuntzumeak salgai. Ahuntzume bi saltzen dira Mallabiko elgetzu baserrian. 606-70 91 18.

Ahuntzumeak salgai. Hauntzumak haurdun. Azpizuri eta azpigorria. Mugikorra: 688-60 95 60. Tel.: 94-466 81 37

Ardiak salgai. Haurdun dauden ardiak salgai. Gorbeiako larrean ibilitakoak. Tel.: 94-631 71 17 edo 690-73 27 01. Cecilio.

Artzai txakurra salgai. 3-4 urteko euskal artzai txakur mantsoa salgai. 692-81 90 35. Amaia

Asto arra. 3 urteko asto arra salgai debagoienan. Beltza da eta mantsoa da. Prezio negoziagarria. 655-71 39 27.

Astoak. Zazpi asto gazte, emeak, salgai. 635-73 35 15.

Setter txakurkume ehiztariak salgai. Setter txakurkume ehiztariak salgai. 150 euro. Telefonoa: 695-71 00 68.

Txakurkumeak. Malinois Belgiar artzai txakur kumeak salgai. 667-74 65 27.

Txakurrak salgai. Urtarrilaren 17an jaiotako Pitbull kumeak salgai. Arrak eta emeak ditut. Beltzak batzuk eta besteak tigreitxurakoak. Gurasoak ondo hezitakoak, jatorrak eta mantzoak. 688-69 87 56.

703. EMAN

Spaniel breton txakurra. Emea. Usaimen oso onekoa. Bi urte dauzka. Txerto, txip eta paper guztiak dauzka. Diana izenekoa. Zuri beltza. Leku faltagatik ematen dugu. 945-44 54 62 / 651-94 96 72.

Txakurkumeak opari. Azaroan jaiotako txakurkumak oparitu nahi ditut. Ama labradora da. Txakur bat, marroia, arra da. Eta bestea, beltza, emea. Tel.: 638-98 59 30

Txakurkumeak opari. Hilabeteko txakurkuma elegantiak opari. 690-79 78 00.

Txakurra erdi opari. Mastin arrazako txakurra erdi oparitzen da. 4 urte, arra. Oso esanekoa, ona. Tel.: 616-91 90 61.

8. DENETARIK

801. SALDU

Abadiño. Lursaila salgai matienan (Abadiño), Arzubia kalean, 2.000 m2, erreka ondoan eta bide ertzean. Aproposa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minitutara oinez. 658-75 65 12.

Agria motokultorea salgai. Agria 2700 motokultorea salgai. Diesela. 94-682 45 90. Luis.

Baxua eta anplifikagailua. OLP Musicman baxua (4 soka) eta Peavey TKO 115s (80 watt) anplia. 350 euro dena. Deitu 656 41 00 35 telefono zenbakria. Aitor.

Bergara. 16.000 metro koadroko lursaila salgai, 30 urteko pinuekin. Automobilez bertara iristeko modukoa. Deitu653-71 66 87 telefonora.

Bergara. Lursaila eta borda txikia salgai. Gorla inguruan. Arbolartea. 655-91 87 17.

Bernedo. Lursail eraikigarria Urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. 665-75 78 07 (Ana)

Compaq ordenagailua salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarria. Deitu telefono zenbaki hauetara: 662 58 52 29 edo 943 20 81 17.

DVDa. LG DVD berria salgai. Prezio interesgarria. Deitu 943 77 00 26 zenbakira.

Egongelarako aulkiak salgai. Zure egongelarako zoragarriak diren 5 aulki saltzen dira. Oso egoera onean eta prezio ezin hobean: 60 euro bostak. Tel.: 615-72 62 52.

Eskiatzeko materiala. 10-12 urteko umearendako praka, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai, 1,25 neurrikoa, lokailuekin. Deitu 656-78 64 64 telefono zenbakira.

Esnea ateratzeko gailua salgai. Esnea ateratzeko gailua salgai, medela swing markakoa, merkatuko onena. Egoera onenean. Automatikoa. Honekin batera avent markako esnea ateratzeko gailu manuala oparitzen da. 60 euro. Deitu 607-86 32 24 telefonora.

Gimnasiorako bonoa. Gimnasiorako bonoa saltzen da arrasaten. 18 hilabeterako. Egunero joan dezakezu astelehenetik larunbatera, eta edozein klasera. 336 euro. 607-06 22 20, anunciointer@yahoo.es

Gitarra elektroakustiko berria salgai. Tanglewood model premier Twissas. 1012929 seriekoa. Deitu 620 64 96 37 telefono zenbakira.

Isolatzailea salgai. Isolatzailea (kortxo beltza) salgai elorrion. Teilatuak, paretak eta lurra aislatzeko balio du. Prezioa negoziagarria da, eroandako kopuruaren arabera. Deitu 661-82 93 59 telefonora.

Lasterka egiteko zinta salgai. Lasterka egiteko zinta salgai. Pro-form 360 pultsazio. 400 euro (negoziagarriak). Tel.: 688-64 05 05.

Mahaiak eta aulkiak salgai. Egurrezko lau mahai eta aulkiak salgai. Txoko baterako egokiak. Tel.: 695-76 84 21.

Monty 202 kamel bizikleta salgai. Pedalik ez duten bizikleta horietakoa da. Bizikleta gainean oreka izaten di-da batean ikasten dute umeek eta bizikleta hau erabilita, ez dago ondorengo bizikletan gurpil txikirik erabili beharrik. Urte bateko erabilpena du eta oso egoera onean dago. 615-79 51 85. agonirena@gmail.com.

Mountain bike-a salgai. Mountain bike horia salgai. 3 plato eta 8 pinoi. 6tik 10era urteko ume batentzat. 75 euro. Tel.: 94-682 07 67 (Igor).

Piano elektrikoa salgai. Yamaha Clavinova CLP 150 piano elektrikoa salgai. Kontaktua: 650-17 22 85 edo stratokaster@gmail.com

PSP Go kontsola salgai. Berria. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu 943 77 00 26 telefono zenbakira.

Puf-ak. Ohea egiten diren bi puf-a salgai. Oheko neurriak 80*190 dira. Jasota daudenean, kubo forma dute. 943-79 39 35.

Trabesiako botak. Trabesiako eski botak salgai. Dynafit zzero3 modeloa, 28 neurria (43), laranja kolorekoa. 2 urte pasatxo. 160 euro. Deitu 670-48 91 49 telefonora..

Umea eramateko motxila. Vaude Jolly Light umea eramateko mendiko motxila salgai. Estreinatzeko, etiketa eta guzti. 100 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 94-603 25 02.

802. EROSI

Akordeoi kromatikoa. Bigarren eskuko akordeoi kromatikoa erosiko nuke. 120 bajukoa (botoiduna). Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 639 15 40 48

Lursaila. Lursaila erosiko nuke Bergara edo inguruko herrietan. 5.000 euro inguru ordaintzeko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 669 17 09 51

Sevillana soinekoa. Sevillana soineko bat erosiko nuke, hau probatzeko aukera izanda. Bidali argazki eta prezioa mesedez: alazne.pst@gmail.com.

Soinu txikia erosi. Soinu txiki bat erosiko nuke. Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara: 650-72 27 47

Zilarra erosten dut. Zilarrezko gauzak erosten ditut: txanponak, etxeko kuberteria eta abar. Harremanetan jartzeko, deitu: 657-70 43 16. numipega@gmail.com.

803. EMAN

Bidali zure ordenagailua Boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviako eskoletara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Boliviako bigarren mailako eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

806. GALDU

Argazki kamera Gorbeian. Otsailaren 18an, zapatua, Gorbeia menditik jaistean argazki kamera digitala galdu nuen. Argazki garrantzitsuak nituen. : 686-65 98 08.

Belarritakoa. Aretxabaletako Errekabarren eta Durana kaleen artean galdu nuen urrezko belarritakoa otsailaren 13an. Sarituko da. Interesatuok deitu telefono honetara: 628 89 30 68

Betaurreko graduatuak. Aretxabaletan galdu nituen, Aratuste-domekan. Aurkitu dituenak dei egin dezala, mesedez. 628 69 93 82

Eraztuna Bergaran. Ezkontza eraztuna galdu dut. Bi eraztun dira batean, soldatuta. Deitu 646 05 62 62 telefonora.

Kirol praka Bergaran. Kirol praka beltza, berria, galdu nuen Matxiategiko 30 eta 32 atarteen artean, otsail hasieran. Aurkitu baduzu deitu mesedez. Mesedez norbaitek aurkitu badu dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 76 41 31

Nintendoa Aretxabaletan. Igandean, otsailak 12, 20:30ean, Nintendo dsi xl bat desagertu zen bere estutxe barruan. Mesedez norbaitek aurkitu badu dei dezala telefono honetara: 689 73 64 77

Umearen txamarra. Aretxabaletan, Aratuste-domeka arratsaldean galdu nuen. Marroia da, Quiksilver etxekoa eta 4 tailakoa. Norbaitek aurkitu batu dei dezala: 659 35 89 92

807. AURKITU

Antzuolako plazan urrezko eraztun bat aukitu genuen abenduan. Antzuolako plazan urrezko eraztun bat aukittu genuen abenduan. Norbaitek galdu badu deitu telefono honetara: 656-76 78 90.

Berokiak. Bergarako Agorrosingo tabernan umeen bi beroki agertu dira. Izena daukate idatzita: Ander G. L. eta Jokin B.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Arrasatetik Donostiara autoan. Egunero Arrasatetik Donostiara joateko autoa partekatzeko jende bila nabil. Arrasatetik 7:15ean irtetzen naiz eta Donostiatik 17:30etan, gutxi gora behera. 669 13 20 08 Imanol.

Durangotik Tolosara autoa konpartitzeko. Durangon bizi naiz eta Tolosan egiten dut lan. Kotxea konpartitzeko pertsona bila nabil. durangotolosa@gmail.com. Tel.: 680-58 41 25.

Mutil euskaldun jator baten bila Bilbon. 50 urteko neska euskalduna naiz. Alaia, irekia, berriketari ona, lagun zintzoa. Gustuko dut igeri egitea, snderismoa (baina oso suabea, jeje), zinea, kantatzea, euskal kulturaren mundua, hondartza, bidaiatzea, lagunekin irtetzea, txangoak egitea.. Bizitzaz disfrutatzea. Nire antzeko mutil bat ezagutu nahiko nuke, bi oso zenbaki polita delako. Deitu 606 -25 05 84 telefonora.

Etxebila higienizinak
943-44 61 66
SALMENTAK
AMARA Madril etorbidea. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 160.000.
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Eguzkitsua. 41.560.000.
AMARA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 39.990.000€.
AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Garajea. Trastalekua. 48.500.000.
ERDIALDEA Moraza kalea. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. 35.000.000.
ANTIGUA 70 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Oso polita. 49.990.000.
EGIA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 29.990.000.
HERRERA 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Berritua. Kalera. 29.950.000.
GROS Secundino Esnaola. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Garajea. 61.750.0000.
MARTUTENE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Parkinga. 27.950.000.
PASAI ANTXO 80 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berritua. Igogailua. 33.900.000.
PASAI ANTXO 70 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 28.285.000.
ERRENTERIA Altua. Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoiak. 33.000.000.
ASTIGARRAGA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 25.990.000.
LEZO 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Berritua. 20.750.000.
LEZO Eraiki berria. 2 edo 3 logela. Terraza. Garajea. Trastelekua. 220.000€.
ALOKAIRUAK
HERNANI Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza 15 m2. Oso polita. 650€.
AMARA 2 logela, sukaldea, jangela, egongela, bainugela. Terraza. 850€.
ULIA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berogailua. Parkinga. 825€.
GROS Ramon M. Lili. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 950€.
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. Oso prezio onean 39.000.046 pezeta!
Aia. Baserria berritu berria. 125 m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000 m2. 50.000.000 pezeta.
Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. Aparta. Lehenbailehen saltzekoa.
Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. 39.000.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.
Zarautz. Vista Alegre. 2 logela, bainugela, sala, sukaldea. Bista zoragarriak itsasoaldera. Oso prezio onean. 38.000.000 pezeta.
Errioxa. Haro. Txaleta. 4 logela. Lorategia. Garajea. Txokoa. Igerileku komunitarioa. 38.000.000 pezeta.
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

Bergarako Udala

Bergarako Udala aldi baterako **TURISMO ETA MUSEOKO TEKNIKARI** bat kontratatzera doa. Halaber, lan-poltsa osatzera doa.

Lehiakideen baldintzak:
Oinarrietan jasotakoak eta, besteak beste, ondorengoak:

a) 16 urte beteta izatea.
b) Filosofia eta Letretan Lizentzia (geografia eta historia arloan) edo parekoa den titulua izatea, edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
c) 4. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa.
d) Ikusi oinarriak...

Instantziak aurkezteko epearen amaiera: 2012/03/16.

Oinarriak:
Idazkaritzako bulegoetan, eta webgunean (*www.bergara.net)*.

Bergara, 2012ko otsailaren 29a.
ALKATEAK

World Mobile Congress-en, NFC wsarea eta aplikazioak jaun eta jabe

- Gailuei dagokienez, pixel gehiagodun kamera eta nukleo askodunak dira nobedade
- Telefono bidezko ordainketa sistemak egongo dira bogan 2012an

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Mugikorretarako teknologiaren etorkizunik gertukoena ezagutzeko aukera egon da pasa den astean Bartzelonan. Mobile World Confgess feria egin dute Kataluniako hiriburuan, mundu mailako erreferentzia den azoka, hain zuzen ere.

Gailuen urtea barik inguruko teknologien eta aplikazioen urtea izan da eta batez ere NFC teknologiaren erabilpen ezberdinena. Mugikor bidez ordaindu, taxiak eskatu, freskagarriak makinatik erosi eta informazioa partekatzeko aplikazioak izan dira nagusi nahiz eta Nokia eta Motorola etxeek euren azken gailuak ere aurkeztu dituzten: lehenak Nokia 808 PureView telefonoa eta Motorolak MotoAct erlojua, kirol jarduera erregistratu eta mugikorrera informazioa bidaltzen duena.

Handikiak handikeriatan

Nokiak harritzeko tamainuaren alde egin du eta 41 megapixel daukan kameradun gailua atera du hiru prozesatzaile dituena. HTC ere ez da atzean geratu eta lau nukleo dituen Android sistemadun one X Endeavour telefonoa aurkeztu du.

Mugikorrez osatutako zaldia, azokaren sarreran. | GIZMODO

Ezustekoa, Telefonicak

Baina teknologiarekin zuzenean lotutako albisteak alde batera utzita, Telefonicak eginiko iragarpena izan da zeresana piztu duena. Mugikorrak finantzatzearri utziko dio konpainiak eta finantziazioa gura duenak La Caixarekin hitzartu duen kuota sistema baten bidez egin beharko du. Interesen kostua, baina, bere gain hartuko du Telefonicak.

Mugikorretako zerbitzuetako joerak

LTE SAREA
3G sarea ordezkatuko du 4G sareak (LTE, teknikoki), ahalmen eta abiadura handiagokoak. Ia zuntz optikoaren adinako abiadura izango du sare honek 2014rako baina dagoeneko martxan da.

ORDAINKETAK
NFC gertuko eremuko kablerik gabeko sarea erabiliko dute mugikorrek ordainketetarako. Banaketa makinak ala taxia bera ordaindu ahalko da, besteak beste, mugikor bidez.

VODAFONEREN JOYN
WhatsApp mezu-aplikazioak jandakoa berreskuratzeko operadoreek eskainiko diztuzte alternatiba berriak. Bideoak, artxiboak eta txata eskainiko dituzte zerbitzu berriekin. Lehena Vodafone izan da.

POKEN APLIKAZIOA
NFC teknologia mugikorrek elkarren artean informazioa eta fitxategiak partekatzeko ere erabiliko da. Bi gailu elkarrekin ukitu eta artxiboak batetik bestera igaroko dira.

EBAY ETA PAYPAL
Dendetako eta sareko erosketak gurutzatuko ditu elkarlan honek. Produktuaren etiketa irakurri eta sarean produktu horren ala antzekoen eskaintzak bilatuko dituzte momentuan bertan eta erosketa bideratu.

HP PRINT
Inpresora enpresak GPS bitartez inguruan dauden inpresio puntuak kokatu eta dokumentuak inprimatzeko aplikazioa aurkeztu du sarea eta GPSa erabiltzen dituena.

NFC TAGS
Etiketa hauek edonon kokatu eta NFC sareari esker aurrez programatutako ekintzak egiteko gauza da mugikorra. Adibidez, autoan bluetootha aktibatu, zerbait gogorarazi eta etxeko alarmak piztea.

FORD EMERGENCY
Sync delako teknologia dakarren lehen autoa aurkeztu du Ford-ek. Istripu kasuan larrialdiei deitu eta GPS bidez autoa kokatzeko gauza da teknologia berri hau.

BLACKBERRY QNX
Mugikorra autoan sartu bezain laster jabearen ezarpenak aktibatu, agendan daukan helbide bat nabigatzailean sartu ala multimedia edukiak erreproduzitzeko gauza da Blackberry-ren aplikazioa.

GOO TAXI
Taxiak eskatzeko aplikazio bat baino gehiago aurkeztu dute. GPS bidez inguruko taxiak kokatu eta libre badaude eskatu eta denbora kalkulatzeko gauza da Goo Taxi.

Eguenean, martxoak 1, sartu zen 'Sinde legea' indarrean neurri guztiekin

Jabetza Intelektualaren batzordeak salaketak bideratzeko eskumenak ditu aurrerantzean

J. B. | ARRASATE

Jabetza Intelektualaren Batzordeak eguenetik aurrera tresna berri eta azkarragoak ditu egile eskubideak urratzen dituzten webguneen aurka egiteko. Sinde legea internauten elkarteek errekurritu bazuten ere, gaiak orain-dik orain Auzitegi Gorenean jarraitzen du geldi eta kontrako epairik ezean, momentuz, martxoaren 1etik aurrera, indarrean da Sinde Legea. Berdin eragingo die legeak edukiak eskaintzen dituzten guneei zein horietara loturak eskaintzen dituztenei.

Labur azalduta, aipatutako batzorde horrek erabakita ala salaketa bat medio, auzitegien arteko bitartekari zein arbitro lanak egingo ditu, sistema administratiboa eta judiziala nahasten dituen prozedimendu batekin. Erabiltzaileen elkarteek hain zuzen, batez ere salatzen dute batzorde administratibo bati epaile batek beharko lituzkeen eskumenak ematen zaizkiola.

Salaketa eta prozesua

Ustezko webgune urratzaile horrek irabazi asmoa duen ala ez eta eskubideon jabeari kaltea egiten ote zaion hartuko dira aintzat. Hogei egun eta hiru hilabateren arteko epean hartu beharko dute epaileek ixteko erabakia. Salaketa jaso eta prozesua martxan jartzen den unean batzordeak erabakiko du salaketa bera tramitean jartzen den ala ez.

Edukia bera eskaini ala loturak eman, berdin eragingo die webguneei lege berriak; webgunearen aurka egingo da.

Windows 8aren probatarako bertsioak, milioi bat deskarga

Interesa piztu du mugarri moduan aurkeztu duten Windowsen bertsio berriak. Sistema hau bereziki da interesgarri edozein gailutarako egokitu daitekeelako eta disenua pantaila ukigarrietarako prestatu dutelako hasieratik. Lehen aurkezpena 2011ko irailean egin zuten eta bigarrena pasa den astean, Bartzelako kongresuan. Ordutik hona 100.000 hobekuntzatik gora egin ei dizkiote sistemari garatzaileen esanetan. Interfaze berriak Metro dauka izena eta automatikoki eguneratzeko gautasuna dauka, besteak beste.

Etzi aurkeztuko dute iPad 3a, Applek iragarri duenez

MWC-a amaitu bezain laster martxoaren 7an nobedade "ikusgarri eta ukigarriak" aurkeztuko dituela iragarri dute Apple-etik. Itxura guztien arabera, iPad 3a aurkeztuko dute. Hedabide espezializatuek aurreratu dutenez, iPhone -aren azken bertsioek dakarten pantaila bereizmena, kameratan hobekuntzak eta 4G sarera konentatzeko ahalmena izango du iPad berriak. Hau horrela bada, urtebete eskas besterik ez du itxaron Applek iPad-aren bertsio berria merkaturatzeko. Iazko udaberrian atera baitzuen iPad 2 arrakastatsua.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA

50eko hamarkada pantaila digitalean

Teknologia modernizatzen doan heinean, gizartea nostalgiko dago eta *vintage* estiloa presentzia handia hartzen ari da. Aurtengo *Oscar* sarietako garailea, *The artist*, ikustea besterik ez dugu.

Telebistan ere antzeko zerbait gertatu da. *Mad men* telesaila izan daiteke adibide. 50eko hamarkadan girotutako istorioak hiru Urrezko Globo eta bederatzi Emmy eskuratu ditu. Telesaiaren *look vintage*-ak zeresana eman du moda munduan. Askoren ustez, *vintage*-aren itzulera telesail horren eskutik dator, gainera.

Mad men-ek martxoan estreinatuko du bosgarren denboraldia. Iragartzeko, New Yorkeko metroan hainbat kartel zintzilikatu dituzte. Kartel horietan, metroko bidaiariek beraien irudiak marraztu dituzte. Metroko kartel guztiak eraldatuta agertu dira, oso modu originalean, gainera. Bidaiarien erreakzioa ikusita, lehiaketa bat ere jarri dute martxan. Modan, sari garrantzitsuetan, New Yorkeko metroan... edonon ikus daiteke telesail horren arrakasta. Bosgarren denboraldia estreinatu gabe egon arren, istorio berriak ezagutzeko prest gaude.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 5

Mondra-Behobia futbol partidua

20:46

Mondrak Behobiaren aurka jokatu zuen zapatu arratsaldean, eta bertan gertatutakoak ikusiko ditugu *Harmailatik*-en.

12:25 Magazinea
13:25 Onein
13:55 Kantari
14:28 Beranduegi.tv
14:45 Berriak
15:15 Erreportajea: Amaiurko errota
15:23 Ur eta lur
16:15 Goierri Creation Center
16:46 Berriak
17:16 Ur eta lur
18:08 Onein
18:33 Artegintza
18:46 Berriak
19:16 Kantari
19:46 Magazinea
20:46 Harmailatik
21:31 Magazinea
22:31 Harmailatik
23:16 Gipuzkoa kultura
00:00 Altxor Txokoa

MARTITZENA, 6

Autokonpostaje kanpaina

19:44

Mankomunitateak martxan jarriko du autokonpostaje kanpaina, eta horri buruz hitz egiten izango dugu Josu Pereda.

12:30 Magazinea
13:30 Harmailatik
14:15 Kantari
14:45 Berriak
15:15 Beranduegi.tv
15:36 Harmailatik
16:19 Onein
16:45 Berriak
17:15 Bizitegia
17:45 Harmailatik
18:30 Artegintza
18:44 Berriak
19:14 Kantari
19:44 Magazinea
20:44 Goierri Creation Center
21:15 Beranduegi.tv
21:30 Harira
22:15 Magazinea
23:15 Harira

EGUAZTENA, 7

Martxoaren 8a hizpide

19:45

Emakumeen Egunaren atarian, Amets Beltran De Gebara Emakume Txokoko dinamizatzailearekin izangogara.

12:15 Magazinea
13:15 Harira
14:00 Beranduegi.tv
14:15 Kantari
14:45 Berriak
15:15 Gipuzkoa kultura
15:45 Onein
16:13 Berbetan
16:50 Berriak
17:20 Altxor Txokoa
17:52 Artegintza
18:05 Harmailatik
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Bizitegia
21:15 Magazinea
22:15 Berbaz
23:15 Magazinea

EGUENA, 8

Irrati jardunaldiak ikusgai

22:15

80 urte bete dira lehenengo euskarazko irratsaioa egin zenetik, eta horren harira egindako irrati jardunaldiak erakutsiko ditugu.

12:30 Magazinea
13:30 Gipuzkoa kultura
13:55 Kantari
14:20 Bizitegia
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:42 Berbaz
16:42 Berriak
17:12 Kantari
17:42 Ikusten
18:20 Beranduegi.tv
18:35 Onein
18:55 Berriak
19:20 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Bizitegia
21:15 Magazinea
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Goierri Creation Center
23:16 Magazinea
00:38 28.Klip

EGUBAKOITZA, 9



'Goierri Creation Center'

16:08

Goierri Creation Center izeneko saio berrian Goierri inguruko artistak ezagutzeko aukera paregabea izango dugu.

12:30 Magazinea
13:30 Gipuzkoa kultura
13:55 Kantari
14:22 Onein
14:47 Berriak
15:14 28.Klip
15:38 Bizitegia
16:08 Goierri Creation Center
16:38 Berriak
17:11 Harira
17:56 Beranduegi.tv
18:16 Berbetan
18:53 Berriak
19:23 Kantari
19:53 Magazinea
20:53 Harira
21:38 Magazinea
22:38 Esatea libre
23:38 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Ke Parche taldearen antzezlanerako sarrerak zozketan

Ke Parche taldearen antzezlanerako sarrerak ditugu zozketan. Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan izango da, eguenean, 22:00etan, Arrasateko gaztetxean. Zozketan parte hartzeko: deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera edo *@arrasategoiena*-ra. Animatu, parte hartu eta zorte on!

Udaberriko tenporei buruz hitz egingo dugu Pello Zabalarekin

Udaberriko tenporei buruz Pello Zabalarekin jardungo dugu Arrasate Irratian. Zabalak emango digu tenporen gaineko informazio guzti-guztia gertutik. Udaberriko tenporen gainean berba egingo dugu eguaztenean, hilaren 7an, 10:30ean, *Igo autobusera!* irratsaioan. Horrenbestez, adi entzun Pello Zabalaren azalpenak.

Martxoaren 8aren bueltan antolatutako hitzorduen berri

Martxoaren 8a, eguena, izango da Emakumeen Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, Arrasaten hainbat ekitaldi antolatuko dituzte eta guk horien guztien berri emango dizuegu 107.7ko uhinetan. Martxoaren 8aren zentzuaz ere jardungo dugum eta egun horrek emakumeendako zein esanahi duen ere aztertuko dugu aste honetan *Igo autobusera!* irratsaioan.

TELE-ALBISTEAK

Jesus Elortza Bergarako alkatea izango dugu 'Harira'-n

Udal aurrekontuak, herriko gorabeherak eta beste hainbat gai izango ditu hizpide Elortzak

Bergarako udaletxea. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Jesus Elortza Bergarako alkatea Goiena telebistako *Harira* saioan izango da bihar, martitzena. Herriko gorabeherak, udal aurrekontua, egunotan denon ahotan dagoen hiri hondakinen kudeaketa... izango dituzte berbagai, besteak beste.

Parte hartu

Ikus-entzuleek saioan parte hartzeko eta alkateari galderak egiteko aukera izango dute.

Hainbat modutara egin ahal izango dute hori. Zuzenean galderak bi modutara egin ahal izango dira: telefonotik deituta 943 25 05 05 zenbakira edo Twitter bidez, *#harira* traola erabilita. *Goiena.net*-etik *streaming* bidez ere eskainiko da saioa eta galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute erabiltzaileek.

Galderak aurretik bidaltzeko aukera ere izango da: posta elektronikoz *harira@goiena.com* helbidera edo *Goiena.net* -en, albistearen barrenean, galdera edo iruzkina erantzunetan utzita.

Martitzenean 21:30ean eskainiko dizuegu 'Harira' saioa

Hurrengo saioak

Bergarakoaren ostean Arrasateko alkatearen txanda izango da, hilaren 13an; Aretxabaletakoa izango da hilaren 20an; zazpi egun geroago Eskoriatzako alkatea izango da gurean; apirilaren 3an Antzuolakoa; hurrengo astean Aramaiokoa; apirilaren 24an Elgetakoa; eta maiatzaren 8an Leintz Gatzagako alkatea izango da. Horrenbestez, bailarako alkate guztiak igaroko dira *Harira* saiotik.

ZORION AGURRAK

OÑATI
Kattin Malbadi eta Ainhoa Ugarte
Martxoaren 11n, 6 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetze egunian eta jaso patxo handi bana etxeko danon izenian.

ARAMAIO
Jose Maria Perez
Martxoaren 10ean, 46 urte. Zorionak! Denon partetik, patxo handi-handi bat eta egun oso ona pasatu.

ARETXABALETA
Mikel Oskoz Ascunce
Martxoaren 10ean, Urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Heldu da zure eguna. Ea bazkari eder batera gonbidatzen gaituzun. Mila muxu eta egun eder bat pasa dezazula amatxo, Ekaitz eta Iratiren partetik.

ARETXABALETA
Maialen Gonzalez de Martin
Martxoaren 9an, 5 urte. Zelako handi ein zaren. Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo handi bat etxeko guztion partetik.

OÑATI
Eneritz Osinaga Osinaga
Martxoaren 8an, 9 urte. Zorionak, *guapa*! Ondo pasatu zure urtebetze eguna. Besarkada eta muxu handi bat etxekuen partetik.

ARRASATE
Uxue Kortabarria Maskariano
Martxoaren 8an, 2 urte. Zorionak, poxpolintxo! Fuerte egin putz bi kandelatxoei! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bana. Naroa, aitatxo eta amatxo.

BERGARA
Ainara Gomez Familiar
Martxoaren 7an, 9 urte. Zorionak guraso, aiton-amon, izeba eta Andoniren partetik.

ARRASATE
Luken Martin Ayani
Martxoaren 6an, urtebete. Zorionak, potxolo! Zure lehen urtebetetzean egun ederra pasa dezazula espero dugu. Muxu pila bat familia guztiaren, eta bereziki, Anerren partetik.

ARETXABALETA
Xabat Zillaurren Iria
Martxoaren 6an, urtebete! Zorionak eta urte askotarako. Musutxo potolo bat etxekuen partetik.

ARAMAIO
Mertxe Alonso Esquina
Martxoaren 6an, 40 urte. Zorionak, tia Mertxe! Zure laguntxo Bonekin afaritxo bat oparituko genizuke baina hitz hauekin konformatu beharko zara. Oso ongi pasatu eguna. Kiloka muxu etxekoen eta, bereziki, zure loba Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, *gitana*!

BERGARA
Ander Zangitu Orbea
Martxoaren 5ean, 22 urte. Zorionak eta urte askotarako, Zangi! Kuadrillakuen partetik!

ARRASATE
Izaro Llodio Ramos
Martxoaren 5ean, 6 urte. Zorionak, Puxi! Muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik.

OÑATI
Uritz Zabala Arabaolaza
Martxoaren 5ean, 2 urte. Zorionak familiaren partetik eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean.

ARRASATE
Alba Andres Bautista
Martxoaren 5ean, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ederto ospatu egun berezi hau. Bi eskuko atzamar guztiak altxatu eta 10 kandelatxoak putz handi-handi batekin itzali. Kiloka muxu potoloak laguntxo guztien partetik. Patxoak, laztana!

ARRASATE
Ioseba Heriz Uribesalgo
Martxoaren 5ean, 25 urte. Zorionak! 25 urte jada gure pinpirinak! Ondo ospatu biharra daukotzu/daukou, eh! Badakitzu, gu prest! Patxo pila eta besarkada handixa Zigarrolatik.

BERGARA
Aroa Arevalo
Martxoaren 6an, 9 urte. Zorionak, nere printzesa. Musu handi bat. Ondo pasatu zure eguna. Zure amama Francisca.

BERGARA
Julen Rejano Molina
Martxoaren 5an, 2 urte. Zorionak, potxolo! Oso ondo pasa ezazu zure bigarren urtebetetzea! Muxu asko! Zure anaia Landerren partetik..

OÑATI
Natale Kortabarria Txintxurreta
Martxoaren 4an, 2 urte. Zorionak, potxola! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat danon eta bereziki Enaitzen partetik.

ARETXABALETA
Iker Isasmendi Zubizarreta
Martxoaren 3an, 35 urte. Zorionak, Iker, zure urtebetetzean. Ondo pasatu zenuen eguna, ezta? Patxo handi bat familia guztiaren eta batez ere Oinatzen partetik!

ARRASATE
Naiara Oroiz Muñez
Martxoaren 2an, 5 urte. Zorionak, neska handi! Oso ondo pasatu zure bosgarren urtebetetzean. Musu potolo bat etxekoen, eta bereziki, zure ahizpa Nerearen partetik.

BERGARA
Eneko Unamuno Ruiz
Martxoaren 2an, 22 urte. Zorionak eta urte askotarako, Kox! Kuadrillakuen partetik!

OÑATI
Lexuri Altube Arkonada
Martxoaren 2an, urtebete. Zorionak, poxpoliña! Ai ene, dagoeneko bete duzu zure lehenengo urtetxoa. Zein azkar pasatu den denbora... Zorionak eta txokolatezko muxu pottolo eta goxoak etxeko guztien, eta batez ere, aitatxo eta amatxoren partetik.

ARRASATE
Oier Borbolla Quevedo
Martxoaren 2an, 5 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu eta patxo bat etxeko guztien partetik!

ELGETA
Alaitz Agirreurreta Litago
Martxoaren 2an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean eta muxu potolo bat denon partetik!

BERGARA
Javier Igarza Lizarralde
Martxoaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, aitxitxa. Muxu bat Irati eta Uxueren partetik.

BERGARA
Maialen Arregi Arrieta
Martxoaren 2an, 19 urte. Zorionak eta urte askotarako! Primeran pasa ezazu eguna, merezi duzu-eta! Ah, eta zapatuan juerga on batekin ospatu eta ondo pasatu, pasatu gabe! Jajajaja! Patxo handi bat Bartzelonako bi lagunen partetik!

OÑATI
Ane Garcia Calzada
Otsailaren 28an, 2 urte. Zorionak, maittia! Bi urtetxo beteko ditu gure etxeko poxpoliñak! Marrubizko muxu bana, aitatxo eta amatxoren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu.
Bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita GOIENA paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

JAIOTAKOAK

Sara Sotil Barrio

Bergara. 3,750Kilo. Otsailaren 26a. Gurasoak: Nahikari eta Ekain. Argazkian, Sara amarekin.

Leire Igartua Markuleta

Oñati. 3,510Kilo. Otsailaren 26a. Gurasoak: Nerea eta Jon. Argazkian, Leire ahizpa Uxue eta amarekin.

Unai Bolibar Amor

Bergara. 3,580Kilo. Otsailaren 28a. Gurasoak: Miren eta Mikel. Argazkian, Unai amarekin.

Aitor Garcia Salaberri

Arrasate. 3,200Kilo. Otsailaren 25a. Gurasoak: Jone eta Iban. Argazkian, Aitor gurasoekin.

Aiur Odriozola Urzain

Arrasate. 3,250Kilo. Martxoaren 1a. Gurasoak: Maite eta Aitor. Argazkian, Aiur gurasoekin.

June Santin Garcia

Arrasate. 3 Kilo. Otsailaren 29a. Gurasoak: Maialen eta Borja. Argazkian, June gurasoekin.

BABESLEA

UME

Garibai 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86

MARKA AUKERA ZABALA

HUNTER · Lili Gaufrette · ROXY · Pepe Jeans LONDON · lottum simply dutch · CHIPIE KIDS · BOSS HUGO BOSS · Levi's KIDSWEAR · DKNY DONNA KARAN NEW YORK · Timberland · catimini · RAMS 23 · IKKS JUNIOR · ELSY Girl · DDP · DIESEL

FAMILIA UGARIENTZAKO %10eko DESKONTUA

ESKELAK

ESKELA **EGUBAKOITZEAN** NAHIZ **ASTELEHENEAN** ARGITARATZEKO, DEITU BEZPERA EGUERDIRAKO: **943 25 05 05.**



Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

ESKELA

Avelina Arrieta Larrañaga

Julio Ugalderen alarguna
'Panaderokua Taberna'

2012ko martxoaren 3an hil zen, 87 urte zituela

Semea: Ramon; anai - arrebak: Luis (†) eta Mari Tere Garai, Carmen eta Serafin Bolunburu (†), Itziar eta Jose Luis Irazabal, Nati eta Jose Arantzabal, Arantxa eta Jaime Jimenez (†); koinatu - koinatak: Eusebio (†), Juana (†) eta Lorenzo Iturricastillo (†), Pilar (†) eta Imanol Ugalde (†), Felisa (†) eta Felix Markiegi (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak:

Bere oroimenez azken agurreko elizkizuna gorpua aurrean dela, gaur, astelehena, martxoak 5, 19:00etan, Elgetako Jasokundeko Amaren parroki elizan ospatuko dugu. Hileta ondoren familia artean erraustua izango da.

Helbidea: Salbador 10. Elgeta.
Familiak Bergarako OROILORE tanatorioan hartuko zaituzte. Gaur 11:00 - 13:00 eta 16:00 - 18:00.

Elgetan, 2012ko martxoaren 5a.

AI, ENE!

Animaliak moduan, paseatzera atera behar

Horixe behar genuen, altzariek ere etxean egitea eginbeharrak! Eskerrak diseinatzaile umoretsu baten ideia bakarrikm den!
www.nopuedocreer.com

AHOBERO

"Schettinorekin ohean amaituko nukeen, baina istripua gertatu zen"

DOMNICA CEMORTAN | ITZULTZAILE MOLDAVIARRA

Costa Concordiaren inguruko aferak oraindik ere zeresana ematen jarritzen du. Ez gertatutako guztia argitu delako, protagonista batzuk isilik egoten ez dakitelako baizik: itsasontziko kapitain lotsagabearen "lagun" moldaviar hau, esaterako.
Daily Mail

EGURALDIA

Max. 9º
Min. 3º

Hodeiak ugari eta tenperatura behera nabarmen. Elurra 700 metrora. Haizea, zakar.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA

goiena

2012-03-05

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Mikel Goñi 1996ean profesionaletan debuta egin zuenetik, zeresan handia eman du nafarrak; orain 'El Conquistador'-en Patagonian ikus dezakegu eta Euskal Herrian, bere arropa-dendan | **TXOMIN MADINA**

"Eskatu didaten arren, ez nuke Patagoniara lagun bat bidaliko"

1. Profesionaletan debutatu zenuenean, nolako ibilbidea imajinatzen zenuen?
Garai horretan debutatuz gero, imajinatzen zenuen profesional mailan erretiratuko nintzela. Ez zen erraza profesionaletan debutatzea, eta egitekotan 35-40 urterekin erretiratzen zinen.

2. Zer da frontoiaren onena?
Zure zale eta jarraitzaileak pozik ateratzea, haiei dena ematea. Partidu asko irabazi arren, jendeak nahiago du espektakulua; nahiz eta galdu, jendeak zure izena oihukatzeak bete egiten zaitu.

3. Nola portatu da pilotaren mundua Mikel Goñirekin?
Naizen eta dudan guztia pilotari zor diot. Gauza bat da pilota mundua eta beste bat hedabideak; horiek mauka izan zuten nirekin, gehiago egiten zen berba nire bizitza pribatuaz pilotaz baino.

4. Bi enpresa handietatik kanpo jokatuta, libreago zabiltza?
Ez du deus ikusterik; beste era bateko partiduak dira. Prezio merke antzean, jende asko biltzen da; niri oraindik segitzen didate. Jendea frontoira eroan eta gustura geratzea da asmoa.

5. Gosea, nekea, antolakuntza... Zein da Patagoniako etsai okerrena?
Niretzako makurrena proba fisikoak izan dira; eta psikologikoki, ordu asko ezer egin gabe egotea. Baina esperientzia bezala gustukoa dut, jende oso ona ezagutu dut han.

JON POZO

6. Han egonda etxetik zer igartzen duzu faltan?
Gauza asko; hemen nahi bezala bizi gara, dena eskura. Han ikusten duzu oinarrizko lau gauzarekin bizi daitekeela. Etxekoak, lagunak, zure bizitza igartzen dituzu faltan.

7. Eta hemen hango zerbait?
Hango jende asko ezagutu dut; gauza gutxirekin pozik daude, eta dutena elkar banatzen dute. Hemen hori galdu egin da; inbidia asko dago, nahiko berekoiak gara.

8. Kapitain moduan bai, baina lehiakide moduan joango zinateke?
Ez. Han ez dugu pribilegiorik. Batzuk fama bila doaz baina nik ez dut horren beharrik; publizitateagatik noa, eta ekonomikoki konpentsatzen duelako. Lagunek esaten didate eskua sartzeko eurak joateko, baina ez nuke hara lagun bat bidaliko.

9. Askok diote *showman* bat zarela. Ados?
Nire berotasunean egiten ditudanak ez ditut pentsatzen; eta askotan gauzak gaizki egiten ditut. Baina horrela denean, ez dut arazorik barkamena eskatzeko; uste dut hori jendeak gustuko duela. Horrelakoa naiz hemen, han edo Liman.

10. Arropa denda bat izanda, bota aholkua: udaberriko tendentzia?
Marrak, eta orokorrean moreak, urdina, beltza eta zuriarekin nahastuta. Beti gustatu izan zait moda; neuk aukeratzen dut dendako arropa eta ez dut gustu txarra izango, dena saltzen da-eta!

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Hirugarren munduko haurrei, aukera"

"Ez dut ongi geratzearren esaten, ezta jendeak entzun gura duena delako ere; baina hirugarren munduan dauden haurrek, miserian dauden lekuetako jendeak aukera bat izatea gurako nuke. Era berean, gu hain zikoitzak izan beharrean, besteei laguntzea ere gurako nuke".

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA

Merkatu ala garestitu

Europako Banku Zentralak bilioi bat euro inguru banandu ei du ehunka bankuren artean, apenas bi hilabeteren buruan. Dirutza hori ez omen dute baliatuko ekonomia erreala bultzatzeko; etxean dituzten zuloak estaltzeko baizik. Nork egindako zuloak? *Merkatu* deitzen omen da erruduna, irakurle; baina oraingoz ez dute identifikatu. Bitartean austeritatea da kontu publikoetan ezarri digutena. Errekortariak jai giroan ezagutzen genituen; zezenari ixkin egin eta jolasean; errekorteak eginez, ikusle ginenon txalo zaparradak jasoz; baina aspalditxotik, merkatuon ordezkariek ofizioa ikasi dute, errekor guztiak hautsiz. Ikusle gisa egon garenok ere, zerbait ikasi beharko dugu; ekonomiaren zezena errukirik gabea omen da eta; eta plazara jauzi eta *jaialdian* esku hartu.

Gaia aldatuz, jaioberri bati ongietorria; *Naiz*, *Gara*-ren bertsio digitala, gure artean da. Urte asko eta oparoak izan bitza.

Eta itzultzaile automatikoa? Nolatan ez gara konturatu orain arte, euskaltzaleok! Hortxe euskararen normalizaziorako konponbidea! Izan ere, gaurtik aurrera, supermerkaturen baten sarreran edo Jaurlaritzako bertako sailen bateko atean, *Irekita, bihar eta berandu* ikusten baduzue, ez harritu, ez eta larritu ere, *Irekita, goiz eta arratsaldez* esan nahi zuen.

Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51